

**PARTAIDETZA EREDUETATIK
ERAIKITZE KOLEKTIBORA**
**Kultura herrikoiak, ilusionismo soziala
eta jabe-gabetzea**

Javier Encina, Ainhoa Ezeiza, Lide Salbarredi, Mainer
Aizpurua, Irati Guridi (koord.)

EGUNEROKO BIZITZAREN AUTOGESTIOA 1

Donostia / Sevilla, 2015eko iraila

ISBN: 978-84-15602-12-5



Material hau edozein medio edo formatutan partekatu, kopiatu, berriz banatu eta egokitzeko askatasuna duzu, baldintza hauen pean:

- **Aitortu:** Autoreak eta lanaren iturria aipatu behar dituzu.
- **Berdin partekatu:** Edukien jatorrizko lizentzia bera erabili behar duzu materiala berrerabiltzean.

Argitaratzailea:

Ikaskidetza Sarea- Gipuzkoako Foru Aldundia
Ilusionista Sozialen Mintegia (UPV/EHU)
ilusionistasozialak@gmail.com

Argitaratzaile eta inprimatzailea:

Bitiji-Toreador de Pájaros
bitiji@gmail.com
c/San Hermenegildo , 15. 41003- Sevilla

Baterako argitalpena:

UNILCO-espacio nómada
Ilusionista Sozialen Kolektiboa
<http://ilusionismosocial.org/>

Azalaren diseinua: Ainhoa Ezeiza, Javier Encina.

Argitalpen hau Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundua da, “Ikasmina-Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea” programapean, Europako Gizarte Funtsaren ekarpenarekin batera.

Ikaskidetza Sarea Euskal Herriko Unibertsitateak CICC-Tabakalera, Multimedia Educativa (MJB) eta Bikumé SL erakundeekin batera garatutako proiektua da. Proiektu honetatik abiatuta sortu da Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako Ilusionista Sozialen Mintegia (UPV/EHU).

Aurkibidea:

Jendearekin eta jendearengandik parte hartzen. Sarrera bat. Javier Encina, M^a Ángeles Ávila, José A. Castro, Eva Escudero, Ana Karen García, Begoña Lourenço, Dresda Enma Méndez, Rubén Montaña, Carmen Pérez, Mónica Matilde Ramírez, Ángel Rodríguez eta Juan Manuel Zaragoza (itz.: Lide Salbarredi) 5

Ilusionismo Sozialaren printzipioen inguruan. Javier Encina eta M^a Ángeles Ávila (itz.: Mainer Aizpurua, Itziar Rodríguez, Olatz Carreira, Ainhoa Ezeiza) 18

Kultura herrikoiak. UNILCO-espacio nómada (itz.: Irati Guridi, Aitor Errazkin)..... 53

Jabe-gabetzea. Sarrera bat. Javier Encina eta M^a Ángeles Ávila (itz.: Ainhoa Ezeiza) 83

Hizkuntzaren jabe-gabetzea. Ainhoa Ezeiza, Nahia Delgado eta Javier Encina (itz.: Ainhoa Ezeiza)..... 107

Itzulpen guztien orrazketa: Ainhoa Ezeiza

Jendearekin eta jendearengandik parte hartzen. Sarrera bat.

Javier Encina, M^a Ángeles Ávila, José A. Castro,
Eva Escudero, Ana Karen García, Begoña Lourenço,
Dresda Enma Méndez, Rubén Montaña, Carmen Pérez,
Mónica Matilde Ramírez, Ángel Rodríguez
eta Juan Manuel Zaragoza.

Itzulpena: Lide Salbarredi

Azken 20 urteotan, maila teorikoan, esfortzu handia egin dugu sinpletik konplexura joateko (praktikan aurrerapauso bat eman dugu) eta 6 urte dira konplexutik xumera nola pasa pentsatzen gabiltzala, nola jakin gabe... Lan honen bitartez, aurrerapauso bat eman nahi izan dugu egite eta sentitzeetan argituta daukaguna teorian gauzatzeko. Beharbada, nahi izan duguna ez dugu guztiz lortu, baina hala ere, pentsamenduak, sentipenak eta egintzak bakoitza bere erritmoan konpatsatzeko bide berri bat ireki digu.

Gure lanaren gai nagusia bitartekaritza desiragarriak¹ dira, hau da, nola egiten/sentitzen/pentsatzen dugun nahi dugun mundua bizitzeko, alegia, nola autogestionatzen dugun gure eguneroko bizitza, nola egiten garen gure bizitzaren protagonista, eta zehatzago, zein diren

¹ Gehiago sakontzeko honako gure bideo hau ikus dezakezu:
<http://vimeo.com/43623586>

bestekin erlazionatzeko sustatzen ditugun moduak – pertsonen eta taldeen artean– gure eguneroko bizitzari tranzendentzia emateko, geure beharrak asetzeko, gure trebetasunak geure komunitateko beste jendearekiko jokoan jarritz. Bitartekaritzen² gaia lantzeko Jesús MARTÍN-BARBEROren lanek³ asko lagundu digute. Arazoa da bitartekaritza desiragarriez gain, **beste bi bitartekaritza mota** daudela (mundua egiteko/sentitzeko/pentsatzeko erak edo kosmobisioak, geure komunitatean kolektiboki eraikiak): **Inposatzen dizkiguten bitartekaritzak** (objektu, produkzio-bide edota pertsonen jabetza pribatua, kasu) eta **onartzen ditugun ditugun bitartekaritzak** (“*mediaciones consentidas*”), Merkatuak, Estatuak eta bestelako erakunde sozialek (familia, eliza, eskola e.a.) onartzera bultzatzen/eramaten gaituztenak (esaterako, opariak jasotzearen edota familiarekin bat etortzearen ezkontzen diren bikotekideak).

Borroka dialektiko horretan (kolektiboki eraikitzen den borroka dialektikoa, ideien debateen bidez, egiteak aurrez aurre jarritz eta bitartekaritza desiragarri, inposatu eta bere horretan utzitakoen arteko sentimenduak kontrajarritz) imajinarioak azaleratzen dira eta ezinezkoaren itxaropena pizten da.

“Jendea gehiago kontuan hartzen duen” partaidetza prozesu bat abiatu nahi badugu, pentsatu behar dugu ez garela lehenak izango halako zerbait egiteko ideia izan

² Bitartekaritza mota ezberdinen inguruan Javier Encinaren eta Beatriz Luque-ren artikulua irakur dezakezu:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=158>

³ Bitartekaritza sozialen inguruan Jesus Martin-Barberoren testua irakur dezakezu:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=159>

dugunak. Hiru era hauetan⁴ laburbilduko genituzke partaidetza prozesuak:

- Lehen, ordaintzen digunarengatik eta digunarentzat lan egitea litzateke (bidaltzen gaituenarentzat). Ez diogu ezer galdetu behar geure buruari, ezta inorekin lan egin beharrik ere; eskatu digutena egin behar dugu, ezarri dizkiguten edo geuk aldeaz aurretik ezarri ditugun helburuak bete besterik ez dugu.



Lalo Orozco-ren irudia

Azken finean, jendearengandik zerbait lortu nahi duen partaidetza mota da (informazioa, dirua, arreta etab.). Adibidez: Enpresa multinazional batentzat edo estatuko erakunde batentzat inkestak egitea, edo

⁴ Partaidetza moten inguruan, ikus ezazue Hiru Anaien Alegiaren bideoa: <http://vimeo.com/7191701>

egoera sozial bati buruzko txosten bat egitea, alderdi politiko batentzat hauteskundeetako kartelak ezartzea, edo gobernuz kanpoko erakunde zehatz batentzat edo mugimendu sozial batentzat dirua biltzea...

- Bigarrena, jendearentzat lan egitea izango litzateke. Ez diogu geure buruari ezer galdetu behar, aldez aurretik finkatu baititugu helburuak edo erantzunak aurkitu; geure proiektu barruan ez daudenekin ez dugu zertan lanik egin. Jendeak behar duena ezagutzea eta ematea da gure zeregin bakarra.



Lalo Orozco-ren irudia

Praktikan, lehenengo partaidetza motaren antzekoa da, baina “jendearengan pentsatuz” lan egiten dugu, zerbait eman edo eskaini nahian.

Adibidez: “Jendearen beharren” diagnosi bat egitea eta azterketa honen ondoren, komunitateko jende behartsuarentzat jangela sozial bat antolatzea. Edo gose greba bat egitea gobernuak langabeziari buruzko politika alda dezan aldarrikatzeko.

- Hirugarrena, jendearekin eta jendearengandik lan egitea litzateke. Jendearekin lan egin behar dugu, bere eguneroko bizitzaren protagonista izatea nahi badugu, jendeak bere bizitza autogestionatuko badu (beren kabuz gidatu). Horrela, prozesua abiatzen denetik aurrera, jendea izango da bere herria, auzoa, komunitatea... nolakoa izango den eraikitzen joango dena, proposamenak eginez, kolektiboki eztabaidatuz eta, taldeka, erabakitako proposamenak gauzatzuz, modu dialektikoan⁵.

⁵ Dialektikaren gaia gehiago sakontzeko, M^a Ángeles Ávilaren eta Javier Encinaren audioa entzun:
<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=457>
Edo ikus. Ignacio Fernandez Castro-ren artikulua:
<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=154>



Lalo Orozco-ren irudia

Partaidetza prozesu bat hasi aurretik, jakin behar dugu zeri erreparatu behar diogun, eta batez ere “**erlazionatzeko moduetan**” jarri behar dugu arreta, hau da, egoera ezberdinetan jendarekin erlazionatzeko dauzkagun modu ezberdinetan.

Leku ezberdinetan gaudenean, gure jokaera ezberdina izan ohi dela ikusten dugu. Hau zergatik ote da?

Pentsatzen hasiz gero, konturatzen gara zenbait tokitan⁶ ordutegi eta erabilera jakin bat zehaztua daukagula: enpresa bat, eskola, etxe batera bisitan joaten garenean, saltoki-gunea... Horrelako tokiak **lurraldeak** dira, izan

⁶ Lurraldeak eta ordutegiak zein espazioa eta denbora bereizteko, honako esteka honi segi:
<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=156>
Raul Zibechi-k ere lantzen du:
<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=157>

ere, erabilera jakin bat daukate (adibidez: aitak “nire etxean neuk agintzen dut!” esaten duenean, irakasleak ikasleak ikasgelatik kanpora bidaltzen dituenean, poliziak norbait leku publiko batetik bidaltzen duenean). Gainera, **ordutegi** jakin bat daukate, hau da, ezin ditugu erabili nahi dugunean (adibidez, haurrak 9:00etatik 16:30ak bitartean doaz eskolara). Halako tokiek, jende arteko harremanak pobretu egiten dituzte eta kontsumo edota ikuskizun erlazioak izatea sustatzen dute, leku hauetan agintzen digutena egiten dugulako edota ikusle huts bihurtzen gaituztelako. Zenbat eta toki gehiago definitu horrela (eta gero eta leku publiko gehiago ari dira horrelako bihurtzen), hainbat eta pobreagoak eta interesatuagoak (instrumentalagoak) izango dira gure harremanak⁷

Badira, aldiz, gauza ezberdin asko egiteko erabiltzen diren lekuak, jendeak lekua era ezberdinetan erabiltzen duelako (adibidez, parke bat) edo talde berak erabilera ezberdina ateratzen diolako (*tiangis* edo kale merkatu informalak, esaterako); honelako tokiei **espazio**⁸ deritzegu. Eta leku hauek arretaz aztertzen baditugu, ikusiko dugu honelako lekuek ez daukatela ordutegirik ez zeregin finkorik; nahi dugunean sartu eta atera gaitzke, hau da **denbora** deitzen dioguna, ez baitugu ordutegi jakin batean mugatu beharrik elkarren artean erlazionatzeko. Espazioetan, pertsonen arteko bitartekaritzak hartzen du garrantzia. Aipagarria da jendeak ordutegiak denbora bihurtzeko joera izaten dugula eta lurraldeak espazio:

⁷ Marc Auge-k ere gai hau lantzen du, ez-lekuen ikuspegitik:
<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=392>

⁸ Espazioa modu partehartzailean ekoizteari buruz Manuel Montañes eta Julio Alguacil-en artikulua irakurri:
<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=169>

- Ikasgelan irakaslea iraitz aparatua lantzen ari den bitartean, geure ikaslagunari ea zer moduz joan zaion asteburua galdetzen diogunean.
- Lantokian geurekin batera lan egiten duen pertsonaren osasunaz kezkatzen garenean.
- Saltokigunera erostera joan beharrean, paseatzera edota hitz egitera joaten garenean.
- ...

Jendea bere eguneroko bizitzaren protagonista izatea nahi badugu, konturatu behar dugu besteekiko harremanen bitartez hazi nahi dugula pertsona gisa, pertsona batzuk beste pertsona batzuekin topatuz, eta horrela modu askotara saretuz eta korapilatuz. Modu honetan asetzen ditugu gure beharrak eta horrela giza-eskala duen garapena eraikitzen dugu, Manfred MAX NEEFek⁹ planteatzen duen eran.

Zer diren beharrak eta asebetetzailerak¹⁰ galdetuko baligute, ez legoke erantzuteko arazorik, ez hitzez azaltzeko, ezta adibideak pentsatzeko ere. Zailtasuna dator pentsarazi nahi digutenean giza-beharrak infinituak direla. Gainera, behar amaigabeen ideia hori sustatzen da kontsumo eroaren gizartean, gehiago saltzeko, ezinbestekoa delako beharrak eta behar horiek asetzeko moduak (asebetetzailerak) nahastea.

Gizakion beharrak gutxi gorabehera unibertsalak dira, hau da, pertsona guztientzat berdina dira. Desberdina

⁹ Giza-eskalararen garapenean gehiago sakontzeko:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=167>

¹⁰ Geure bidea ikus dezakezu: <http://vimeo.com/38051454>

dena da era desberdinetan asetzen ditugula behar hauek. Honako hauek izango lirатеke:

- Bizi-iraupena (adibidez: osasuna, elikadura, lana...).
- Babesa (adibidez: zaintza, autonomia, familia...).
- Afektua (adibidez: adiskidetasuna, errespetua eta errespetatua izatea...).
- Ezagumena (adibidez: kritikotasuna, intuizioa, ikastea, meditatzea, gauza desberdinak probatzea...).
- Partaidetza (adibidez: proposatzea, erabakitzea, elkarrizketak izatea ...).
- Aisia (adibidez: umorea, erlaxatzea, ondo pasatzea...).
- Sorkuntza (adibidez: pasioa, borondatea, lana, ideiak izatea ...).
- Identifikazioa (adibidez: desberdintzea, zerbaiten parte sentitzea, baloreak ...).
- Askatasuna (adibidez: justizia, berdintasuna, senidetasuna, emakumekidetasuna...).

Gainera, behar bat asetu behar dugunean, kontuan izan behar dugu pentsatzen duguna, sentitzen duguna eta egiten duguna koherenteak izatea. Gizakion beharrak unibertsalak badira ere, behar hauek modu askotan ase daitezke; hau gure testuinguru sozialak eta kulturalak baldintzatu dezake, baina baita gure sormenak, gure aukerek, gure gaitasunek eta sentimenduek ere.

Asebetetzaille batek hainbat behar ase ditzake. Hobeto ulertzeko, adibide bat emango dugu: zure haurrari bularra

ematen diozunean, haurrak aldi berean bizi-iraupen, afektu, babes eta identifikazio beharrak asetzen ditu.

Arazoa dator behar bat asebetetzailer batekin nahasten dugunean. Horixe gertatzen da “auto bat behar dut” esaten dugunean, autoa behar bat dela esaten ari gara; baina hori horrela pentsatzen badugu (autoa = beharra) hauxe gertatzen da:

- 1) Ezin dugula eztabaidatu nola asetu gure beharrak.
- 2) Kontsumismo konpulsiboaren atzaparretan erortzen gara.

Autoaren nahaste horrek kaltetu egiten gaitu: autoa bizi-iraupenaren beharra asetzeko erosi dugu, garraiatzeko modu bat edukitzea, alegia? Ala gure afektu-beharra asetu behar dugulako (ligatzea), edota identifikazio-beharra, status sozial jakin bateko pertsonen onarpena lortzeko?

Zer behar dugun argi izango bagenu, behar hura asetzeko modurik egokiena pentsatu ahal izango genuke, ze gerta liteke bizi-irauteko lan bat edukitzea eta pentsatzea auto bat izanez gero, denbora aurreztuko dugula lanerako bidean, eta gero lan-ordu gehiago egin behar izatea autoa ordaintzeko eta hala, hasieran baino denbora gutxiago izatea eta gainera, askoz larrituago bizitzea autoa erosi aurretik baino. Azkenean, autoa erosteko helburua ezerezean gelditzen da, hasierako beharra (denbora librea izatea) ez baita betetzen.

Puntu honetara iritsita, iradokitzen dugu ez hitz egitea pobrezia buruz, **pobreziei buruz** baizik, pluralean. Izan ere, singularrean hitz eginda, diru sarrera jakin batera

iristen ez den jende multzoari buruz ari gara. Horregatik, pluralean hitz eginda (pobreziak), argitzen dugu ez garela egoera ekonomikoaz ari soilik, alegia, hilabete bukaeran diru gehiago edo gutxiago edukitzeari buruz, egoki asebeteta ez dagoen edozein giza-beharren eskasiak erakusten duelako giza-pobrezia:

- Bizi-iraupenaren pobrezia: elikadura gabezia, beroki falta...
- Babesaren pobrezia: edozein indarkeria-era azaleratzen denean, gobernuaren dirulaguntzak edo beka behar ditugulako autonomia galtzen dugunean...
- Afektuaren pobrezia: zapalkuntza politikoarengatik, autoritarismoarengatik, esplotazioarengatik...
- Ezagumenaren pobrezia: hezkuntzaren kalitate eskasarengatik...
- Partaidetzaren pobrezia: gizarteko talde jakin bat marginatzea (emakumeak, haurrak, minoriak diskriminatzeagatik adibidez), ...
- Identifikazioaren pobrezia: lekuko kulturaren balore ezezagunak inposatzeagatik, emigratzera behartuta egoteagatik, erbesteratze politikoarengatik...
- Askatasunaren pobrezia: opresioarengatik, erlazionatzeko toki faltarengatik...

Estatuak (bere askotariko esparruetan: udaletan, estatu eta federazio mailan, enpresa publikoetan e.a.), hainbat erakunde sozialek (hala nola: familiak, elizak, eskolak...) eta Merkatuak (besteak beste: enpresa pribatuek, banku pribatuek...) interes berezia dute gure gizartean geroz eta ordutegi eta lurralde gehiago egon daitezen, hartara, gehiago eta hobeto kontrolatuko gaituztelako. Beraien estrategia edukiak interesgune bilakatzea da (aldaeina,

izatea, identitatea, izenaren etiketa), pertsonak izan beharrean (egotea, elkarreragina, harremanak).



María Clauss-en irudia.

Horregatik, interesgunea pertsonak izatea nahi badugu, **beraiekin eta beraiegangandik** lan egin behar dugu. Modu honetan lan egiteari **ilusionismo soziala**¹¹ deitu diogu. Hau sortu da partaidetzaren teoriak eta kultura herrikoiak eguneroko denbora eta espazioetan nahastuz, posible denaren segurtasunetik (ezartzen dizkiguten eta geure buruari ezartzen dizkiogun mugetatik) ezinezkoaren itxaropenerantz (desiratzen duguna eta lortu ezina dela uste duguna), eguneroko bizitzaren autogestio kolektiboaren bidez. Lan egiteko modu honekin, ezinezkotzat hartzen den horretara hurbiltzen gara, momenturo pentsatzen, sentitzen eta egiten duguna banandu gabe.

¹¹ Ilusionismo soziala lantzeko, honako gure bideoa ikus dezakezu:
<http://vimeo.com/4944253>

Autogestio kolektiboa¹² eraikitzen jarraitzeko (nahitaez jabe-gabetzearen bidez egin behar duguna, hau da, zenbait egoeratan eduki dezakegun boterearen uztea egin behar dugu), honakoa da beharrezkoa:

- Lehenik eta behin, kolonizazioari **erresistentzia** jartzea gure egunerokotasunean, hala nola: Merkatuari, Estatuari eta bestelako erakunde sozialei.
- Bigarrenik, **haustura sortzailea** eragitea, jende berriarekin biltzeko proposamen berriak egiteko.
- Azkenik, **partaidetzarako bideak** egokitzea, bai deialdiak egiteko erak (asanbleak eta bilerak) bai biltzeko erak (espazio eta denboretan¹³ oinarrituak).

¹² Eguneroko bizitzaren autogestioa lantzeko, bideo hau ikusi:
<http://vimeo.com/30369018>

¹³ Egunerokotasunean sakontzeko, Michel De Certau-ren testua irakur dezakegu: <http://ilusionismosocial.org/mod/page/view.php?id=383>

Ilusionismo Sozialaren printzipioen inguruan

Javier Encina eta M^a Ángeles Ávila
Ilusionista Sozialen Kolektiboa. Sevilla.

Itzulpena: Maider Aizpurua, Itziar Rodríguez,
Olatz Carreira, Ainhoa Ezeiza

*“Jakintza orok du bere baitan
errorearen eta ilusioaren arriskua”.*
E. MORÍN.

Ikerkuntza sozialean, hiru dimentsio identifika ditzakegu arlo soziala aztertzeko eta esku hartzeko orduan: banatzailea, estrukturala eta dialektikoa. Dimentsio hauek ikerkuntza zertarako den markatzen dute eta era berean, parte hartzen dutenen rola ezartzen dituzte.

Gure nahia ez da jakintasun hutsa, baizik eta ezinegonari, ekintzari eta partehartzeari aukera ematea; horregatik, nahi hauek ahalbidetzen dituzten ildoekin egin behar dugu lan, mugimendua eta sormena pizten duten ildoekin, alegia, inplikazioa bultzatzen dutenak.

Ilusionismo sozial izenez ezagutzen duguna *egiteko modu bat* da (ez metodologia bat) dimentsio dialektikoan oinarritzen dena, abiapuntutzat metodologia partehartzaileak dituena (IAP bereziki) eta lana kultura herrikoei begira garatzen duena. *Eguneroko bizitzako espazio eta denboretan gertatzen diren bitartekotza sozial*

desiragarrien sorkuntza eta dinamizazioa ditu ardatz nagusi; horretarako, jendearekin eta jendearengandik abiatuta egin behar da lan, dauden aukeren segurtasunetik mugituz eta ezinezkoaren itxaropenera joz, eguneroko bizitzaren autogestioaren bitartez; pentsamendua eta sentipena, ekintza eta ezagutza, jakintza guztien ikaskuntza eta azterketa ezberdinu ezin direlarik.

Jesús IBÁÑEZek (1989:55) zehaztu bezala, dimentsio (ikuspegi) batzuek eta besteek hizkuntza tresna gisa erabiltzen dute, eta erabilera horrek berak eraldatzen du hizkuntza azkenean: “ikuspegi banatzaileak, orokorrean inkesta estatistikoa aplikatzen duenak, osagai sinbolikoaren dimentsio erreferentziala aplikatzen du: gauzak esateko aukera ematen du (...) (gertaeren gaineko ikerketa) —horregatik deitzen diogu deiktiko—. Ikuspegi estrukturalak, orokorrean eztabaida-taldea aplikatzen duenak, osagai sinbolikoaren dimentsio estrukturala aplikatzen du: hizkuntzaz esateko aukera ematen du, hizkuntzaren bitartez (iritzien gaineko ikerketa) —horregatik deitzen diogu anaforiko—. Ikuspegi dialektikoak, orokorrean sozioanalisi aplikatzen duenak, osagai semiotikoa aplikatzen du: hizkuntzarekin egiteko aukera ematen du.

Dimentsio banatzailea funtsean kontrolerako tresna bat da, ikertutako subjektuek betetzen duten lekuagatik: galdetegi edo elkarrizketa egituratu eta itxiei baino ezin diete erantzun, ikertzaileak programatuta dauka ikertutako pertsonak ekoitziko duen informazioaren norantza. Ez du baimenik ematen zentzuaren trukerik egiteko edo eztabaidatzeko, subjektua ukatu eta objektu bihurtzen baitu. Dimentsio honek ikertzaileari interesatzen zaion norabidean soilik sortzen du informazioa. Ez du aukerarik ematen trukerako edo ideiak

zalantzan jartzeko, eta hartara, subjektua ukatzen du eta objektu bihurtzen du. Dimentsio honek soilik ikertzaileari interesatzen zaion informazioa ekoizten du, inkomunikazio prozesu baten ondorioz zeinetan ikertuari ez dion uzten alternatibarik proposatzen, galderak egiteko aukera ukatuz eta posizio asimetriko batean kokatuz.

Mayra Paula ESPINA PRIETOk (2007a:5-7) adierazi duen moduan: “Isolamendua, bereizketa, kontrola... saihestu egiten dituzte edo bigarren mailakotzat hartzen dituzte osotasunaren atalen artean sortzen diren elkarren arteko loturen kalitateak eta subjektu-objektu interferentzia eta anbigutasun edo dualtasun posibleak. Hori guztia irizpide bakarreko metodologietan bateratzen da, gauzak badira ala ez dira, modu batera ala bestera jokutzen dute, norabide zehatz baterako joera izango du etorkizuneko mugimenduan. Hipotesi kontraesankorrek alderatu behar dira zuzena zein den behin betikoz frogatu arte. Hortik nabarmentzen da zein garrantzitsua den zientifizitatearen baldintza ikuspegi honetan. Arazo adierazgarrienak gai zehatz bateko adituek antzematen dituztenak dira (osoaren zati batena), beraiek baitira benetan gaituak daudenak, “diziplinatuak”, aplikatzeko eremu zabala duten lege orokorrak aurkitzeko eta arazoei konponbide egokiak bilatzeko eta diseinatzeko. Ezagutzeko beste era batzuk ez dira adierazgarriak logika honetan, beren nolakotasuna dela eta ezin baitituzte funtsezko objektibotasunak azalarazi...”

Dimentsio honek, kontsulta bidezko partehartzea sustatzen du, inkesta, erreferenduma, *demokrazia elektronikoa* (instituzioek planteatzen dituzten auziak zure etxeko ordenagailutik erabakitzen joan zaitezke sarritan)..., jendearen iritzia/erabakia biltzen da eta ehuneko handienak erabakitzen duena eramaten du

aurrera administrazioak. Partehartzea iritzia ematera edo bozkatzera mugatzen da.

Dimentsio estrukturalak, bestalde, partzialki soilik onartzen du subjektua ikerketa prozesuan. Ikertzaileak jarraitzen du izaten ikertuak direnek zein momentutan hartuko duten parte erabakitzen dutenak. Funtsean, iritziak baino ez ditu arakatzen, eta hori soilik tresna erdiirekiak erabiliz egin daiteke, ikerketan parte hartzen duten pertsonen arteko elkarreragina posible egiten dutenak, eta horrela komunean dutena ikertu (gehien erabiltzen diren tresnak eztabaida-taldea eta erdiegituratutako elkarrizketa dira). Beraz, subjektuak adierazle gisa konektatzen ditu baina ukatu egiten die eraldatzaile izateko gaitasuna duten subjektu izateko aukera. Ezagutzearen aldekoak izaten jarraitzen dugu — oraingoan talde-ikuspegiz— baina beste batzuek — ikertzaileek edo ordaintzen dutenek— ikertuak direnen jakintza eurenganatura egin ahal izan dezaten (beraien afektu, beldur, nahi, jakintzekin...).

Edgar MORÍN parafraseatuz, dimentsio estrukturalak eragiten duen murrizpena *anitza dena batzean* datza, aniztasun hori ezeztatzen duen modu arbitrario batean. Banakoa eta berezia ezabatzeko modu bat da, lege orokorrak eta identitate simple eta itxiak identifikatuz, ordenaren logika kaosaren zaborteziaren gainean eraikiz. Raul ZIBECHIK (2007:67) beste modu batera esanda: “helburu hauek betetzeko, sakabanatzea eta ezberdintasuna indargabetu beharreko alderdiak dira, edo hobeto, homogeneousazio prozesu baten bidez ordezkatu beharrekoak. Hortik dator *inklusioa eta integrazioa* nabarmentzea, ezberdintasuna baliogabetzea bilatzen dela esateko modu leuna baita. Aldi berean, instituzionalizatzea bilatzen da, mugimendu sozialaren

arrazionaltasun administratibora, urbanistikora heltzeko asmotan. Arrazionala, zentzu horretan, estatuaren arrazionaltasuna da, ez subjektu sozialena, hauek beti irrazionaltzat jotzen baitira, edo, ezker politikoaren hitzetan, *espontaneotzat*”.

Dimentsio honek deialdi bidezko partehartzea sustatzen du, urtean zehar hainbat bilera antolatzen dira (proposatzeko, eztabaidatzeko eta erabakitzeke), administrazio publikoak xede horretarako deituak; gutun bidez, publizitate estatikoa erabiliz, komunikabideetan jartzen diren iragarkiekin, etab..., administrazio publikoak hurrengo urtean gauzatuko dituen hainbat ekintza erabakitzeke. Partehartzea bileretako proposamenetara, eztabaidetara eta erabakietara mugatzen da. Eta soilik bileren bidez hartzen da parte.

Bi dimentsio hauen aurrean (banatzailea eta estrukturala), dialektikatik (eta zehatzago, ilusionismo sozialak marrazten dituen *egiteko moduetatik*) subjektuak euren egoeran ezagutzen dira (beraien eguneroko denbora eta espazioetatik abiatuta), eguneroko bizitzaren autogestioan interesa duen ikerketa prozesu batean. Prozesuan hitzezko elkarrekintza gertatzen da, baina bereziki banakako subjektuen eta subjektu kolektiboen artean lotura sendoagoak eratzen dira, eguneroko bizitza(n) dinamizatu, sortu, gainditu eta gizarte laboreak (“*cultivos sociales*”) saretzeko gai izango direnak. “Ikuspegi banatzaile eta estrukturalak aldaketa ekiditeko edo kontrolatzeko saiakeran ahitzen diren bitartean, ikuspegi dialektikoak (eta berarekin beste gailu isomorfo batzuek egiten duten bezala), *aldaketa eragiteko* estrategia batean txertatzen dira (...). Errealitatea bere egoera positiboan finkatzen saiatu ordez, bere egoera posible(eta)rantz mugitzen saiatzen dira” Jesús IBAÑEZ (1989:65). Ignacio

FERNANDEZ DE CASTROren hitzetan (2008:61), dimetsio dialektikoek “herritarrak ispiluaren aurrean jartzea entseatzen dute, eurak izan daitezen beraien egia sortzen dutenak eta beraiek izan daitezen gizartea arakutzen dutenak demokratikoki eta euren neurrira eraikitzeko”. Jesus IBÁÑEZ parafraseatuz, eraikitze demokratiko hau subjektu gisa bizitzen bada baizik ez da posible; horretarako, ulertu beharra dago *subjektua prozesuan* posizioa gizarte-sistema ezagutzeko jardueratik jaiotzen dela, eta ikerketak zabaltzen diola gizarte-sistema etengabe eraldatu behar duela egiaztatzeko aukera, subjektu gisa bizitzea posible izaten jarraitzeko. Raul ZIBECHIK (2007:22) honela osatzen du: “posible da borrokatzea eta irabaztea aparatu eta buruzagirik gabe, abanguardia eta alderdien buruzagitarik gabe, eta antolaketa ez da nahitaez eraiki behar sektore herrikoien gainean pasatzen den hilarri baten moduan, baizik eta eguneroko bizitzan dagoeneko existitzen dena har daiteke abiapuntu (...) eta zabaldu, hobetu eta sakondu”.

Dimentsio honek nork bere espazio eta denboretan parte hartzea sustatzen du, eguneroko bizitzaren autogestiorako, proiektu baten aitzakiaz (aurrekontu partehartzaileak, Hiria Antolatzeko Plan Orokorra, Plan Estrategikoa, 21 Agenda, auzokideen plan bat...). Dena eguneroko espazio eta lekuetan eraikitzen da, aitzakia den proiektua bizitzatik beratik bereizi gabe (hartara, proiektua tresna huts bilakatzen da), proposamenak, eztabaidak eta erabakiak proiekturako sortzen direlarik baina baita eguneroko espazio eta denbora horietarako ere: proposamen batzuk administrazioek gauzatu beharko dituzte, beste batzuk jendeak berak. Parte hartzea ez da ez bozkatzea eta ez bizitze hutsa ere, lan kolektiboaren balioa azpimarratu behar da; geure burua behartu behar dugu zentzumenak piztera eta horrela ezinezkoak bizitzera

hurbilduko gara: urrun ikusten genituen horiek, ortzemugan desagertzen ziren hodei-buztanen antzera ikusten genituen horiek, itsusia desagerrarazi gabe, gure itxaropenak agertzeko tristurak erratzaz baztertu gabe... Hau ulertzen dugu autogestiorako joera duen partehartze prozesu bateko erlazionatzeko moduak bizi izan ditugunean.

Parte hartzeko modu ezberdinak ez dira osagarriak, eta ez dira eskailera bereko hiru maila, baizik eta denbora/ordutegi eta espazio/lurralde berberetan agertzen dira, aldi berean eta etengabeko borrokan. Gizarte eraldaketarantz zabaltzen duen bakarra norbere espazio eta denboretan parte hartzea da, beste bi moduak ezarritakoaren inguruan ixten dira, ezarpen gisa zein konbentzimenduz/onarpenez.

Ordenaren ikuskizunean mugitzen bagara (dimentsio banatzaile eta estrukturalen) 0-1 binomioan bizi gara; aldiz, hamahiru zentzumenekin¹⁴ konplexutasunerantz

¹⁴ Ikuspegi dialektikoa hautatzeak gauza gehiago antzematera behartzen gintuen eta teknika eta tresnetarako ikuspegi berria hartzera. Gauza gehiago antzemateko, gure zentzumenak fintzen eta zorrozten joan behar izan genuen, zentzumen berriak ere sartuz... Ikuskizunaren gizartearentzat bi zentzumen baino ez daude: ikusmena eta entzumena. Biologiarentzat, beste hiru daude: dastamena, ukimena eta usaimena. Horretan guztian perbertsio bat dago, biologikoak banakotu egiten ditu zentzumenak, posible denaren segurtasunari eutsiz. Baina zentzumenak ezin dira banakotu, horregatik beste zortzi agertzen dira: afektibotasunaren zentzumena, prozesuko sentimenduak eta emozioak antzemateko behar duguna; sentikortasuna, prozesua eta prozesuko talde bakoitza zein momentutan dagoen antzemateko; egokieraren zentzumena, gauzak noiz eta nola egin antzematen laguntzen diguna; sena edo zentzu komuna, posible denaren segurtasuna antzemateko erabiltzen duguna; sormena, imajinarioak antzemateko darabilguna; umorearen zentzumena, simulakro baten bidez ezinezkoaren itxaropena

zabaltzen badugu, o eta iaren artean aukera infinituak daudela sentitzen dugu (dimentsio dialektikoa): ezinezkoaren itxaropena posible egiten duten aukera infinituak. Jesus IBAÑEZek planteatzen duen moduan (1997:143), “ordenaren bideak kaosaren bideek ordezkatuak izaten ari dira. Lehenengoek espazio itxi batean giltzaperatzen gaituzte: behin betiko marratuak daude. Kaosaren bideek espazio ireki batera zabaltzen gaituzte: ibilian egiten dira”. Ibiliz egiteko prozesu honetan zabaltzen dira zentzumenak autogestio kolektiborantz: dinamizaziozko prozesuak, bitartekaritza desiragarriak sortzekoak eta egungo egoera gainditzen dutenak (jakintzak, egiteak, oroimena berriz pentsatzea eta gizarte laboreak saretzea).

Autogestio kolektiboa eratzen joateko (jabe-gabetzea, botereak uztea, eta hortaz, egoeraren araberako lidergoak¹⁵ indartzea, lehen urrats gisa) beharrezkoa da, lehenik, erresistentzia, bai aurkaritza/kontzientzia mailan, bai

antzemango genukeena; hurbiltasunaren zentzumenak, eguneroko espazio eta denboren bizipenak antzemateko; urruntasun eta identifikazioaren zentzumenak, prozesuaren atxikipen kritikoa antzemango genukeena.

¹⁵ Ilusionismo sozialarentzat oinarritzkoa da egoeraren araberako lidergoak indartzea (hainbat lider denetarako LIDERRAK bezala ikusteak eragiten duen esklerotizazioaren aurrean), denok gara liderrak eguneroko denbora eta espazio zehatzetan, inoiz guztietan, egunerokotasuna akabatuko genuke. Egoeraren araberako lidergoak aitortzea eta animatzea da dinamizatzaileek onartzea prozesuko zeregin guztiek dutela garrantzia: kulturak, jatekoa prestatzeak, ordezkaritza politikoak, komunikazioak... ez dago “bigarren mailako” zereginik edo garrantzi gabekorik. Ilusionismo sozialak bizitza bakoitzarekiko errespetua esan nahi du, eta krisi egoeretara irekitzea. Prozesu sozialak prozesuan bizitza eta asebetetzea behar duten pertsonak osatzen dituzte. Ilusionismo sozialarekin proposatzen ari garen ideia gobernu-magiatik bereiztu nahi dugu, gure esku-hartze gaitasunetik kanpo gelditzen dena.

elkarreragin sortzailean. Bigarrenik, berrikuntzarantz irekitzen duen haustura behar da; identitateari uko egitea eragin eta identifikazioa sustatzen duten proposamen berriei aukera ematen diena. Hirugarrenik, partaidetzarako bideak zabaltzea behar dira, prozesuan eraiki behar diren aurkaritzak/elkarreraginak/berrikuntzak eratuko dituztenak, egiten diren askotariko ekintzen emaitza izango direnak. Prozesu autogestionatuen eraikuntza sendotzeko elkartu beharreko hiru ekintza lerro bereizezinez hitz egiten ari gara: parte hartu nahi izatea, prozesura batzeko motibazio gisa ulertuta; parte hartu ahal izatea, foroak sortu zeinetan eraiki, erabakiak hartu eta kudeatu; eta parte hartzen jakitea, beharrezkoa den *formakzioa* landuz (pertsonek bakoitzaren jakintzei balioa emanez), ez soilik antolaketa-aldaketak eragitea, harreman-aldaketak baizik, maila sinbolikoan eta bizipenetan.

Ilusionismo sozialaren garapenarekin jarraituz, eta beraz, dimentsio dialektikoan kokatuta, beharrezkoa da hainbat kontzeptu definitzea gure ikerketen inguruko hausnarketak konplexuago egiteko; artikulatu honetan ilusionismo sozialaren hastapenak argituko ditugu.

Ilusionismoaren hastapenak dira egiteko moduak nola landu behar ditugun galdetzen digutenak, ilusionismo sozialeko prozesu batean mugitzen ari ote garen jakiteko (hastapen deritzegu prozesu bati nola aurre egiten hasi baino ez dakigulako, ez baitakigu, ordea, nolako hasiera emango diogun, ezta nola garatuko den ere...).

HASIERAKO NEGOZIAZIOA: Partaidetza prozesuak abiatzeko orduan, gure lehen ekintza negoziazio espazio bat eratzera bideratuko dugu, ze ez dago *a priori* prozesu

hauen hasiera legitimatzen duen baldintzarik inon, izan ere, eskuhartzea oso partehartzailea izan arren, inoiz ezin da inposatua izan, ezta inondik ere inolako ordain motarekin baldintzatu ere. Negoziazio hau ezinbestekoa da laguntza instituzionala ziurtatzeko (ikerketa elkarte batek edo administrazio batek eskatzen duenean), *aitzakia-proiektuari* une bakoitzean forma ematen diotenak inplikaturako pertsonak izatea errespetatua izan dadin. Eskakizuna gizarte-laboreek ("*cultivos sociales*") egingo balute, negoziazioa hasieratik onartu beharreko konpromisoetara bideratuko litzateke.

OBJEKTUTIK SUBJEKTURA: Ikerketan inplikaturako pertsonak ez dira objektu, subjektuak dira, horrexegatik, ikerketa moduetan aldaketa nabarmena egiten da. Aztertua izatetik, ikerketan eta ekintzan parte hartzera pasatzen da.

Gizarte Zientziak XIX. mendean haien jakintzei izaera zientifikoagoa ematen tematu ziren, gainontzeko zientzien antza hartzeko, besteak beste *Natur Zientziak* deiturikoen antza. Horretarako, pertsonak objektu bilakatu zituzten, objektibotasunaren eta kasuen alderaketaren bila. Baina pertsonak eta hauen arteko harremanak objektu bilakatzea da lortzen dena, harremanik gabekoak. Horrek guztiak errore handiak eragin ditu eta eragiten segitzen du egoerak aztertzean, eta horrekin batera, gizarte-eraldaketa prozesuak gertatzea galarazten du.

Jesus IBAÑEZek (1997:47) horren guztiaren ondorioz gertatutako alderik maltzurrena ezin hobeki deskribatzen du: "agintzen dutenek eurentzat gordetzen dute subjektu egoera eta objektu maila esleitzen diete agindupekoei.

Agintzen dutenek kontrolerako eragiketak gauzatzen dituzte agindupekoen gain. Zibernetika hau subjektuek (sistema behatzaileek) objektuak (sistema behatuak) nola kontrolatu ikertzea da. Oro har, objektuak subjektuekiko banaezinak dira: objektua subjektuaren ekintza objektibatzailearen emaitza da. Horretaz gain, sistema sozialetan, (ustezko) objektuak, subjektu ere izan ohi dira, gizartea klase-borrokari arautua egon ez dadin, galdera/erantzuna motako hizkuntz jokoak, elkarrizketa motako beste batzuek ordezkatuak izan beharko dute. Jadanik kontua ez da agintzen dutenek kontrola izan behar dutela agindupekoen gain, baizik eta batzuk eta besteak aginte-harremanetik askatzean datza”.

Ikerketaren objektutik subjektura pasatzeak, ordaintzen dizunarentzat lan egitetik jendearekin lan egitera pasatzea esan nahi dezake, pertsonak direnarengatik eta euren konplexutasunean ezagutzea, alegia.

Subjektua ikerketara itzultzea, bere konplexutasun guztiekin, bere hausturekin, bere hersturekin, ezinbestekoa da jakintza ezezik aldaketak ere ekoiztu nahi dituen ikerketa espazioei buruz badihardugu (baina gainera, nola ekoiztu jakintza, jakintza hori sortzen duten subjektuak ezagutu barik?), eta horretarako beharrezkoa da ez bereiztea pentsatzea/sentitzea/egitea. Ikerketa testuinguruetan inplikaturik dauden subjektuak izan behar dute euren azalpenekin eta gizarte arazo eta beharren gaineko ulermenarekin norabidea signalatzen dutenak eta aldaketak gauzatuko dituztenak.

Inma FUENTESek, “*Child Inclusión*” proiektuko hezitzaileak, babesgabeen egoeran dauden adin txikiekin lanean ari denak honela azaltzen du: “dena

aurrez zehaztuta, aurrez esanda eta aurrez eginda, aurrez prestatuta dagoen mundu batean bizi gara, dena antolatuta eta planifikatuta dago, ez dago subjektuari hitz egiten uzteko tarterrik. Egiteko forma honek duen politena da lan egiten duguneko jendeak parte hartzen duela eta hezkuntza prozesua partaidetzatik, egiteko moduetatik eta egin nahi izatetik eramaten da". Azken batean, ikuskizunetik, zure bizitza eserlektutik begiratzetik, eguneroko bizitzaren protagonista izatera pasatzea da kontua.

BANAKAKO SUBJEKTUTIK SUBJEKTU KOLEKTIBORA:

Banakako subjektutik subjektu kolektibora pasatzeko, kontua ez da banakakoen batuketa bat egitea, ezta kolektiboen batuketa bat egitea ere, ez da elkarrekin lan egitea, ezta egiturazko kolektiboekin ere (immigranteak, emakumeak...), ez da teknikoek iritzia ematen uztea, ezta entzutea ere, ez da taldean esaten den guztia ondo egotea, ezta gaizki ere; kontua da saretuz eta elkarren artean nahastuz lan egitea, gizarte laboreen artean eta banaka jabe-gabetuz kolektiboki eraikitzeke.

Ez gara izaki isolatuak, besteekin harremanetan bizi gara eta etengabe aldatzen ditugu gure egoteko modua eta gure ideiak edo ideia berriak eraikitzen ditugu, etengabe erlazionatzen ari garelako. Horretarako, beharrezkoa da bitartekaritza sozial desiragarrietatik lan egitea, gizarte eskuhartze oro komunikazio-prozesu delako eta komunikazio prozesu oro bitartekaritza sozial multzo bat delako.

Bitartekaritzak egiteko eta erlazionatzeko moduak dira, inposatutakoak, onartutakoak, erosiak edo kolektiboki eraikiak izan daitezkeenak; azken hauek bitartekaritza

desiragarriak dira, hain zuzen ere ekintza-multzo posibleen erakusle pribilegiatuak (hainbat talde elkartzea ekintza bateratuak gauzatzeko), eta kultura herrikoietan, bitartekaritza desiragarri hauek harreman-moduak eratzeko kosmobisioak sortzeko beharrezkoak diren eraikitze eta eraiste formak ahalbidetzen dituzte.

Bestela esanda, bitartekaritza sozial desiratutako hauek eguneroko denbora eta espazioetan topatzea posible egiten dute, hau da, hausnarketa-ekintza-sentimendu prozesuak ulertu eta eragin ahal izan ditzagun, eta hauek, era berean, bitartekaritza sozial desiragarri berriak eraikitzen dituzte, topaketa berrietara edo berriz elkartzera garamatzatenak. Horrek guztiak aukera zabaltzen du bira txikiak egiteko eta hauek, benetako eraldatze sozialak gertatzea ahalbidetzen dute.

Hau ulertzen denean, ulertzen da Palomares del Río-n eguneroko espazio eta denboretan *“María Paloma. La pasión de Palomares”* telenobelarekin lan egin izana; telenobela honen bitartez, masa-kultura kultura herrikoiekin elkartzen da, eta horrela, inposatutakoa uler dezakegu eta onartutakoa errepikatu desiratutakoa eraikitzeko.

KONPLEXUTASUNAREKIN/ETIK LAN EGITEN: JAKINTZA, EKINTZA ETA SENTIMENDUA ELKARREKIN AZALTZEN DIRA HARREMAN DIALEKTIKOAN: Sofista presokratikoek eurek planteatu zuten egoera hau, k.a. VI. mendeko lehen dialektikaren lurrunetatik datorkigu. Ezin da banandu jariora jariatzeko jakintzatik, ezta jariorekin jakintza jariatzeko ekintzatik ere, ezta jariatzeko ekintza jariora sentitzeko ekintzatik ere. Nekazaritzan, landareak maneiatzeak jakintza ematen dio agronomoari, eta

jakintza agronomikoak landareak maneiatzea posible egiten du eta natura/gizarte harremana banaezin sentitzen da. Jakintzak ekintza askatzen du (posible denaren mugak hautsiz) eta ekintzak jakintza askatzen du (ezinezkoa biziz) eta sentimenduak imajinarioen katalizatzaile gisa balio du.

Beraz, Edgar MORÍNek adierazi bezala (2001:46-47), “unitate konplexuak, hala nola gizakia edo gizartea, dimentsioaniztunak dira; hala, gizakia aldi berean biologikoa, psikikoa, soziala, afektiboa eta arrazionala da. Gizarteak dimentsio historikoak, ekonomikoak, soziologikoak, erlijiosoak... ditu. Ezagutza egokiak dimentsio aniztasun hori onartu behar du eta bertan txertatu bere datuak”.

Iraganik gabeko etorkizuna paradisia da, gure erabateko autoukatzea. Iragana, oraina eta etorkizuna banatzea progresio lineala da, konplexutasunaren ukatzea. Etorkizunik gabeko oraina berehalakotasun bihurtu ohi da; hemen eta orain. Orainik gabeko etorkizuna ihesbide hutsa da; inoiz iristen ez den ikuskizuna. Iraganik gabeko oraina gauzak dauden bezala uzteko konformismoa da; posible denaren segurtasuna.

Ezagutza ez dago ekintzatik eta sentitzetik bereiztuta, gauza bera dira, ez daude une bereizgarriak gizarte zientzia estrukturalak planteatzen duten moduan, batera doaz, ikerketan ezin dira aparte pentsatu pentsatzea, ekintza, partaidetza eta sentimenduak, fikziozkoa litzateke, munduan gertatzen ez den zerbait, eta guk egiteko moduak bilatzen ditugu, mundua eraldatzen lagunduko digutenak. Ezagutza, ekintza eta sentimendua bereizten ditugunean, subjektuak ekintzara eutsita uzten

ditugu (“*sujetos sujetos*”) eta ikertzaileak ezagutzara, edo kasurik onenean, psikosiaren moduko nortasunaren desdoblea eragiten dugu (desdoble horren eskizofrenia sentitzen dugunean)... Prozesu bat soilik da eramangarria ezagutza, ekintza eta sentimendua batuz eta etengabe sortuz. Gure ikerketak soilik pentsatzean fokalizatzen baditugu, abanguardian ari gara jartzen enfasi osoa; berdin, soilik sentitzea landuz, asistentzialismoa eragin eta sustatzen ariko gara; eta azkenik, pentsatzeak eta sentitzeak alboratuta gure energia eta gaitasunak ekintzan kontzentratzen baditugu, aktibismo hutsean amaituko dugu. Ikerketetan, ezagutza, ekintza eta sentimendua ekoizten dira taldeekin eta taldeengandik. Komunitatean sortzen den hausnarketa kolektiboko, sentimenduko eta ekintzako etengabeko lana da.

Dinamizatzaileok ez dugu pertsonen taldeak identifikatzeko jokoan sartu behar, ideia okerra da hori. Gizarte labore, sare edo jendearekin/arengandik lan egitea, bakoitzak dei diezaiola nahiago duen moduan, ez da, inolaz ere, *kolektiboentzat lan egitea*, eguneroko espazio eta denboretan lan egitea baizik; espazio eta denbora hauek dira jendea biltzea eragiten dutenak gauzak egiteko, eta ez ezagutza zientifikotik datozen kategoria artifizial eta estrukturalak, boterea desberdinkeriaz banatzea eragiten dutenak, testuinguru hurbiletan gauza berriak sortze/eraisteari enbarazu egiten diotenak.; izan ere, kategoria horiek dira, hain zuzen ere, kolektiboaren lotura apurtzen dutenak. Argi dago gurekin lanean ari diren pertsonak identifikatu egin behar ditugula taldeka, baina bitartekaritza desiragarrien dinamizazioa errazteko, eta ez guri lan egitea interesatzen zaigun populazioa bereizteko aitzakiaz jendea etiketatzeko edota estigmatizatzeke; edo, aitzitik, lan egingo duguneko jendea estigmatizatzeke. Garrantzitsuena da jendearekin

lan egitea euren arteko harremanetatik banandu gabe, eta hori lortzeko pentsatu/sentitu/ekin batu egin behar ditugu, harreman horiek aurkitzeko ekimenez eta ez horrenbeste harreman horiek bilatzeko asmotan.

Argi dago ezin ditugula teknikariak, politikoak, elkarteak... ahaztu, baina hauek ordutegi eta lurraldeetan dute gune nagusia, harreman dinamika desberdinak dira; eguneroko bizitzan, ordea, gune nagusia espazio eta denboretan dago. Talde hauekin lan egitea, banandurik zein elkarrekin, espazio eta denborei eta euren esanahiei begira ebatzen da, eraldatzen doaz zatiketa artifizialik erabili gabe, ezta "indar eginez" topaketa gerta dadin.

ANIZTASUNERA ETA EBATZI BEHARREKO ARAZOETARA EGOKITUKO DIREN TEKNIKAK ETA TRESNAK: Teknikak eta tresnak proiektuetan topatzen goazen egoeren arabera moldatzeko gaitasuna izan behar dugu, eta ez soilik idatzita ditugun proiektuak egiteko, proiektu horiek lantzean topatzen dugun jendearekin lan egiteko ere bai.

Bestela, jendearen gainetik pasatzen ari gara teknika eta tresna itxi eta amaituak erabiltzen ditugunean, giza-talde zehatza kontuan hartu gabe. Beharrezkoa da jendea ez geratzea teknikek eta tresnek harrapatuta eta moldatuta, eta horretarako, teknika eta tresna berriak asmatu, bersortu, eraiki behar ditugu, jendearen nahi eta beharretara egokituko direnak, ezagutza eraldaketarekin batera eman dadin.

Hori gertatzeko, beharrezkoa da lekuetan egotea, hau da, eguneroko espazio eta denboretan egotea. Espazio eta denbora hauetan ez galtzeko, inportantea da *harremanen*

mapeoa erabiltzea. Seguruenik hau izango da tresna-teknika bakarra ilusionismo sozialeko edozein prozesutan noizbait agertuko dena, ahaztu gabe egoera bakoitzera egokitu behar dela eta mapa asko dagoela.

El Palomo esperientzian lur hartuz, ikusiko dugu “*María Paloma. Pasión de Palomares*” telenobela, edo “*El tendadero de los deseos. Debates públicos sobre el futuro de Palomares*”, prozesuan bertan topatutako bi tresna direla. Biek aukera ematen digute gizarte harremanen konplexutasunean parte hartzeko eraldatuz, jendea sartu eta ateratzea posible egiten dutelako, euren denboren arabera eta euren eguneroko bizitzako espazioetan egonda. Horretarako, funtsezkoa izan da tresna horiek mapeoarekin konbinatzea, mapeoak telenobelako atalak noiz eta non proiektatu azaleratzen baitigu eta non eta noiz eskegi auzokideen proposamenak kolektiboki identifikatutako beharren gainean. Horrek guztiak, etengabeko erabaki-hartze prozesu bat eragiten du, informazioaren sistematizazio/eraikitze/eraistearen bitartez, eta posible egiten du kolektiboki etengabe berregitea, behin eta berriz.

KULTURA HERRIKOIAK BALIABIDE SORTZAILE GISA:
Azpimarratu nahi da ezagutza eta kultura, Zientziatik ezezik, jakintza herrikoietatik ere ekoizten dela. Gainera, ulertzen da pentsamendua ez dela estatikoa, trukean, topaketan eta ibilian sortzen baita.

Zientzia menderatzailea, ordenaren zientzia, elementuak lerrokatzeko soilik barneratzen da kaosean... Zientzia soziala izateko, pentsamendu, sentimendu eta ekintzaren bestelako logikek inpregnatu behar dute, subjektu kolektiboekin elkarlotuz, edo gizarte laboreetan, eta

hortaz, kultura herrikoien espazio eta denboren logika/alogiketan murgilduz.

“Arazoa ez zaigu planteatzen soilik krisiagatik edo gerragatik. Eguneroko bizitzaren problema bat da: teknoburokraziaren garapenak adituen erresuma eremu guztietan ezartzen du, lehenago eztabaida eta erabaki politikoetan oinarritzen zirenak, eta herritarren lekua hartzen du aitatasun, amatasun, jaiotza edo heriotzaren manipulazio biologikoetara zabalik dauden eremuetan. Arazo hauek ez dira XX. mendeko kontzientzia politikoan sartu, ezta debate demokratikoan ere, oso kasu gutxitan salbu.

Funtsean, teknozientzia esoteriko-hiperespezializatuaren eta herritarren artean handitzen ari den hobiak (ezagutza zatikatua, testuingururik gabea eta globala duten) ezagutzadunen eta ezjakinen (herritarren) arteko dualtasuna sortzen du. Horrela, gizarte haustura berri bat sortzen da “klase berri” baten eta herritarren artean. Prozesu bera gertatzen da komunikazio teknologia berrien sarbidean herrialde aberats eta herrialde pobreen artean.

Herritarrak kontu politikoetatik baztertu egiten dira, eta kontu horiek gero eta gehiago “adituen” esku geratzen ari dira; “klase berriaren” dominazioak eragotzi egiten du ezagutzaren demokratizazioa, azken batean”. Edgar MORÍN (2001:136-137).

Ilusionismo sozialetik, esan dugun bezala, asmoa da jendearekin eta jendearengandik lan egitea, eta horretarako, garrantzitsua da berezko eraikuntza eta adierazpen kulturaletan murgiltzea, kultura herrikoiek suposatzen duten baliabide sortzailetik konplexutzeko.

Duela urte asko gaude tematuta kultura herrikoiak lantzearekin gure lana egiteko modu gisa, eta horretarako, hauxe hartu behar dugu kontuan:

- Kultura herrikoiak, eguneroko espazio eta denboretan pentsatu/sentitu/ekin gabe azaldu ezin diren bizi-erak dira, errepikapen sortzailearen bidez sortzen direnak; konplexutasunaren kontzeptuaren adierazpen argiak dira.
- Kultura herrikoiak dira aniztasuna eta horizontaltasuna eraldatzeko gaitasuna dutenak, egokitzeko, erresistentziarako eta eguneroko bizitzaz gozatzeko gaitasunari lotuta; eraldatze prozesu komunitarioen sortzaile/indartzaile dira (gutasuna pentsatzeko/sentitzeko/egiteko prozesu eraldatzaileak).
- Kultura herrikoiek jakintza kolektiboak berreskuratzen eta berpizten dituzte, bat-bateko trukeekin, gizarte laboreekin, elkarren arteko laguntzekin, harreman afektiboekin, desikasteekin eta ikaste berrietarako irekitzeekin batera... jakintza-iturri agorrekinak dira.

Gutasunaren aldarrikapen hau, kultura herrikoietatik indartzen dena, kontsumo gizarteak ezabatu nahi izan du sinplifikazioaren, manipulazioaren eta indibidualizazioaren bitartez, banakoak masa-kulturarekin identifika daitezen bilatuz, kolektiboki eraikitako gutasunaren ordez, *ni sozializatu* bat eratuz (familia katalizatzaile gisa erabilia), hau da, banako bat berdingabea sentitzen dena eta, aldi berean, (kontsumoaren bitartez) sozialki *baztertu gabeen* artean identifikatzen dena. Gutasun hori ezabatzeagatik utzi du

teknokraziak, hain zuzen ere, diskurtso ideologikoa eta horregatik hartu du banakoaren askatasuna hitz ematen duen ideal zientifiko-teknikoaren aldarrikapena; masa-kulturak babestuta, eguneroko bizitza modu desestrukturatu eta bertikalean gaindiazten du. Horren aurrean, egunerokoa gizarte labore propioen bitartez eta horizontala bereganatzeko dituen moduen bitartez transzenditzen denean, kultura herrikoiekin topatzen gara eta beren modu anibalente eta dezentratuez egindako eraikuntza alternatiboekin. Gure ekintza ezin da zentratu boterea hartzean (ez abanguardia batek sustatzen duen matxinadaz, edo abanguardia batek antolatzen duen alderdi batekin, hauteskundeak irabazteko), ez ahalbuntzean (azken batean, boterea hartzeko modu bat da, normalean logika menderatzaileen testuinguruan); boterearen autogestio kolektiboan baizik, boterearen disoluzioaren ortzemuga utopikoan (jabe-gabetzean). Autogestioak begirada aldatzen digu boterea hartzetik egin ahal izatera, jakintzak, trebetasunak eta nahiak inplikatzeko dituen. Gainera, beti egiten zaio erreferentzia dimentsio kolektiboari, gizarte jarioari, besteren eta besterekin egiteari.

Ezin dugu kultura herrikoiei buruz hitz egin singularrean, ez baitago kultura herrikoia bat, askotariko kultura herrikoia asko baizik. Jesús MARTÍN-BARBEROk ondo dioen moduan (2007:86), “herrikoia ez da homogenea eta gaur egun sortzen eta azaleratzen ari den prozesu anbiguo eta gatazkatsuan aztertu behar da”. Hala, esan dezakeguna da propietate bereiztaile batzuk daudela, berezitasun batzuk, bitxikeria batzuk, ezaugarri batzuk, azken batean: puntu batzuk, garatzen ari garenak eta kultura herrikoietara hurbiltzen gaituztenak gauzak ulertu, sentitu eta egiteko modu gisa.

Edukiak elkartzeko aitzakia baino ez dira, harreman-erak dira kultura herrikoiak definitzen dituztenak. Inportanteena da harreman-moduak aldatzea, ez pertsonak. Hori da gauzak kultura herrikoietatik aldatzea posible egiten duten arrazoietakoa bat. Harreman-moduak aldatuz, eraldatzen ari gara, edukiak aldatuz, ordea, kamuflatzen ari gara. Askotan, kultura herrikoiak pasibo eta apatikotzat jotzen dira, erakundearen deialdi formatuaren aurrean bertaratzen ez direlako (erakunde politikoak, sindikalak, sozialak...). Baina kultura herrikoiak beste harreman-modu batzuen bitartez mugitzen dira eta hortaz, parte hartzeko moduak ere desberdinak dira.

“Gizateriaren abentura ezezaguna errepikapena da kosmosaren abentura ezezagunaren esferaren barruan, guretzat pentsaezina zen ustekabe batetik jaiotzen zena, eta sortze eta deusezte etengabe jarraitzen duena” Edgar MORÍN (2001:100). Ematen du egunerokoa beti berdina dela, errutina ematen du, baina benetan ez da horrela, ez da beti gauza berberei buruz hitz egiten, aurreko egunetan hitz egindakoa sustatzen da, janaria ere aldatzen doa... gauza berriak sorrarazten dizkizun errepikapena da. Sortutakoaren gainean berritzen da etengabe. Ikuskizunaren gizartea, ordea, zure eguneroko bizitza bere horretan eusteko egina dago. Erlazionatzen ez zarenez, soilik ikusi eta entzun, ezin duzu erreakzionatu. Honen sinplifikazioa da eguneroko bizitza masa kulturarekin nahastea askotan, benetan merkatutik eta estatu hegemonikotik nahi dena eguneroko bizitzaren kolonizazioa denean, eta kultura herrikoiak masa kulturak ordezkatuak izatea. Errealitatea da eraldaketaren teoriko askok eguneroko bizitzak suposatzen duen esklabutza eta alienazioa haustea proposatzen dutela; eta horrela, antagonistatzat jotzen dituzten horien helburuari

laguntzen diote, kultura herrikoiek eragiten duten aberastasuna eta erresistentzia aintzat hartu beharrean.

NORABIDE ANITZEKO KOMUNIKAZIO EREDUAK: Masa-komunikazioaren espazioan —komunikazioaren ez-lekuetan— ez da gizabanakoa komunikatzen dena, komunikazioak berenganatzen duen hori baizik; horrela, ordena berri bat jaio da, zeinetan *partehartze kontrolatua* baino posible ez den, errealitate sozialaren eraikuntzan, *mass-media* sarearen bitartez, eta nahitaez “errealitatearen ahultzea”¹⁶ bizi dugu. Komunikabideek dituzten azpiegitura baldintzatzaileengatik gertatzen da hau. Komunikazioaren teknologia berrien bitartez, espazio eta denborarekiko pertzepzioak eraldatuz, elkarrekin egoteko moduak aldatzen saiatzen ari dira. Jesús MARTÍN-BARBEROK planteatzen duen bezala, “mapa mentalen lurraldegabetzea” eragiten ari da, gertukoaren eta urrutikoaren ikuskera nahastuz. Etxeko esperientzia eremu birtual bilakatzen du eta, Paul VIRILOK planteatzen duen bezala, “dena iristen da inora abiatzeko beharrik gabe”, telebistak eta internetek harremanetan duten nonahikotasuna dela eta. Denbora betiko orainaldia da, iraganeko esperientziak ahulduz eta etorkizuneko eraldaketak eragotziz.

¹⁶ Zentzu honetan, Jesús MARTÍN-BARBEROK aipatzen duen bezala, ematen du komunikabideetatik halako “etengabeko orinaldi” sententzia sortzen dela, esperientziaren eta identitatearen lurraldegabetzea, non denborak nahasten diren, iragana ia ezeztatuta geratzen den eta ez dagoen lekurik etorkizuna berplanteatzeko. Informazioaren etengabeko jarioekin fabrikatutako errealitatea gero eta berehalakoagoa da, eta azkenean jakin-mina ikus-min huts bihurtzen du. Masa-komunikabideak, zalantzarik gabe, sozializazio-eremu berri bihurtu dira, identifikazioak, harremanetarako moduak eta bizimodu eta portaera estiloak eta jarraipideak transmititzen dituztenak...

Askok homogeneousazio eta inposizio/onespen prozesuak direla dioten hauen aurrez aurre, badira komunikaziorako beste espazio batzuk, eta hortaz, errealitatea definitzeko eta behar sozialak asetzeko beste komunikazio espazio batzuk daude, masifikazio-efektu horri aurre egiteko ahalmena dutenak, modu kritiko eta eraikitzailean elkarreragiteko aukera izateko. Bitartekaritza instituzionalak gatazkan sartu dira horrela, herritar guztiek munduarekiko ikuspuntu bera ondoriozta dezaten lortzen saiatu direnean: inposaturiko edo ontzat emandako bitartekaritzen eta bitartekaritza desiragarrien arteko tentsioa sortzen da. Instituzioek eta Merkatuak bizitzaren mundua kolonizatzeko duten asmo horrekin batera, askotariko taldeak dituen gizarte konplexu bat dugu, zeinetan etengabe bernegoziatzen/berdefinitzen diren bere zentzuaren inguruko egoerak eta hausnarketak, saretzen eta elkarreragiten dabiltzan gizarte labore anitzetatik. Hala, ez bairik gabe, gatazkak sortuko dira, gizartearen desoreka sakonaren ondorioz.

Gizarte labore hauetan, norabide anitzeko komunikazio prozesuak dira nagusi; elkarreragin eta eraldaketarako espazioak dira, errealitate soziala eraikitzeko ezinbestekoak. U. HANNERZek dio banakoaren ikuspegitik partaidetza handiagoa eragiten dutela errealitate sozialaren esanahien trukean, honek partekaturiko kontzientzia modu bat sortzen du, eta bertatik partehartze ikuspuntu ezberdinetatik kontzientzia kolektiboa sortzera hel daiteke, elkarren artean informazioa emanez errealitateaz duten pertzepzioez. Partehartze hau, “errealitatearen eraikitze sozialeko” prozesuetatik abiatzen da (BERGER eta LUCKMANN), baina baita dekonstrukzioan ere, esanahien sistema indibidualak zalantzan jartzea posible egiten baitute. Prozesu hau *jabe-gabetze* prozesu bat dela esan

daiteke, errealitate sozialaren askotariko zehaztapena ahalbidetzen duelako; talde sozialak euren “errealitatearen bertsioa” izateko ahalmena ematen die eta honela, instituzionalizaturiko errealitatearen parez pare kokatzeko —eta euren burua kokatzeko— ahalmena garatzen dute.

Komunikazioa era honetan ulertuta, pertsonen oinarrizko ekintzetara loturik egongo litzateke, esanahien, ekintzen eta sentipenen eraikitze horretan parte hartzea bateratzen baita; hau “dentsitate sozial kritikoa” duen herritartasunaren eraikuntzarako ezinbesteko eremua izango da, eurengan eragina duten erabakietan parte hartzeko aukera emango diena, gizartea Estatuak edo Merkatuak xurgatzea galarazita. Pertsonen hazkuntza ahalbidetzen duen ekosistema bat existitzea suposatzen du honek, eta pertsonak ekosistemaren eraikuntzan eragina izatea. Paradigma hauetatik abiatuta garapen sozialari buruz hitz egiteak norbanakoen arteko harremanak kooperazio parametroak kontuan hartuta sustatzea dakar; ekintzarako gaitasunean euren ingurunearen ezagutzetatik abiatuta eragitea litzateke; askatasuna handitzea hainbat gizarte laboretara elkarlotuta egoteak suposatzen duen autonomiatik abiatuta, eta hauek informazioa eta komunikazio prozesuak sortzen dituzte (hala nola, jakintzak, egiteak eta sentitzeak trukitzea eta eraikitzea), ekintza soziala gaitu eta posible egiten dutelarik sakonki desorekatua den gizartean, baina paradoxikoki, ezinezkoa dena bizitzeko modu eta bizipen berrien abiapuntutzat balio duena.

Gizatiarra denaren zentzuari buruzko hausnarketak gizartearen, komunitatearen, hiriaren, auzoaren, familiarren... bizipenekin harreman estua duela azpimarratzen dugu; espazio bakoitzean ematen den partehartzetik, bere konfigurazioaren bizipenetik,

topaketa kulturalak/bizipenezkoak birsortzen dituen komunikazio eredu batean oinarrituta; hau da, talde desberdinen jakintzak/sentitzeak/egiteak berreraiki eta esplizitu egiten diren sozializazio prozesuetatik abiatuta.

Lau komunikazio motaren inguruan aritu gitezke: ofiziala eta masiboa (komunikazio menderatzailea eratzten dutenak), herrikoia eta alternatiboa (bi erantzun/erresistentzia modu desberdin eratzten dutenak). Azken hauetan jarriko dugu arreta¹⁷.

Komunikazio herrikoia eta komunikazio alternatiboak bi ikuspegi desberdinetatik partekatzen dute kezka eta ezinegon bera: errealitatearen eraldaketa. Arriskutsua da, ordea, komunikazio herrikoia eta komunikazio alternatiboa zer diren zehaztasunez mugatzea; berez, gai hauetan aritzen diren ikerlari eta teorikoek askotan nahasten dituzte, ez baitago muga argirik. Hala ere, komunikazio modu hauek ezaugarritzen dituzten funtzio, premisa eta lan egiteko moduak ezagutzeko ezinbestekotzat jotzen dugu, izan ere, euren arteko desberdintasunak ez ulertzeak eta komunikazio modu bakoitzaren abiapuntua eta aritze zehatzean existitzen diren mugak zeintzuk diren ez jakiteak jendearekin egiten den lana gelditzea suposa dezake, eta baita benetako komunikazio modu transformatzaileak lantzeko ezintasuna ere.

Komunikazio modu hauei buruz hausnartzean topatzen ditugun zenbait desberdintasun aditzera eman nahi ditugu, gako direla uste baitugu:

¹⁷ Komunikatzeko modu hauetan guztietan sakontzeko, kontsultatu Beatriz LUQUE eta Javier ENCINA (2007) eta Javier ENCINA eta beste (koord.) (2009).

- Komunikazio herrikoia, posible denarenganako konfiantzaren eta ezinezkoaren itxaropenaren arteko tentsio dinamikoan kokatzen da: ilusionismo soziala praktikan jartzean datza, itxuraz ezinezkoa dena posible egiteko. Alternatiboak, ostera, eredu desberdin bat bilatzen du, beste eredu bat, egungo moduak ukatuz/baztertuz.

- Komunikazio herrikoia masa-komunikabideekin erlazionatzeko moduak izaten ditu, eguneroko denbora eta espazioetarik abiatuta; komunikazio alternatiboak, ordea, komunikazio prozesuen logikak transformatzea suposatzen du. Hortaz, lehenengoa komunikazio logika nagusien errebertsioan oinarritzen da, eta bigarrena, aldiz, hauen subertsioan.

- Komunikazio herrikoia eta alternatiboaren artean dagoen beste desberdintasun funtsezko bat da komunikazio herrikoian lan egiten denean urruntzea eta identifikazioa¹⁸ bilatzen direla aldi berean, eta alternatiboan, ordea, banandu egiten dira biak.

- Lan egiteko bi modu hauek, halaber, bi muga garrantzitsu topatzen dituzte, elkarren arteko ezinulertzea eragiten dutenak: alternatiboak masa-kulturaren eta kultura herrikoiaren arteko nahasmenduan aurkitzen du muga. Herrikoia, bere aldetik, adierazpide ofiziala eta alternatiboa antzekotzat jotzen dituenek, ez da kapaz bataren eta bestearen mezuak bereizteko.

Alternatiboaren eta herrikoia arteko desberdintasun nagusiak zeintzuk diren ulertzeak eta bakoitzaren mugak ezagutzeak posible egingo du komunikaziotik abiatzen

¹⁸ Proposatzen denarengandiko urruntzea, izpiritu kritikoa sustatuz, eta proposatzen denarenganako identifikazioa, parte hartzeko motibazioa sustatuz.

den bestelako eraldaketa mota bat posible egiteko tresnak eta lan egiteko moduak garatzea. Horretarako, bereziki azpimarratzen dugu bi komunikazio era hauen artean zubiak zabaltzearen garrantzia.

Honela ulertzen den komunikazioa, komunikazio prozesu eta sorkuntzaren ulertze klasikoarekin alderatuz, eraldaketa prozesuen gune bilakatu behar da, eta ez elementu gehigarri edo aldaketaren zerbitzuan dagoen baliabide huts gisa soilik, ekintza komunikatiboan bertan aktibatzen diren prozesu eta elkarrizketa hezitzaileen alde eginez. Hau gertatzeko, komunikazio modu alternatiboa eta herrikoia adiskidetu behar dira. Horrek esan nahi du ezin dela kosta ahala kosta masiboa dena alde batera utzi, baizik eta eguneroko denbora eta espazioetatik abiatuta, bitartekari sozial bezala duen ahalmena aprobetxatu. Hartara, komunikatzeko erak zaindu egin behar dira, kultura masiboan erabiltzen diren estetikak eta narratibak baliatu behar dira gozamina eta komunikazioa gerta dadin, mezuaren edukia ezinbesteko den elementu bakartzat jotzeko obsesioen aurrean.

Eraikitze prozesu kolektiboetan, ez da inolako komunikazioa inposatu behar, desiratu izan behar du, eta desira honek eraman behar du berarekin komunikazioa eskuratzea. Hain zuzen ere, Jesús MARTÍN-BARBEROK planteatzen du talde eta klase zapalduenек edo azpiratuенек/menderatuенек hartu behar dutela hitza, komunikazio zapaltzaile edo menderatzailearen forma eraldatzeko helburuz: hau da, -VIDAL BENEYTOren hitzetan ondo azaltzen duen bezala- *alternatiboak nahitaez herrikoia sor dezala, menderatze-makina bihur ez dadin*. Hausnarketa hau informazioa ekoizteko egitura menderatzaileei egiten zaien kritikatik baino ezin da etorri, egitura hauek komunikatzeko moduak merkantzia

huts gisa zehazten baitituzte. Eguneroko bizitza berriz asmatzeko eta bere balioa nabarmentzeko abiapuntua esperientzien berreskuratzea, bizipenen autogestioa eta oroimenaren berreraikitzea da, eta horretarako, oso garrantzitsua da komunikazioa eta ahozko adierazpidea. Abiagunea eta egunerokotasunaren kolonizazioa geldiarazteko lehen balazta. Hortik aurrera, abilezia kolektiboak jarri behar dira martxan, egokieraren eta sentikortasunaren zentzumenei lotuta; momentu oro jakin dezagun norantz *ixten dugun irekitzeko*, ze *ixteko ixten badugu*, fosilizazioa sustatuko dugu, eta *irekitzeko irekitzen badugu*, soilik beherantz ireki daitekeela kontuan hartu gabe, masa-kulturaren baloreak sustatuko ditugu.

Ahokotasuna ez da idazten ez dakiten pertsonen adierazpidea, boterearekiko duten posizio asimetrikoa dela eta, euren istorioak ahoz baino adierazi ezin dituztenen pertsonen adierazpidea da; jabetzarik gabeko pertsonen modua da, dirurik ez edukitzeagatik, botere politikoa ez erabiltzeagatik, gailentzen den genero, kultura edo adineko kide ez izateagatik...

Ahokotasuna, ezagutza, baliabideak eta ahozko narrazioak transmititzeko erak lapurtu ezin izan dizkioten gehiengo sozialaren adierazpide nagusia da; euskarri teknologiko dezentratua duenez, erresistentzia, autogestionatua izatea eta jendeak bereganatzea errazten du. Emmanuel LIZCANOren hitzetan (1984:10), "idazketak, zientziari emandako bultzadarengatik ondo irabazitako ospea baldin badu ere, hau idazten duenak idazketa sostengu gisa erabiltzeaz gain plazer fisikoa ere lortu arren, ez dio inori ahozko kulturen lurra basamortu bihurtzeko eskumenik ematen. Ez dute idazketarik izango, baina guk faltan ditugun beste lorpen batzuk dituzte, etanik dakidala- ez dute inoiz kulturarik eza edo

superstizioarengatik geure liburuak sutara eramango dituen *ahozkotasunaren* aldeko kanpainarik hasi. Letra eta gobernuko jende hori: ahozko hitzen kulturak ez dira soilik urrutiko kontinenteetan bizi. Euren hitza daukate ijito eta euskaldun, galego eta andaluziar, geure haurrak eta geure barrenetan ditugun amildegi inkontzientek, hain ikasiak garenok ere. Juan de Mairenak ondo zekien bezala, oraindik oso litekeena da, geure artean esan dezagun, ezagutza unibertsitarioak folkloareekin, herriaren jakintzarekin ezin lehiatzea. Utz itzazue, utz gaitzazue, utz dezagun geure burua bakean!”

Edo Hans Magnus ENZENSBERGERek (1986:7) planteatzen digun bezala, “ inoiz ez da izan kontua idatzizko kulturaren bidea zelaitzea, eta are gutxiago gizakiak adingabetasunetik askatzea. Mintzagai zen progresoa oso bestelako kontua zen. Alfabetatugabeak gizakiaren klaseetatik baxuenera otzantzea zen, fantasia eta tema indarrez kentzea, ondoren, euren giharren indarra eta euren eskuen trebezia esplotatzeaz gain, euren burua ere ustiatzeko”. Letra lege da, abstrakzioa, burokrazia eta plangintza: *bizitza zehazgabe posiblea arau finko eta intenporalera makurtzea*, Agustín GARCÍA CALVOK esango lukeen modura. “Izpiritua, hitzaren kultura guztietarako hatsa, ahozkotasuna, airea iraitzea sortzen duen ahoskera bihurtuta. Bere ahozko moduan, hizkuntza organoa da eta hitza, ‘fisiologikoa eta psikologikoa (eta logikoa) elkartzen ditu, erritmoari eta ixiluneari ematen dio nagusitasuna, ahozkoari arnasa gailentzen zaio, adierazpideari ekintza, ideiari emozioa, DUMÉRYk adierazi bezala. Bere baitan, ixiltasuna ere adierazgarria da” (Emmanuel LIZCANO, 1984:10).

ETIKA: Etikarik gabe, botere eta kontrol egituren justifikazio bilakatzen da prozesua. Ilusionismo sozialean

ez da nahikoa printzipio hauek gogoan izatearekin, oinarri praxeologikoa ere ezin da begien bistatik galdu: jendea bere bizitzaren protagonista izan dadila; prozesuan honako hausnarketa ematen ez bada, egiteko moduak dialektikoak izateari uzten diote.

“Ulermenaren etika bizitzeko artea da, lehenik modu eskuzabalean ulertzea eskatzen diguna. Ahalegin handia eskatzen du, ezin baita elkarrekikotasunik espero: fanatiko batek hiltzeko mehatxua egin dion horrek ulertzen du zergatik hil nahi duen fanatikoak, jakinda hark ez duela bera inoiz ulertuko. Gu ulertzeko gai ez den fanatikoak ulertzea da gizakiaren fanatismoaren adierazpenak, erak eta sustraiak ulertzea da. Zergatik eta nola gorrotatzen den edo mespretxatzen den ulertzea da. Ulermenaren etikak eskatzen digu ulertezina ulertzea.

Ulermenaren etikak argumentatzea eta ezeztatzea eskatzen du, eskumikatu eta anatematizatu orde. Traidorearen nozioan entzerratzea ulergarritasun zabalagoaren emaitza dena, erroreak, deriba, ideologiak edo desbideratzeak aitor ditzagun galarazten du.

Ulermenak ez du desenkusutzen ez salatzen: eskatzen digu behin betikoz eta ezinbestez kondenatzeari uzteko, norberak ere esperimintatu baititu erroreak eta ahuleziak. Kondenatu aurretik ulertzen baldin badakigu, giza-harremanak humanizatzeke bidean egongo gara.

Ulermenari “ondo pentsatzeak” mesede egiten dio: Pentsatzeko modu hori da testua eta testuingurua modu bateratuan atzemateko aukera ematen duena, izakia eta bere ingurunea, lokala eta globala, dimentsioaniztasuna, laburbilduz, gizakiaren portaeraren baldintzak. Halaber, baldintza objektiboak eta subjektiboak ulertzen laguntzen

digu (*self-deception*, fedeak eragindako besterentzea, eldarnioak eta histeriak).

Introspekzioa: Autoazterketa pertsonal kritikoa egin behar da modu iraunkorren, geure ahuleziak edo hutsegiteak ulertzeak besteak ulertzeko bidean jarriko baikaitu. Izaki ahulak, hauskorak eta gabeziadunak garela aurkitzen badugu, orduan gai izango gara aurkitzeko denok behar dugula elkar ulertzea.

Introspekzio kritikoak geure buruarekiko erlatiboki dezentratzen laguntzen digu eta ondorioz, geure egozentrismoaz ohartzen eta epaitzen. Gauza guztien epaile¹⁹ izateari uzten laguntzen digu.

Tolerantzia barneratzea: benetako tolerantzia ez da ideien aurrean axolagabekeria edo eszeptizismo orokorra; benetan uste sendo bat da, fede bat, hautu etiko bat eta aldi berean, gureen aurkako ideia, uste oso eta hautuen onarpena. Tolerantziak sufrimendua eragiten du, ideia negatiboen adierazpenari edo, gure iritziz, kaltegarriak edo zorigaitzekoak direnei eutsi behar diegulako, eta sufrimendu hori onartzeko borondatea.

Lau tolerantzia-gradu daude. Lehenak, VOLTAIREk adierazia, doilortzat hartzen ditugun iritzia adierazteko eskubidea errespetatzera behartzen gaitu; kontua ez da doilorkeria errespetatzea, doilorkeriaren geure kontzepzio propioa inposa dadin saihestea baizik. Bigarren gradua hautu demokratikotik banaezina da: demokrazia ezaugarritzen duena iritzi desberdinez eta antagonikoez

¹⁹ *C'est un con* (ergel hutsa da), *C'est un salaud* (kabroi hutsa da), bi esapide dira bai ulertezintasuna eta bai subiranotasun intelektuala eta morala adierazten dutenak.

elikatzea da; hala, printzipio demokratikoak agintzen du norberak bere ideien antagonikoak direnak errespetatu ditzan. Hirugarren gradua Niels BOHRen kontzeptua da, zeinentzat ideia sakon baten aurkakoa beste ideia antagoniko bat da egia bat duena bere baitan, eta egia hori da errespetatu behar dena. Laugarren gradua mito, ideologia, ideia edo jainkoek eragindako giza-besterentzearen kontzientziatik dator, edo norbanakoek nahi luketen baino leku urrunagora eta desberdinera eramaten dituen perturbazioen kontzientziatik. Tolerantziak, noski, ideietarako balio du, ez irainetarako, erasoetarako edo ekintza hiltzaileetarako (...). Etika benetan gizatiarra, hau da, antropo-etika, hiru terminoren buklearen etika gisa ulertu behar da: norbanakoa-gizartea-espezia, eta bertatik sortzen dira gure kontzientzia eta gure berezko giza-izpiritua. Hori da etorkizuneko etika irakasteko oinarria". E. MORÍN (2001:120-124, 130).

Ikertzailearen etika hasieraren aurretik hasten da, hasierako negoziazioan, ezin da ezer negoziatu ez dagoena oinarrituta erabaki herrikoiak onartu behar direlako zutabearen, eta une zehatz batean onartzen ez badira, eta horrela lanean ari gareneko jendea desengainatzen badugu, erabaki etiko bakarra hartu behar da: alde egitea.

Lanean ari gareneko pertsonak edo taldeak irizpide teknikoen arabera eraldatzetik urrun, eta gure lanpostuari heltzeko desberdintasun estrukturalako egoerak betierekotzen saiatzetik urrun, dinamizatzaileek ere prozesuaren parte izan behar dute, nahiz eta autogestio komunitarioa eragiten denez, denborak aurrera egin ahala desagertzeko joera izan behar duten. Hauxe da dinamizatzailearen kontraesana eta horregatik da horren garrantzitsua etika.

EZIN DA HELBURUEZ A *PRIORI* HITZ EGIN: Ikerketaren amaiera ez da bertan bizi diren momentu eta espazioak baino garrantzitsuagoa. Zertarako, nola, norekin... prozesuan zehar berdefinitzen dira. Hasieran erabakitakoa ere erlatiboa da, inportanteena da nola gauden une bakoitzean.

Integrista izango ez den egiteko modu bati buruz dihardugu, zurruna izango ez dena, prozesuaren beraren eraginera irekita egongo dena, esperientzien garapenarekin hazten eta aberasten joango dena, egiteko modu mestizoa... errealitatea aurrez zehaztuko ez duena, jendearen esku egongo den tresna bat baizik, eguneroko bizitzako moduak handituta errepika daitezten.

Horregatik, ezin da hitz egin helburuez *a priori*, ikertzaileak (berak bakarrik edo hautatutakoen talde batean), jendearekin lan egin aurretik, diseinatzen badu zer lortu nahi duen ikerketarekin, orduan jendea aitzakia huts bihurtzen da helburu aprioristikoak lortzeko, eta, magia balitz bezala, jendea objektu bihurtuko dugu eta hasierako laukira itzuliko gara. Jesús IBÁÑEZek planteatu bezala (1989:74): “ezin da ikertzen irakatsi, ezin zaio esan *a priori* ikertzaile bati nola diseinatu behar diren ikerketak”.

Argentinako COLECTIVO SITUACIONESen hitzetan (2004:102): “Tailer eta argitalpenen inguruan hitz egiten dugunean kolektiboko praktika gisa, berehala gogorarazi behar izaten dugu ez direla tailer horiek existitzen, bileren konglomeratu heterogeneo bat baizik, kaosetik bat-batean sortzen diren koherentzia-hariak baino ez dira, jakin gabe zein garapen eman ahal izango diegun. Halako zerbait gertatzen zaigu argitalpenekin: bat-batean sortzen zaizkigun beharrak dira beste esperientzia batzuk

ekartzeko, beraiekin batera luzatzeko, baina ez dute adierazten beharrezko fase bat sistema zabalago batean.

Hartara, soilik dakigu nola hasi. Eta hori, oso erlatiboki. Berez, prestatzen ditugun prozedura (gailu) guztiak nabarmenki lekuz kanpo egoten dira egoera zehatzaren ehunduraren aurrean. Hala, topaketaren baldintzak eurak elkarrekin ko-ikertzeko borondateak bultzatuta baleude bezala datoz, ez dio axola zer (gaia aldatzen joan daiteke), bidaia horretan aldaketa irmoak esperimentatzea da garrantzitsuena, hau da, bertatik irtetea praktikak indartzeko ahalmen berriekin”.

Ezin da berriaren etorrera aurrez ikusi, bestela ez litzateke berria izango. Ezin da aurrez jakin sorkuntza baten etorrera, orduan ez bailegoke sorkuntzarik”. E. MORÍN (2001:97-98).

Bibliografia

COLECTIVO SITUACIONES Y UNIVERSIDAD TRASHUMANTE (2004) Universidad trashumante (territorios, redes, lenguajes). Ed. Tinta Limón. Buenos Aires.

Javier ENCINA eta beste (2009) Comunicación popular o comunicación alternativa. ¿Un falso dilema? Ed. Atrapasueños. Sevilla.

H. M. ENZENSBERGER (2015) *Elogio del analfabeto*. En Javier ENCINA, Ainhoa EZEIZA, Desempoderamiento, juego y oralidad. Ed. Bitiji-Toreador de Pájaros/Colectivo de Ilusionistas Sociales. Sevilla/Donostia.

Mayra Paula ESPINA PRIETO (2007) *Apuntes sobre Complejidad, transdisciplina y metodología de la investigación*. Presentado en el 3er Taller Bional Cubano Transdisciplinar en el Pensamiento y las Ciencias de la Complejidad, organizado por la Cátedra de Complejidad del Instituto de Filosofía de La Habana.

Ignacio FERNÁNDEZ DE CASTRO (2008) *El laberinto de las metodologías*. Cuchará' y paso atrás' nº 18. Sevilla.

Jesús IBÁÑEZ (1989) *Cómo se realiza una investigación mediante grupos de discusión*. En M. GARCÍA FERRANDO, J. IBÁÑEZ y F. ALVIRA (comp.) *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Alianza Editorial. Madrid.

(1997) *A contracorriente*. Ed. Fundamentos. Madrid

Emmanuel LIZCANO (1984) *Cuando no saber escribir es no saber escribir*. Liberación; jueves, 8 de noviembre.

Beatriz LUQUE eta Javier ENCINA (2007) *De las mediaciones consentidas a las mediaciones deseadas. Lo masivo y lo colectivo en los procesos de comunicación*. Cuchará' y paso atrás' nº 15 Sevilla.

Jesús MARTÍN-BARBERO (2007) *Desafíos de lo popular a la razón dualista*. Cuchará' y paso atrás' nº 17. Sevilla.

Edgar MORÍN (2001) *Los siete saberes necesarios para la educación del futuro*. Ed. Paidós. Barcelona.

Raúl ZIBECHI (2007) *Dispersar el poder*. Virus editorial. Barcelona.

Kultura herrikoiak

UNILCO-espacio nómada
Sevilla.

Itzulpena: Irati Guridi, Aitor Errazkin

Ikuskizuneko gizarte honek zentzumenak zeinu bihurtu ditu, eduki egin eta beste ezeren gainetik jarri ditu. Antonio MANDLYk dioen eran, gizarte honek bizitzaren sakontasuna azalezko objektu bihurtzen du; desio/sedukzioa, posesio; komunitatearen esparruak, baliabide; generoa (herriarena), sexu (ekonomiko); politika, pragmatikan; herri-borondatea, gehiengoaren borondatea; eta hitz egiten deneko mundua - harreman-erak - hitz egiten den mundua - eduki.

Ikuskizuneko gizarte honetan, esan dezakegu herri-kulturak globalizazioari koherentziaz eusten dioten azken aterkia direla. Globalizazioaren aurkako mugimendu alternatiboaren zati handiena globalizatu egin da eta planu berean jokatzeko ari den alternatiba bihurtu da, alderdi honen hainbat logika eta printzipio erabiltzen direlarik; Arriskua dago ahanzturan galtzeko, Boaventura de Sousa SANTOS soziologoak esandakoari segiz, zapalkuntzari aurre egiteko erresistentzia eguneroko eginkizuna da, jende ezezagunak egiten duena, arreta mediatikotik kanpo...

Duela urte asko gaude tematuta kultura herrikoiak lantzearekin gure lana pentsatzeko/sentitzeko/egiteko modu gisa, eta horretarako, hauxe hartu behar dugu kontuan:

1.- KULTURA HERRIKOIAK, KONPLEXU-TASUNAREN²⁰ EMAITZA

Kultura herrikoiak konplexutasunaren adierazpen argiak dira, izan ere, bizitzeko modu bat izanik, ezin daitezke azaldu eguneroko espazio eta denboretan sentitu/pentsatu/egin gabe, eta errepikapen sortzailearen bidez sortzen dira etengabe. E. MORÍNek dioen eran (2001:46-47), “unitate konplexuak, gizakia edo gizartea kasu, dimentsioaniztunak dira; honela, gizakia aldi berean biologoa, psikikoa, soziala, afektiboa eta arrazionala da. Gizarteak dimentsio historikoak, ekonomikoak, soziologikoak, erlijiosoak... ditu bere baitan. Jakintza egokiak dimentsio aniztasun hau onartu egin behar du eta bere datuak bertan txertatu (...).

Jakintza egokiak konplexutasunari aurre eman behar dio. *Complexus* hitzak esan nahi du elkarren artean josita dagoena; hala da, konplexutasuna dago osotasuna eratzen duten elementuak banaezinak direnean”.

Garrantzitsua da zentzumenak zorroztea konplexutasuna ulertzeko, baita konplexutasunak eragiten dituen kontraesanak ere, hauek askotan harrapatzaileak, blokeatzaileak edota mingarriak izan daitezkeelako, edo aldiz, ahalmen berrietara bultzatuko gaituzten korapiloak izan daitezke.

“Kontraesanez bi ebazpen mota dituzte: bata itxia (*kontsentsua*) eta bestea irekia (*disentsua*). Adostasuna *modernitateari* dagokio: adierazpen bat -HABERMASEk dioenez- baliagarriagoa da hartzaileen arteko kontsentsua eragiteko gai denean. Desadostasuna *posmodernitateari*

20 Sakontzeko, ikus. Edgar MORÍN (2001).

dagokio: adierazpen bat - LYOTARDen hitzetan - baliagarriagoa da hartzaileen artean askotariko adierazpenak eragiteko gai denean.

Kontsentsua konponbide itxia da. Multzo hutsa da multzo guztiek komunean duten partea. Soilik jar gaitezke ados ezerezean, hutsean. Adostasunak informazio galera dakar. Disentsua konponbide irekia da. Zerbait beharrezkoa edo ezinezkoa denean, jokoaren arauak aldatu egin behar dira, dimentsio berriak sortu ahal izateko (...).

Kontsentsuak ziurtasuna sorrarazten du, disentsuak duda. ‘Duda’ *duo+ habitare (dubbitare)* egituratik dator: bi mundutan bizi dena” J. IBAÑEZ (1997:83). Bitartekaritza sozial desiragarrien lanean, disentsua da gatazkak konpontzeko modua.

Hau horrela izan dadin, garrantzitsua da egoeraren araberako lidergoa kontuan hartzea: (irekitzea, hainbat lider denetarako LIDERRAK bezala onartzeak eragiten duen esklerotizazioaren aurrean) denok gara liderrak leku jakin batzuetan eguneroko leku eta denboretan, baina inoiz ez beti leku guztietan, egunerokotasuna deuseztatuko baikenuke. Egoeraren araberako liderrak onartuz eta animatuz, prozesuan burutu beharreko zeregin bakoitzari garrantzia ematen zaio: kultura, janaria prestatzea, ordezkaritza politikoa, komunikazioa... ez dago “bigarren mailako zereginik edo zeregin osagarririk”. Ilusionismo sozialak esan nahi du bizitza guztien eta bakoitzaren errespetua eta krisi egoerekiko irekitasuna. Prozesu sozialak bizitza behar duten pertsonak osatzen dituzte, baita asebetetasuna ere prozesuan.

2.- EGUNEROKO BIZITZAN MASA-KULTURA, KULTURA OFIZIALA ETA KULTURA HERRIKOIAK ELKARLOTZEN DIRA²¹.

Kultura herrikoiak dira eraldatzeko gaitasuna dutenak: aniztasuna eta horizontaltasuna, egokitze, erresistentziarako eta eguneroko bizitzaz gozatzeko gaitasunari lotuta, eraldatze prozesu komunitarioen sortzaile eta indartzaile dira. Kultura herrikoiek jakintza kolektiboak berreskuratzen eta berpizten dituzte, bat-bateko trukeekin, gizarte laboreekin, elkarren arteko laguntzekin, harreman afektiboekin, desikasteekin eta ikaste berrietarako irekitzeekin batera... jakintza-iturri agorrezinak dira.

Hitz batzuk argitzearren, kultura ofiziala, masa kultura eta kultura herrikoiak bereiztu behar ditugu. M^a Dolores JULIANO (1992:7) adierazi bezala, “kultura ofiziala (...): eragin handiko elaborazioak egiteko ahalmenak ezaugarritzen du (esaterako, sistema zientifikoak edo filosofikoak) eta bere maila arautzailea. Ekarpak indibidualak jaso eta egituratzen ditu (jakintsuak, artistak). Gainerakoen jarduerak gidatzen dituzten patroiz estetikoak, legalak, erlijiosoak eta ekonomikoak ezartzen ditu. Erabakitzeko boterea du eta prestigio handikoa da.

Masa kultura: ekoizpen eta kontsumo estandarizatueta oinarritzen da. Nazioartean finkatutako gidalerroen emaitza da eta harreman inbertsonaletan sustengatzen da. (...) masa kulturak ez du izate autonomoa, ezta barne-antolaketarako maila minimoa ere”, “pakete kulturalak” ekoitzea da bere ezaugarri nagusia.

21 Sakontzeko, ikus. Javier ENCINA eta Juan Carlos MEJÍAS (1997) eta Dolores JULIANO (1992).

Kultura herrikoak harreman pertsonartekoetan eta kolektiboetan oinarritzen dira, ingurunearekin batera. Espazio eta denbora zehatzetan sortzen dira, orokorrean lokalki eta auzokideekin. Beraien mundu-ikuskerak islatu egiten dituzte, aldi berean, kultura ofizialen eta masa kulturen bazterketa eta onarpena. Oreak ezegonkor honek, kultura hauek galtzea edo beste kulturek xurgatzea. Gainera, ez dugu ahaztu behar kultura herrikoiek hainbat joera estruktural elkarlotzen dituztela: etnia, gizarte maila, lan-kultura, generoa eta adina; eta hauek elkarlotzeaz gain, aberastu eta dibertsifikatu egiten dituzte.

Masa kultura, kultura herrikoien baliabideez “jabetzen” da, akulturizatu eta alienatu arte, “herriko” etiketa jarritz eta kontsumitzeko “produktu-mota” bihurtuta... Baina kultura herrikoiak kultura *herrikoietatik/ekin/entzat* lan egiten dute, zenbaitetan masa kulturak beretzat dituen bitartekoak/formatuak ere hartuz, dinamizatzeko eta eraldatzeko, eta horrela, estatuko eta merkatuko botereen esku dagoen monopolioa hausten dute eta bitarteko horiei erabilera desberdina ematen diete.

Ezin dugu kultura herrikoiei buruz hitz egin singularrean, ez baitago kultura herriko bat, askotariko kultura herriko asko baizik. Jesús MARTÍN-BARBEROK ondo dioen moduan (2007:86), “herrikoia ez da homogenea eta gaur egun sortzen eta azaleratzen ari den prozesu anbiguo eta gatazkatsuan aztertu behar da”. Hala, esan dezakeguna da propietate bereiztaile batzuk daudela, berezitasun batzuk, bitxikeria batzuk, ezaugarri batzuk, azken batean: puntu batzuk, garatzen ari garenak eta kultura herrikoietara hurbiltzen gaituztenak gauzak ulertu, sentitu eta egiteko modu gisa.

3.- KULTURATIK, GIZARTE LABOREEN EGUNEROKO JAKINTZA ETA EGITEKO FORMETATIK ZABALTZEN DIRA GAUZAK ERALDATZEKO AUKERAK, ETA EZ POLITIKATIK, BOTEREAREN SARE ETA DINAMIKA SOZIALETATIK²².

Gizarte laboreak jendearengandik, aniztasunetik eta eguneroko espazio eta denboren autogestiotik sortutako eraikuntzak dira, eta beren ezaugarri nagusia da eraldaketa sozialerako espazioak zabaltzeko duten indarra. Ángel CALLEk planteatu bezala (2008:40), “erresistentzia horien zati handi bati, dikotomia klasiko hauek gaindituko dituen begirada bat proposatu nahi diot: publiko/pribatu, gizarteak/bizitza, biziraupena/adierazpena/afektua, erakundeak/elkarreraginak, prozesua/proiektua, subjektua/espazioa, protesta/sozializazioa, politikoa/kulturala.

Izen bat proposatu nahi dut: *gizarte laboreak* (“*cultivos sociales*”). Gizarte laboreak, *oinarrizko beharrak ahalik eta modurik zuzenenean asetzeko helburua duten sareak dira, espazioak eta harremanak sortzeko orientazio esplizitu eta argia dutenak*. Gizarte laboreak mikro-gizarteak dira, *bizitza-forma berrien ernamuinak*”. Bizitza-forma hauek ikuspegi kulturaletik elkarlotzen dituzte eremu ekonomikoa eta politikoa, kosmobisioak sortuz, eguneroko arazoan ateak konplexutasunetik zabaltzen dituztenak.

22 Sakontzeko, ikus. Javier ENCINA eta beste (2004) eta Ángel CALLE (2008).

Politikoa, ordea, etengabe ixtea da oposizio zentraletik; Carl SCHMITTek planteatzen digunez, “oposizio zentrala” beste oposizio batetik eratortzen ez dena da, edo beste oposizio batera murriztu ezin dena. Politikoa adiskide-etsai aurkaritzak ezaugarritzen du, ona-txarra, ederra-itsusia, errentagarria-ez errentagarria antitesien moduan (edo, alternatiba gisa, erabilgarriaren eta mingarriaren artekoa), horrela osatzen dira sektore moral, estetiko eta ekonomikoen oposizio zentralak, hurrenez hurren. Politikoa denak eta euren harremanen domeinu publikoak dena adiskide-etsai moduan biltzen du, harremanak sinplifikatuz; horregatik, SCHMITTen ustetan (1984:6), oposizio zentral honek eragiten ditu aurkakotasunik handienak. «'Politikoa'ren momentua banaketaren intentsitateak zehaztuta dator, elkartze eta banantze erabakigarriak egiaztatzen baitira horren arabera». Ez da etsaitze huts eta sinplea, adiskidea eta arerioa bereizteko aukera baizik, eta horrela, adiskidea eta arerioa suposatuta ahal izatea.

Ikusten dugun bezala, politikoa sinplifikatzailea eta aprioristikoa da, eta ez ditu aintzat hartzen konplexutasunaren eta eguneroko bizitzaren irakaspenak. Zenbaitetan, gizarte laboreak bukle atzeragarri horietan erortzen dira, une zehatzetan sistemak indar hori harrapatzen du, instituzionalizatzen du eta laboreak zeuden lekuan sareak, ordezkariak, ahalduntzea eta boterearen utzikeria sortzen dira. Como Eraldatzeko ahalmena urtu egiten da.

Estatuak eta Merkatuak boterea erosten dute, kolektiboa LIDERRENGATIK ordezkatzeko dute, traukiltzat jotzen dute herrikoia dena, kulturala azpiko mailan uzten dute geldirik, taldeen estimuari eraso zuzena eta mingarria eginez... kultura herrikoiak geldiaraziz, azpijanez,

deuseztatuz, kaltetuz..., “behetik” sortzen den eraldaketarako saiakera oro instituzionalizatuz. Raúl ZIBECHIk (2008:110) adierazi bezala, “erakundeak etengabe sortu nahiak, maila baxuenen eremu sozialak egituratu nahi izateak, mundu honetako ertz iraultzaileenak mugatzea besterik ez du lortu, egoera ‘normaldu’ nahian. Zentzu horretan nago kapitalismoaren norabide berean joan garelakoan”.

Lokalki egingo den edozein eraldaketak egunerokotasuneko espazio eta denboretatik abiatu behar du; bertan jaiotzen dira beldurrak, ziurtasunak eta masa kulturak eraikitako idealaren ezberdinak izatearen poztasunak; eguneroko espazio eta denborek askotariko egoeretan parte hartzeko aukera eskaintzen dute, norbanakoaren aldaketan laguntzen dutenak eta kolektibotik eraldatzea ahalbidetzen dutenak; izan beharra sortzen da, ez kanpoko ariketa gisa (inposatutakoa/ontzat emandakoa), baizik eta autoeraikitako eta autogestionatutako konpromiso gisa, IZATEARI utziz eta EGOTEAN biziz

4.- ERREPIKAPENEZ SORTZEA EGUNEROKO BIZITZAN²³.

“Gizateriaren abentura ezezaguna errepikapena da kosmosaren abentura ezezagunaren esferaren barruan, guretzat pentsaezina zen ustekabe batetik jaio zena, eta sortze eta deusezte etengabe jarraitzen duena”. E. MORÍN (2001:100).

23 Agerikoa bada ere, soilik MORÍN (2001) eta FREUDen (1984) esaldi solteak aurkitu ditugu; badirudi lanerako zabalik dagoen eremua dela.

Ez dago egunerokotasunik ez baduzu parte hartzen bizitzen ari zaren horretan, bestela, ikuskizun da, beste batzuek bizi dutena ikusi eta entzun besterik ez duzu egiten, baita zeure bizitza ere, ikuskizun bihurtuta. Gainera, ikuskizunaren gizarteak eraldatzeko pizten den gogoia bideratu egiten du eta bere eremura eramaten du, negozio bihurtzen du eta horrela, zeozer aldatu nahi bada, ordaindu egin behar da, hori oso presente dugu egunero, egunerokotasunean sartuta dago eta jende asko asebetetzen da horrela. Banakako ekintza bat, inorekin harremanik izatea eskatzen ez duena, ikusi eta entzutearekin nahikoa dena, zure dirua ematearekin nahikoa dena, eta horrekin justifikatzen duzu borrokan zabiltzala gauzak aldatzeko. Ikuskizunaren gizarteak halako trikimailuak ditu.

Egunerokotasuna etengabe zure identitatea gutxiagotzea da. Bizitzan parte hartzeak besteekin inplikatzeko eskatzen du. Egunerokoa ez dena IZATEA da, gauzak pasatzen ikusten dira. Egunerokoa pentsatzea, sentitzea eta egitea da, aldi berean, bereizketarik egin gabe. Egunerokoak desordenatzen du, kaoserantz zabaltzen du. Ikuskizunak ordenatzen du eta antolatzen, itxi egiten du subjekturik gabeko banakotasunaren diktadurarantz (norberekoikeriarantz, masarantz...). Ikuskizuna ezin da aldatu.

Ematen du egunerokoa beti berdina dela, errutina ematen du, baina benetan ez da horrela, ez da beti gauza berberei buruz hitz egiten, aurreko egunetan hitz egindakoa sustatzen da, janaria ere aldatzen doa... gauza berriak sorrarazten dizkizun errepikapena da. Sortutakoaren gainean berritzen da etengabe. Ikuskizunaren gizarteak, ordea, zure eguneroko bizitza bere horretan eusteko eginga dago. Erlazionatzen ez zarenez, soilik ikusi eta

entzun, ezin duzu erreazionatu. Hamahiru zentzumenetatik, aldiz, etengabe eraldatzen da.

“Analisia eremu globaleko ekintza dramatikoetan zentratzeak, hau da, herrialde zentraletako hirietan gertatzen diren ekintza horietan, komunikabide globalen arreta erakartzen dutenak, ahaztarazi egin diezaguke zapalkuntzarekiko erresistentzia eguneroko zeregin bat dela, arreta mediatikotik at dagoen jende anonimoak egiten duena, eta erresistentzia hori gabe, mugimendu demokratiko transnazionala ezin da autosostengatu...”
Boaventura de Sousa SANTOS (2007:43), eta ikuskizun bihurtzen da.

Eguneroko bizitza masa kulturarekin nahastea askotan, benetan merkatutik eta estatu hegemonikotik nahi dena eguneroko bizitzaren kolonizazioa denean, eta kultura herrikoiak masa kulturak ordezkatuak izatea. Benetan, eraldaketaren teoriko askok eguneroko bizitzak suposatzen duen esklabutza eta alienazioa haustea proposatzen dute; eta horrela, antagonistatzat jotzen dituzten horiek helburuari laguntzen diote.

Estrategia sortzaile hauek guztiak, egunerokotasunean bizitzen segitzeko sortzen joaten direnak, errepikapenaren helmuga posibleekin lotuta daude. FREUDEk (1984), errepikapen ludikoa eta errepikapen konpultsiboa bereizten ditu, bigarren honek hainbat ekintza eta ezaugarri kliniko dituzten kideen artean gertatzen baitira. Identitatearekin jolasaren bidez berriz aurkitzea gozamen iturri da, baina errepikapen konpultsiboaren aldean, errepikapenaren beraren bilaketan gertatzen da desberdintasuna. Errepikapen sortzaile ludikoak egonkortasunerako joera zalantzan jartzen du eta aldaketa, bizitzarako ezinbesteko

ezaugarritzat hartzen du. Ekoizpen esanguratsuaren berme da, esteka sinbolikoarena. Subjektuak, errepikapen horretan, jokoan jartzen du egonezina, ondoeza, mina, nahastea eragin dion edo eragiten dion guztia; *modu horretara inpresioaren intentsitatea zabalpizten du* (“*abreacciona*”) *eta, nolabait esateko, egoeraren jabe egiten da. Zabalpizte* hitzararen esanahia aztertzen hasten bagara, pentsa dezakegu ahalduntzea, jabe egitea, egoerak menderatuta edukitzea dela. Sormen ludikoaren prozesuan, ireki eta pizteko keinuak, heterogeneotasunaren botere bat aktibatzen du, zentzumenen askotariko artikulazioak eragiteko ahalmena duena.

5.- HARREMAN MODUAK EDUKIAK BAINO GARRANTZITSUAGOAK DIRA²⁴.

Zientziaren betaurrekoak jartzen baditugu, eguneroko espazio eta denboretan, gauzak jendearengandik eta jendearekin egingo ditugu, *a priori* helbururik gabe lan eginez, eguneroko bizitzaren autogestiotik/arekin.

Edukiak elkartzeko aitzakia baino ez dira, harreman-erak dira kultura herrikoiak definitzen dituztenak. Inportanteena da harreman-moduak aldatzea, ez pertsonak. Hori da gauzak kultura herrikoietatik aldatzea posible egiten duen arrazoietakoa bat. Harreman moduak aldatuz, eraldatzen ari gara, edukiak aldatuz kamuflatzen ari gara. Harreman moduak aldatuta eraldatzen ari gara, edukiak aldatuta kamuflatzen ari gara (askapen

24 Sakontzeko, ikus. Raúl ZIBECHI (2009) eta Jesús MARTÍN-BARBERO (2009).

diskurtsoak eman daitezke eta harreman pertsonaletan esklabutza eragiten).

Askotan, kultura herrikoiak pasibo eta apatikotzat jotzen dira, erakundeen deialdi formatuaren aurrean bertaratzen ez direlako (erakunde politikoak, sindikalak, sozialak...). Baina kultura herrikoiak beste harreman-modu batzuen bitartez mugitzen dira eta hortaz, parte hartzeko moduak ere desberdinak dira.

Raúl ZIBECHIK (2008) hainbat bereizgarri kokatzen ditu, espazioak *parte hartzeko guneak* izan daitezen, sektore herrikoiak beren bizitza ekoizten duten guneak, erakunde burokratiko handiak gaindituz eta mobilizazioetan leku nabarmena izateko; hauek dira bereizgarri horiek:

- Autogestio kolektiboranzko espazio horizontalak, mendetasunik gabeak, hierarkiarik gabeak, buruzagirik gabeak: “denon artean... dena”.
- Etengabeko elkarrizketetako espazioak, trukeak, elkarreraginak, elkarrekintzak, etenaldiak... gertutasuneko giroan gertatzen direnak, itxurazko desordenean.
- Espazio malguak, aldakorak, autonomoak, errebeldeak, sortzaileak, integralak eta aniztasuna integratzen dutenak, funtzio askotarikoak, egitura finkorik ez dutenak eta egunerokotasunetik bereizigabeak, forma egonkorrik gabekoak eta lanaren zatiketa egonkortuta ez dutenak.
- Barrutik kanpora zabaltzen diren espazioak, mundu herrikoian jada existitzen denetik abiatzen direnak, eguneroko bizitza ikuskizunera murriztera saihesten dutenak...

- Zapalduen egiteko ahalmena indartzen duten espazioak, arrailadun espazioak, sistema hegemonikoan zanpatuen erresistentziak eragindako pitzadurei esker, espazio autonomoak.

Parte hartzea ez da bozkatzea ezta soilik bizitzea ere, hori ez da nahikoa zombikeria sozialeko egoerak apurtzeko (erdia kamera begi / erdia heriotz soziala: beren belarrietatik haratago ikusten ez duelarik), horretarako, garrantzia eman behar zaio lan kolektiboari, hamahiru zentzumenak martxan jarriz, eta horrela ezinezkoak bizitzera hurbildu.

6.- SIMULAKROAK: POSIBLE DENAREN SEGURTASUNETIK EZINEZKOAREN ITXAROPENERA MUGI GAITEZEN EGOKITZEKO DUGUN AHALMENA²⁵.

“Simulakroa dinamismo iraunkorra da, etengabeko jarioa.”
Carlos MARTÍN CARÍN.

Simulakroek, ustez bizitza errealean bizi ezin ditugun gauzak biziarazten dizkigute, baina momentu horiek bizitakoan, ezinezkoaren itxaropena paraliza ez dadin eragiten digute. Simulakroek biziraunarazten laguntzen digute. Esperientzia ezberdinak sentitu/pentsatu/ekiteari “uko egitearen ukapen” dira. Ukapen hauen “birusa” gizartean sartzen denean, erreproduzitzea errazten dute, baina ez du esan nahi irekita dagoela, baizik eta “ez dagoela paralizatuta”, esperientzia hori grabatuta

²⁵ Sakontzeko, ikus. Rocío GÓMEZ ZUÑIGA eta J. GONZÁLEZ MINA (2003).

geratzen da hurrengo baterako, baina berez ez du ezer egingo ez bada kutsatzen... Ezinezkoaren itxaropenerantz irekitzen dute.

Simulakroek “fikzioaren eta errealitatearen arteko mugen disoluzioa suposatzen dute, (...) alegia, bizipenak jakintza afektibo eta esperientzia bilakatzeko aukerak dira, (...) «esaten ez denaren» kontakizuna eskaintzen dute; hitz egiten ez den harena”. Rocío GÓMEZ ZÚÑIGA eta Julián GONZÁLEZ MINA (2003:4-5).

Barreek desitxuratu egiten dute, itxuraz, *izana*, lehen aipatu duguna, eta *egona* eragiten dute bere osotasunean, identitatetik identifikaziora pasaz une jakin batean, zentzumen fisikoekin, afektibotasunarekin, gertutasunarekin, egokierarekin, eta era berean, jarioasunez eragiten ditu guztiak, haiek afinatzen hasten da.

Horrela, zentzumen leherketa honen bidez, barreak atek zabaltzen dizkie simulakroei, eta orduan pauso bat ematen da aurrera, kolektiborantz. Ezinezko gauza bat egiteko egokiera jakin bat baliatzeko ausardia izan aurretik irribarre konplizeak eragiten ditu. Horregatik diogu barrea ezinbestekoa dela kultura herrikoietan gizarte eraldatzeko.

Hauek dira barrearen indartzaile gisa identifikatu ditugunak:

- Jatekoa-edatekoa.
- Maitasuna-sexualitatea.
- Instituzioen aurkako bortizkeria eta berdinen gizarte.

Indartzaile hauek jabetze batean bizi ditzakegu, edo gure bizitzaren sukalde propiotik. Hala, barretik abiatuta egunerokotuko dugu zorientasuna ere, hau da, bizipozari bidea zabaltzea; **pozik gaude** eguneroko gauza eta uneekin, **zorientsu izateko**, aldiz, ikuskizunaren *aprioria* ezarri behar diogu momentuari (bizi gabea bizitzen ari garenaren gainetik).

Hori da eragiten duena NIETZSCHErentzat egia hutsa baino gehiago izatea bizitza, samina baino gehiago izatea. Sufrimendu eta bizipen beldurgarritz beteta egoteaz gain, bizitza poztasun, plazer eta jolasez beteta dago. Soilik maitasunak du ezagun pozaren eta sufrimenduaren arteko nahasketa arraro hori, plazeraren eta minaren artekoa. Eta ez da umorea baino modu hoberik sentiberatasuna bizirik mantentzeko.

“Mingarriaren tiraniakeriaren” aurka, ironia baino errezeta hoberik ez da, horixe zen CHAMFORTen proposamena; arima "sakon, ilun, mingarri eta sutsu" hori, barrea sendagarri gisa epaitzen zuena eta "galdutzat ematen zuen barre egin ez zuen eguna".

7.- JABE-GABETZEA, ASKATASUNA ETA DUINTASUNA²⁶.

“Jabetza pribatuak horren inozo eta partzial bihurtu gaituenez, objektu bat soilik da gurea bere jabe egiten garenean, geureganatzen dugunean, guretzat kapital gisa, ondasun gisa existitzen denean, edo zuzenean janda, edanda, jantzita, habitatuta, etab.... daukagunean.

²⁶ Sakontzeko, ikus. Rosa ALCÓN eta Marta DOMÍNGUEZ (2007) eta Raúl ZIBECHE (2007).

Horrela, zentzumen fisiko eta intelektualak zentzumen horien guztien besterentze sinpleaz izan dira ordezkatuak: edukitzeko zentzumenaz” Carlos MARX (1981:140).

Nola mugitzen dira kultura herrikoiak jabetza pribatuaren eta jabetza kolektiboaren tentsiopean, askatasun pribatu eta askatasun kolektiboarenean?... Eta apur bat zehatzago... Zer gertatzen da jabetza pribatuaz mintzo garelarik, pertsoneri egiten badiegu erreferentzia, kontu materialei egin ordez?

Julia VARELAK XII. mendeko European kokatzen du sexuen arteko hierarkizazio berri baten hasiera, ahaidetasun harremanak aldatzearekin batera. Horrela, garaiko filosofia humanistak, ezkontzarekin eta ezkontza estatu modernoan artikulatzearekin, feminizazio-gailu hori ezartzen du. Senar-emazte eredu monogamoak, Trentoko Kontzilioak (1563) gerora ezarriak, aipatu feminizazioa egonkortzea ekarriko du; lehenak bigarrena ainguratuko du, alegia. Eta era berean, naturak berak eta emakumearen gorputzak sexuen arteko desorekaren naturaltzea ekarriko dute. Garai hartako “emazte kristau perfektua”ri buruzko tratatuek gaitzetsi egiten zituzten emakume nobleen maitasun bizipen libreak eta independenteak. Eta emazte ezkondu perfektuen kontrapuntu emakume “gaiztoak” dira: prostituten eta sorginen irudia baliatzen da emakume multzo handi horri erreferentzia egiteko, elizaren eta harreman monogamoen morrontzarik onartzen ez zuten emakume herrikoiak guztiak. Emakume hauei ‘kontrolerako teknologia gogorrek’ ezarri zizkieten fraide dominikoez eta frantziskotarrek, baita Inkisizioak edo prostituzio-etxeek ere, emakume hauek zituzten ‘jakintzak suntsitzeko’.

*“Inoiz ez dut jabe izateko nahia izan,
ezta zanpatzaile ere...
libre, beti utzi zintudan libre
maiteena dudana askatasuna bada
zertarako nahiko zaitut giltzapetuta
niretzat sekula izan ez bazara jabetza bat”
Aceituna sin hueso*

Genero harremanetan, parte bat aldatzen denean, harremanaren norantza aldatzen da, eta aldaketa horrek beste partearen edo parteen aldaketa dakar, ezinbestean. Garrantzitsua da banandurik lantzea. Denda batean sortzen den emakume arteko elkarrizketa bat asko aldatuko litzateke gizonik aurrean balego, eta harremanak ere aldatu egingo lirateke. Gauza bera baina alderantziz taberna batean. Baina hori bezain garrantzitsua da elkarrekin lantzea eguneroko espazio eta denboretan. Hau espazio eta denborek eta duten esanahiek zehazten dute, eta egunero landuz eta hausnartuz eraldatzen doa, bereizketa artifizialetera jo gabe edo topaketa gerta dadin “indar egiten” ibili gabe.

Emakumeen joera da elkarri laguntzeko eta kooperatzeko loturak egitea, hau da, talde edo sare informaletan elkartzen gara, geure eguneroko bizitza gestionatzeko. Harremanetarako modu hauek defendatu behar ditugu diskurtso instituzionalek proposatzen dituzten moduen aurrean, esaten baitute, partehartze orotarako beharrezkoa dela talde formalak eratzea: izan emakumeen elkarteak, izan parekidetasuna kargu politikoetan, edo beste zernahi izan. Jende askok uste du hau ez dela generoa lantzea, ez delako esplizitua, ez dagoelako diskriminazio positiboa, ezta *mainstreaming* ere.

Noraino dira posible kultura herrikoietan gorputzen eta pertsonen askatasuna?, Norantz ibili nahi dugu? Kultura herrikoiek tregoa ematen digute hainbat erresistentziaren bidez... kultura ofizialak eta masa kulturak, ordea, beste muturrerantz doaz. MARXen ikusmoldearen arabera, jabetza pribatua da gizarte-boterearen iturri nagusia. Orduan, kultura herrikoekin eguneroko bizitzaren autogestio kolektiborako prozesuez mintzatzea, askatasuna oinarri, maila guztietan jabe-gabetze prozesuak eraikitzea da. Kultura herrikoietan hainbat erresistentzia forma aurkitzen ditugu, gorputzen bitartez jabetzari aurre eginez, eta askatasun kolektiboaren defentsan (adb.: *yamakasi*, kontsumorik gabeko kirola, sekretupean konpartitzen diren elkartasun loturak).

Sortzeko aukerak egotea nahi badugu, jabe-gabetzea ezinbesteko baldintza da: zuk zati bati egiten diozu aurre, eta beste batek beste zati bati, eta hala, eraldaketarako aukera sortzen da. Ikuskizunaren gizarteak ahalduntzea sustatzen du, eta horrek erakargarritasuna sortzen du maila psikologikoan, norberak kontrolatzen baitu bere burua: zeuk kontrolatzen duzu zeure burua, zarena zara, ezer trukatzeko aukerak kanpoan utzita.

Gutasunaren aldarrikapena da kontsumo gizarteak ezabatu nahi izan duena sinplifikazioaren, manipulazioaren eta indibidualizazioaren bitartez, banakoak masa-kulturarekin identifika daitezen bilatuz, kolektiboki eraikitako gutasunaren orde, *ni sozializatu* bat eratuz (familia katalizatzaile gisa erabilia), hau da, banako bat berdingabea sentitzen dena eta, aldi berean, (kontsumoaren bitartez) sozialki *baztertu gabeen artean* identifikatzen dena. Gutasun hori ezabatzearen utzi du teknokraziak, hain zuzen ere, diskurtso ideologikoa eta horregatik hartu du banakoaren askatasuna hitz ematen

duen ideal zientifiko-teknikoaren aldarrikapena; masa-kulturak babestuta, eguneroko bizitza modu desestrukturatu eta bertikalean gaindiazten du. Horren aurrean, egunerokoa gizarte labore propioen bitartez eta horizontala bereganatzeko dituen moduen bitartez transzenditzen denean, kultura herrikoiekin topatzen gara eta beren modu anibalente eta dezentratuez egindako eraikuntza alternatiboekin.

Abiapuntua beti sortzen da EZ esatetik: “Indibidualizatzen gaituen desordenari EZ!”, “EZ diezagutela kendu PER²⁷ laguntza!”, “Gerrarik EZ!”, “EZ dugu mundu hau nahi, beste mundu bat da posible!” Alegia, ezin naiz bakarrik bizi edo ezin dut, eta horregatik, ezin dut bakartu nazaten onartu; horrek beste banako batzuekin bat egitera narama eta baieztapen pertsonaletatik erabaki kolektiboetara egiten dut jauzi (identitatetik identifikazioetara).

Horrez gain, bai estatu komunismoak bai ongizatearen gizarteak erakutsi dute estatuak edota merkatuak ezin dutela mundu duinik sortu; biek sartzen dutelako estatuaren eta merkatuaren existentzia gizartetik aparteko zerbeit bezala, kaosaren indibidualizatzeko prozesua indartuz eta jendea bere egiteetatik bananduz, bere bizitzaren kontroletik aldentuz.

Gure ekintza ez da zentratu behar boterea lortzean (berpizkuntza bultzatzen den abanguardia izan, alderdi politiko bat sortu eta hauteskundeak irabazten dituen

²⁷ Itz. oharra: PER (*Plan de Empleo Rural*) Espainiako Gobernuak 1986an ezarritako plan bat da jornalarietako subsidio bat esleitzen diena lanaren truke. Jendea landa-ingurura lotzen du laguntza honek, baina Andaluziako jornalarietako mugimenduak sistematikoki laguntza honen kontra egin du, duintasuna lapurtzen dielako.

abanguardia izan), ezta ahalduntzean ere (azken batean, boterea hartzea da, normalean logika azpiratzaileen testuinguruan); botere-uztearen autogestio kolektiboan baizik, boterea deuseztatzearen ortzemuga utopikoan. Autogestioak begirada aldatzen digu, boterea hartzetik pentsatu/sentitu/egin ahal izatera, eta horrek jakintzak, trebetasunak eta nahiak inplikatzeko ditu. Gainera, beti fluxu sozialean jatorri duen dimentsio kolektiboari egiten dio erreferentzia, besterekin eta besteren egite/pentsatze/sentitzeetan.

Boterearen autogestio kolektiboa eraikitzen joateko (jabe-gabetzea), lehenik erresistentzia behar da, bai oposizio/kontzientzia mailan, bai elkarreragin sortzailean. Bigarrenik, haustura behar da berrikuntzara zabaltzeko; proposamen berriak sor daitezkeen identitateari uko egin eta identifikazioak sustatuko dituztenak. Eta hirugarrenik, partaidetzarako bideak zabaltzea behar dira prozesuan eraiki behar diren aurka-egite/elkarreragin/berrikuntzari forma emateko, egiten joaten diren askotariko ekintzen bidez.

8.- EKONOMIA HERRIKOIAK²⁸.

*Pentsa liteke aurrerapen onargarriak azaleratuko direla
ekoizpen eta erreproduktzio sistema batetik edo hainbatetik
mantenua eta denon bizitzaren erreproduktzio areagotua
duintasunez eta justiziaz ebazteko
beste modu bat sortzeko dutenak
trantsizio luze batean artikulatuta.*

J. L. CORAGGIO

²⁸ Sakontzeko: José Luis CORAGGIO (2010)

Subsistema	Logika/Norantza	Eragileak
Enpresa ekonomia	Kapitala metatzea	Enpresak eta <i>lobbieak</i>
Ekonomia publikoa	Legitimitatea metatzea	Sareak, alderdi politikoak eta aparatuak
Ekonomia herrikoiak	Eguneroko bizitzaren erreprodukzio areagotua	Gizarte laboreak, familia...

Autoreek egindako taula, J. L. CORAGGIO eta Javier ENCINAREN lanetan oinarrituta

Eskema honetan, ekonomia herrikoien parte direnak honakoak dira: besteren lanaren ustia ketatik bizi ez diren unitate etxetiarrek, edo metatutako aberastasunetik bizi ezin direnak (pentsio-funtsetako inbertsioak barne), eta ondorioz, beren kideek lanean jarraitu behar dutenak bizitza-kalitatearen batezbesteko aurreikuspenak betetzeko, nahiz eta kide guztiek edo zenbaitzuek beste bi subsistemetan lan egiten duten.

José Luís CORAGGIOk planteatzen duen modura (1993:21-23), "Oinarri hauetan eraikitzen den ekonomia herrikoien ikuskerak marko kontzeptual bat eskatzen du **osotasun nagusi eta bideragarri gisa ulertzeko** baliagarria izango dena. *Giza-kapitala* hemen ez da ikusten metaketaren logikan ustiatu daitekeen kanpo-baliabide gisa, baizik eta pertsonarengandik, unitate etxetiarretik eta, hedaturaz, komunitatetik bereizezina den ondare gisa, eta bere garapen eraginkorrak kideen bizi-kalitatea *berehala* hobetzea dakar (...).

Ekonomia etxetiarreko baliabideak ez dira mugatzen lanaren energiara (bere elementu ukiezinekin batera: trebetasunak, gaitasunak, ezagutza teknikoak, antolaketakoak, eta abar); aktibo finakoak ere hartzen ditu bere baitan –lurrak, etxebizitza, bizitzeko, saltzeko edo ekoizteko lokala; tresnak eta instalazioak; kontsumorako gailuak; eta abar–. Komunitatean, ekonomia etxetiarrei bestelakoak atxikitzen zaizkie: lur komunalak, azpiegitura fisikoak, zerbitzuen zentru eta sareak, erakunde sozialak orokorrean, eta abar. Aktibo eta gaitasun horiek formatuak dira, metatuak edo egokiak helburuaren arabera, ahalik eta baldintza onenetan egoten direnak, marko kultural bakoitzean. “Metaketa” horrek ez die erantzuten ondasunen metaketa kapitalistaren legeei. Elementu batzuek merkatuan balio berrerosgarria izan badezakete ere, beren erabilera balioa nagusitzen da, edo larrialdietarako erreserba gisa dute benetako balioa”.

9.- KOMUNIKAZIOA ETA AHOZKOTASUNA.

Lau komunikazio motaren inguruan aritu gitezke: ofiziala eta masiboa (komunikazio menderatzailea eratzten dutenak), herrikoia eta alternatiboa (bi erantzun/erresistentzia modu desberdin eratzten dutenak). Azken hauetan jarriko dugu arreta²⁹.

Komunikazio herrikoia eta komunikazio alternatiboak bi ikuspegi desberdinetatik partekatzen dute kezka eta ezinegon bera: errealitatearen eraldaketa. Arriskutsua da, ordea, komunikazio herrikoia eta komunikazio

29 Komunikazio-era hauetan sakontzeko, ikus. Beatriz LUQUE eta Javier ENCINA (2007) eta Javier ENCINA eta beste (koord.) (2009) eta Jesús MARTÍN-BARBERO (2010).

alternatiboa zer diren zehaztasunez mugatzea; berez, gai hauetan aritzen diren ikerlari eta teorikoek askotan nahasten dituzte, ez baitago muga argirik. Hala ere, komunikazio modu hauek ezaugarritzen dituzten funtzio, premisa eta lan egiteko moduak ezagutzea ezinbestekotzat jotzen dugu, izan ere, euren arteko desberdintasunak ez ulertzeak eta komunikazio modu bakoitzaren abiapuntua eta aritze zehatzean existitzen diren mugak zeintzuk diren ez jakiteak jendearekin egiten den lana paralizatzea suposa dezake, eta baita benetako komunikazio modu transformatzaileak lantzeko ezintasuna ere.

Komunikazio modu hauei buruz hausnartzean topatzen ditugun zenbait desberdintasun aditzera eman nahi ditugu, gako direla uste baitugu:

- Komunikazio herrikoia, posible denarenganako konfiantzaren eta ezinezkoaren itxaropenaren arteko tentsio dinamikoan kokatzen da: ilusionismo soziala praktikan jartzean datza, itxuraz ezinezkoa dena posible egiteko. Alternatiboak, ostera, eredu desberdin bat bilatzen du, beste eredu bat, egungo moduak ukatuz/baztertuz..
- Komunikazio herrikoiak masa-komunikabideekin erlazionatzeko moduak izaten ditu, eguneroko denbora eta espazioetarik abiatuta; komunikazio alternatiboak, ordea, komunikazio prozesuen logikak transformatzea suposatzen du. Hortaz, lehenengoa komunikazio logika nagusien errebertsioan oinarritzen da, eta bigarrena, aldiz, hauen subertsioan.

- Komunikazio herrikoiaren eta alternatiboaren artean dagoen beste desberdintasun funtsezko bat da komunikazio herrikoietan lan egiten denean urruntzea eta identifikazioa bilatzen direja aldi berean, eta alternatikoan, ordea, banandu egiten ditu biak.
- Lan egiteko bi modu hauek, halaber, bi muga garrantzitsu topatzen dituzte, elkarren arteko ezinulertzea eragiten dutenak: alternatiboak masa-kulturaren eta kultura herrikoiaren arteko nahasmenduan aurkitzen du muga. Herrikoiak, bere aldetik, adierazpide ofiziala eta alternatiboa antzekotzat jotzen dituenek, ez da kapaz bataren eta bestearen mezuak bereizteko.

Alternatiboaren eta herrikoiaren arteko desberdintasun nagusiak zeintzuk diren ulertzeak eta bakoitzaren mugak ezagutzeak posible egingo du komunikaziotik abiatzen den bestelako eraldaketa mota bat posible egiteko tresnak eta lan egiteko moduak garatzea. Horretarako, bereziki azpimarratzen dugu bi komunikazio era hauen artean zubiak zabaltzearen garrantzia.

Honela ulertzen den komunikazioa, komunikazio prozesu eta sorkuntzaren ulertze klasikoarekin alderatuz, eraldaketa prozesuen gune bilakatu behar da, eta ez elementu gehigarri edo aldaketaren zerbitzuan dagoen baliabide huts gisa soilik, ekintza komunikatiboan bertan aktibatzen diren prozesu eta elkarrizketa hezitzaileen alde eginez. Hau gertatzeko, komunikazio modu alternatiboa eta herrikoia adiskidetu behar dira, eta ondorioz, inplikitzen du *pentsamendu konfrontatzaile-dikotomizatzailetik alde egitea, txuria ala beltza, komunikazio ona/benetakoa eta komunikazio*

txarra/atzeritartzailea. Horrek esan nahi du ezin dela kosta ahala kosta masiboa dena alde batera utzi, baizik eta eguneroko denbora eta espazioetatik abiatuta, bitartekari sozial bezala duen indarra aprobetxatu. Hartara, komunikatzeko erak zaindu egin behar dira, kultura masiboan erabiltzen diren estetikak eta narratibak baliatu behar dira gozamenaren eta komunikazioa gerta dadin, mezuaren edukia ezinbesteko den elementu bakartzat jotzeko obsesioen aurrean.

Eraikitze prozesu kolektiboetan, ez da inolako komunikazioa inposatu behar, desiratua izan behar du, eta desira honek eraman behar du berarekin komunikazioa eskuratzea. Hain zuzen ere, Jesús MARTÍN-BARBEROK planteatzen du talde eta klase zapaldueneko edo azpiratuenean/menderatuenean hartu behar dutela hitza, komunikazio zapaltzaile edo menderatzailearen forma eraldatzeko helburuz: hau da, – VIDAL BENEYTOren hitzetan ondo azaltzen duen bezala– *alternatiboak nahitaez herrikoia sor dezala, menderatze-makina bihur ez dadin*. Hausnarketa hau informazioa ekoizteko egitura menderatzaileei egiten zaien kritikatik baino ezin da etorri, egitura hauek komunikatzeko moduak merkantzia huts gisa zehazten baitituzte.

Eguneroko bizitza berriz asmatzeko eta bere balioa nabarmentzeko abiapuntua esperientzien berreskuratzea, bizipenen autogestioa eta oroimenaren berreraikitzea da, eta horretarako, oso garrantzitsua da komunikazioa eta ahozko adierazpidea. Abiagunea eta egunerokotasunaren kolonizazioa geldiarazteko lehen balazta. Hortik aurrera, abilezia kolektiboak jarri behar dira martxan, egokieraren eta sentikortasunaren zentzumenei lotuta; momentu oro jakin dezagun norantz *ixten dugun irekitzeko* (“*cerrar para*

abrir”), ze *ixteko ixten* badugu, fosilizazioa sustatuko dugu, eta *irekitzeko irekitzen* badugu, soilik beherantz ireki daitekeela kontuan hartu gabe, masa-kulturaren baloreak sustatuko ditugu.

Ahokotasuna ez da idazten ez dakiten pertsonen adierazpidea, boterearekiko duten posizio asimetrikoa dela eta, euren istorioak ahoz baino adierazi ezin dituztenen pertsonen adierazpidea da; jabetzarik gabeko pertsonen modua da, dirurik ez edukitzeagatik, botere politikoa ez erabiltzeagatik, gailentzen den genero, kultura edo adineko kide ez izateagatik...

Ahokotasuna, ezagutza, baliabideak eta ahozko narratioak transmititzeko erak lapurtu ezin izan dizkioten gehiengo sozialaren adierazpide nagusia da; euskarri teknologiko dezentratua duenez, erresistentzia, autogestionatua izatea eta jendeak bereganatzea errazten du. Emmanuel LIZCANOren hitzetan (1984:10), “idazketak, zientziari emandako bultzadarengatik ondo irabazitako ospea baldin badu ere, hau idazten duenak idazketa sostengu gisa erabiltzeaz gain plazer fisikoa ere lortu arren, ez dio inori ahozko kulturen lurra basamortu bihurtzeko eskumenik ematen. Ez dute idazketarik izango, baina guk faltan ditugun beste lorpen batzuk dituzte, eta –nik dakidala– ez dute inoiz kulturarik eza edo superstizioarengatik geure liburuak sutara eramango dituen *ahokotasunaren* aldeko kanpainarik hasi. Letra eta gobernuko jende hori: ahozko hitzen kulturak ez dira soilik urrutiko kontinenteetan bizi. Euren hitza daukate ijito eta euskaldun, galego eta andaluziar, geure haurrak eta geure barrenetan ditugun amildegi inkontzienteak, hain ikasiak garenok ere. Juan de Mairenak ondo zekien bezala, oraindik oso litekeena da, geure artean esan dezagun, ezagutza unibertsitarioak folkloreakin,

herriaren jakintzarekin ezin lehiatzea. Utz itzazue, utz gaitzazue, utz dezagun geure burua bakean!”.

Edo Hans Magnus ENZENSBERGERek (1986:7) planteatzen digun bezala, “ inoiz ez da izan kontua idatzizko kulturaren bidea zelaitzea, eta are gutxiago gizakiak adingabetasunetik askatzea. Mintzagai zen progresoa oso bestelako kontua zen. Alfabetatugabeak *gizakiaren klaseetatik baxuenera otzantzea* zen, fantasia eta tema indarrez kentzea, ondoren, euren giharren indarra eta euren eskuen trebezia esplotatzeaz gain, euren burua ere ustiatzeko”. Letra lege da, abstrakzioa, burokrazia eta plangintza: *bizitza zehazgabe posiblea arau finko eta intemporalera makurtzea*, Agustín GARCÍA CALVOK esango lukeen modura. “Izpiritua, hitzaren kultura guztietarako hatsa, ahozkotasuna, airea iraitzea sortzen duen ahoskera bihurtuta. Bere ahozko moduan, hizkuntza organoa da eta hitza, ‘fisiologikoa eta psikologikoa (eta logikoa) elkartzen ditu, erritmoari eta ixiluneari ematen dio nagusitasuna, ahozkoari arnasa gailentzen zaio, adierazpideari ekintza, ideiari emozioa, DUMÉRYk adierazi bezala. Bere baitan, ixiltasuna ere adierazgarria da” (Emmanuel LIZCANO, 1984:10).

Bibliografía

Rosa ALCÓN y Marta DOMÍNGUEZ (2007) *Del superfeminismo al sentido común y la vida cotidiana*. En Javier ENCINA y otr@s (coord.) *La ciudad a escala humana*. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

Ángel CALLE (2008) *(Nuevos) Cultivos sociales*. Cuchará y paso atrás nº 18. Sevilla.

José Luis CORAGGIO (1993) *La construcción de una economía popular como horizonte para ciudades sin rumbo*. Ponencia presentada en el Seminario sobre “Globalización, fragmentación y reforma urbana: El futuro de las ciudades brasileñas en la crisis”. Itamonte (Brasil), 26-29 de octubre.

(2010) *La economía social y la búsqueda de un programa socialista para el siglo XXI*. En Javier ENCINA y otras (coord.) *Las culturas populares*. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

Javier ENCINA y Juan Carlos MEJÍAS, (1997) *Nacionalismo y culturas populares: una lucha por el tiempo y el espacio*, en Colectivo de Estudios Marxistas (Coord), *Nacionalismo-internacionalismo. Una visión dialéctica*. Ed. Muñoz Moya. Sevilla.

Javier ENCINA y OTR@S (coord.) (2004) *Reparto. Presupuestos participativos y autogestión de la vida en Las Cabezas de San Juan*. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

(2009) *Comunicación popular o comunicación alternativa. ¿Un falso dilema?* Ed. Atrapasueños. Sevilla.

H. M. ENZENSBERGER (2015) *Elogio del analfabeto*. En Javier ENCINA, Ainhoa EZEIZA, *Desempoderamiento, juego y oralidad*. Ed. Bitiji-Toreador de Pájaros/Colectivo de Ilusionistas Sociales. Sevilla/Donostia.

Sigmund FREUD (1984) *Más allá del principio del placer*. Ed. Alianza Editorial. Madrid.

R. GÓMEZ ZÚÑIGA y J. GONZÁLEZ MINA (2003). *(des)ordenar lo vivido, reordenar lo sabido: déficit simbólico y juegos-simulacro*. III Simposio Nacional de Investigación y Formación en Recreación. Vicepresidencia

de la República/ Coldeportes/FUNLIBRE Noviembre 27 al 29 de 2003. Bucaramanga, Colombia.

Jesús IBÁÑEZ (1997) *A contracorriente*. Ed. Fundamentos. Madrid.

Dolores JULIANO (1992) *Cultura popular*. Cuadernos de antropología. Ed. Antrhopos. Barcelona.

Emmanuel LIZCANO (1984) *Cuando no saber escribir es no saber escribir*. Liberación; jueves, 8 de noviembre.

Beatriz LUQUE y Javier ENCINA (2007) *De las mediaciones consentidas a las mediaciones deseadas. Lo masivo y lo colectivo en los procesos de comunicación*. Cuchará' y paso atrás' n° 15. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

Jesús MARTÍN-BARBERO (2007) *Desafíos de lo popular a la razón dualista*. Cuchará' y paso atrás' n° 17. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

(2009) *Políticas culturales de nación en tiempos de globalización*. Cuchará' y paso atrás' n° 23. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

(2010) *Los métodos: De los medios a las mediaciones*. En Javier ENCINA y otras (coord.) *Las culturas populares*. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

Carlos MARX (1981) *Manuscritos económico-filosófico* en Erich Fromm *Marx y su concepto del hombre*. Fondo de Cultura Económica. México DF.

Edgar MORÍN (2001) *Los siete saberes necesarios para la educación del futuro*. Ed. Paidós. Barcelona.

Carl SCHMITT (1984) *El concepto de lo «político»*. Folios Ediciones. México.

Boaventura de Sousa SANTOS (2007) *Democratizar la Democracia (una introducción)*. Cuchará' y paso atrás' nº 15. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

Raúl ZIBECHI (2008) *Espacios, territorios y regiones: la creatividad social de los nuevos movimientos sociales en América Latina*. Cuchará' y paso atrás' nº 18. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

Raúl ZIBECHI (2009) *La comunidad como máquina social*. Cuchará' y paso atrás' nº 23. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

Jabe-gabetzea. Sarrera bat.

Javier Encina eta M^a Ángeles Ávila

Itzulpena: Ainhoa Ezeiza

“Euriak ematen didan ura baldin badaukat
Zeruaren handia baldin badaukat
Gauaren iluna baldin badaukat
Sua pizten denean gertatzen dena ulertzen badut
Bideak zabaltzen badira izarrak ageri direnean
Lurrera erortzen denetik bizitzerik badut
Biharamunari esker itxaropen faltan ez banago
Nik ez dut botererik behar

Nork agintzen du hemen, nork, nork, nork
Nork agintzen du, hemen eta hor
Jendea nola altxatzen den ikusteko garaia da
Nik ez dut botererik behar”

Mala Rodríguez. Abestia: *¿Quién manda aquí?*

1995az geroztik partaidetza prozesuetan gabiltza lanean, Andaluzian eta geroago Mexikon; horrez gain, Kanarietan, Madrilan, Euskal Herrian, Katalunian, Galizian, Argentinan, Kolonbian, Perun... ari den jendea

ezagutu dugu, eta solasaldietan konturatu gara kezka bera dugula: Botereak zaildu egiten du ondo egitea/pentsatzea/sentitzea partaidetza prozesuetan, Estatu eta Merkatu dominatzailearengandik datorren Botereak, baina baita botereek ere. Zeregin tekniko eta politikoak garatzen dituzten hainbat pertsonaren botereak, baina baita, harrigarriki, auzo-zereginak betetzen dituzten zenbait pertsonaren botereak ere.

Era askotara jardun dugu Boterearen eraginari aurre egiten gure lan egiteko moduan (ilusionismo soziala³⁰): egiturak malgutuz, komunitatean harreman horizontalak eta anbibalenteak sustatuz, autoestimu komunitarioa sustatuz, ikusezintasunak sortuz, etab... Baina geure hausnarketak/ekintzak beti izan du presaren zailtasuna, prozesua blokeatuta gera ez zedin; horrek eragotzi du Boterearen eta botereen gaineko hausnarketa sakonagoa eta zehatzagoa egitea, jendearekin eta jendearengandik lan egitea erraztuko diguna. Uste dut 20 urte hauetako esperientziak lagunduko digula eginahal honetan. Jabe-gabetzearen kontzeptua nondik abiatuta eraiki dugun ulertzeko, esan beharko genuke Sevillako probintzian (Andaluzian) maila lokalean zuzenean izan dugun honako partaidetza hauek eragindako hausnarketatik datorrela: Pedrera (1995-1996; garapen lokalaren eraketa partehartzailea udal mailan), Las Cabezas de San Juan

³⁰ *Egiteko modu bat* da (ez da metodologia bat) dimentsio dialektikoan oinarritzen dena, metodologia partehartzaileak abiapuntu dituena (IAP - Ikerketa Ekintza Partehartzailea bereziki) eta kultura herrikoiekin egindako lanean garatzen dena. Bere ardatz nagusia da *bitartekaritza sozial desiragarriak dinamizatzea eta sortzea eguneroko espazio eta denboretan*; horretarako, jendearekin eta jendearengandik lan egin behar da, posible denaren segurtasunetik ezinezkoaren itxaropenera mugituz, eguneroko bizitzaren autogestioaketaren bitartez. Pentsatzea eta sentitzea, ekintza eta jakintza, aitortza eta jakintza guztien ikaskuntza bereizi gabe.

(1999-2003; aurrekontu partehartzaileak), Palomares del Río (2005-2007; Hiria Antolatzeke Plan Orokorra eta Plan Estrategikoa partaidetzaren bidez eraikitzea); Olivares (2009-2010; baztertutako auzoetan autoestimua eta autogestio komunitarioa lantzea ahozko historiak eraikiz). Gainera, beste hausnarketa bat barneratu dugu J. Holloway eta R. Zibechi-ren analisiak, esperientzia zapatista (México) eta R. Zibechi-ren El Alto-ko (Bolivia) esperientziak oinarri harturik. Jiutepec eta Cuernavaca-n (México) urteetan izandako esperientzien hausnarketak ere jaso ditugu, zeinetan partaidetza zuzena izan dugun (jarraikorragoa birtualki baina aurrez aurre ere bai, 3 edo 4 alditan, 2010-2014).

Kultura herrikoien gaia hasieratik egon da gure lanetan, bai maila teorikoan, artikuluen ekoizpenean eta *cuchará' y paso atrá'* izeneko gure aldizkaria editatuz, bai partaidetza prozesuetan, ahozko historiak berreraikiaz eta Pedrera-n (Sevillan) egindako lehen lanean. Horretan nenbilen IAP (Ikerketa-ekintza partehartzailea) munduko biltzarrean ponente gisa parte hartzera gonbidatu nindutenean 1997an Kolonbian, bertan ikusi nuen neure burua kultura herrikoiei buruz mintzatzen; eta Antonio Mandly izan zen “Sancocho” bat bazkaltzera joatea proposatu zidana bere lagun batekin, Jesús Martín-Barberorekin, hain zuzen ere bazkaloste luze batean bitartekaritza sozialen inguruan hizketan aritu zitzaidana; harrezkero gure lanean garrantzi handia hartu dute bitartekaritza sozialek, baita Jesusek ere, zeinekin oraindik ere harreman emankorra eta atsegina dugun. Eta une hartan bertan hasi ginen garatzen honako baieztapena: Boterearen logikak eguneroko bizitzan egiten duen kolonizazioa geldiarazteko, bitartekaritza sozialak ezagutzeak berebiziko garrantzia du; bitartekaritza sozialak ekiteko eta erlazionatzeko moduak

dira eta inposatuak, bere hartan utzitakoak (*consentidas*), erosiak edo kolektiboki eraikiak eta desiratutakoak izan daitezke; azken harreman-mota hauek ekintza-multzo posibleen erakusle pribilegiatuak dira (hainbat talde elkartzea ekintza bateratuak gauzatzeko), baita harreman-modu horizontalak eratuko dituzten kosmobisioak sortzeko beharrezkoak diren eraikitze eta eraiste formak ahalbidetzeko ere³¹.

Baina inposatutako bitartekaritzak, bere hartan utzitakoak edo erosiak dira eguneroko bizitzaren kolonizaziorako atak zabaltzen dituztenak (Estatu eta Merkatu dominatzaileak izanik horren eragile): prozesu honetan, bizitako eta eraikitako denbora suntsitzen ari da –espazioa/denbora diada lurralde/ordutegi bihurtuz–. Lurraldetze hau espazio pribatua/espazio publikoa banatuz egiten ari da (horrela, espazio komunaren suntsipena saiitzen da), eta habitat pribatua inposatzen ari da habitatzearen³² gaitetik, horrela, denbora objektibizatua markatu –denbora bera denontzat–, espazioa lurralde bihurtu eta pertsonak parte hartzetik begiratzera pasatzen ari dira: eraikitzetik ikuskizunera. Marc AUGÉk (1998:91) dioen eran, “zenbait espaziotan norbanakoa ikusle sentitzen da ikuskizunaren nolakotasunak benetan axolarik ez zaiolarik. Ematen du ikusle posizioa dela ikuskizunaren esentzia ikuslearentzat berarentzat, ikuskizuna ikusle posizioan dagoen ikuslea

³¹ Bitartekaritza sozialetan sakontzeko: Javier ENCINA, Beatriz LUQUE eta M. Ángeles ÁVILA (2009)

³² T.R. VILLASANTE berridatziz, “habitatzea” ulertu behar da egunerokotasunean, espazioan eta denboran elkarrekin biziz, kultura herrikoiak sortzen diren lekuetan, afektibotasunetik (sentitu), partekatzen den horretatik (egin) eta “etor-kizunetik” (pentsatu); mugimenduan dagoen zerbait da, dialektikoa eta gatazkatsua.

bera izango balitz bezala". Ez-leku hauek dira (identitateei men egiteko/aitortzeko lurralde egokiak), gauzak pasatzen ikusteko jarreraz, gure geuretasun osoan barneratzen direnak; geu gidatuz, osotasun gisa definitzen gaituen identitatean harrapatuta.

Estatu menderatzailearen bitartekaritzek gidatzen gaituzte eta euren portaerak inpregnatzen gaitu kultura instituzionaletik abiatuta, Hezkuntzaren bitartez, Administrazioaren politiken bidez, Zientzia baliatuz, zenbait Komunikabide Kultural erabiliz... Merkatu menderatzailearen bitartekaritzek gidatzen gaituzte eta euren portaerak inpregnatzen gaitu masa kulturaren bidez, Moden bitartez, hainbat Komunikabide Masibo erabiliz, Ondasuna baliatuz. Patriarkatuaren bitartekaritzek gidatzen gaituzte eta inpregnatzen gaituzte Familia, Hezkuntza, Ondasuna eta *bio-boterearen* bidez.

Botereak (Estatu eta Merkatu menderatzaileek eta Patriarkatuak) gure mugimendua behar du, gure aurkaritza, gure jakintzak, gure sormena; ikasteko eta *conduit*-a eragiteko (bertan hartzen baitu indarra eta zentzua): gu eramaten gaitu eta geure portaeran barneratzen da, baina gu gidatzeko ikusi egin behar gaitu, mugitu egin behar dugu, eta gu gidatze horren bitartez inpregnatzen gaitu bere portaeraz. Gidatzen gaitu gugandik ikasteko, gidatzen gaitu Kapitalismoak eragiten dizkigun ertz mingarrienak saihesteko, gidatzen gaitu Boterearen logikarentzat desiragarria den portaera barnera dezagun eta gudan botere nahia esna dadin (boterea hartuz, ahaldunduz edo botereari kontra ginez).

Boterearen aurrean, jabe-gabetzearen alde egin dugu, eremu soziala berkokatzen baitu, boterearen borroka-

eremua utzi eta bizitzan zentratzen da: bizi dezagun geure bizitza kolektiboa orain! Ezer gailendu beharrik gabe, mesias baten zain egon gabe, gustuko ez dugun gizarte batean hobeto kokatzearen alde borrokarik egin gabe. Eraiki dezagun geure bizitza gaurtik eta egunez egun...

Jabe-gabetzea³³ boterea uztea baino ez da (“*hacer dejación*”) (behekoenganantz eta ingurune sozial eta naturalarekin harmonian) eraikitze kolektiboa ahalbidetuko duena. Botere uzte hau bizitzaren edozein eremutan egin daiteke (familia harremanetan, lagunartean, lanean, elkartasunean...), banakakoa izan daiteke (ni aita/ama/semi/alaba gisa..., ni adiskide gisa, ni nagusi gisa, edo irakasle gisa, edo mediku gisa, edo funtzionario gisa, edo aktibista gisa...), kolektiboa izan daiteke (EZLNk ahalbidetu zuena 2000 urtean mugimendu politiko bihurtu zenean, hau da, ejerzitoaren boterea utzita, Chiapaseko herriek euren oraina eta geroa kolektiboki eraiki zezaten: Mundu Berria).

Boterea uzteak eragiten duen egoera berriaren lehen unean nahastea eta kaos sortzailea pizten da, hortik berehala horizontalitateen lehen hastapenak sortzen dira eta ikusezintasun prozesu bat hasten da; horrek denak

33 Itz. oh.: Jabe-gabetzearen itzulpena proposatzen da literalago liratekeen “*boteregabetzea*” edo “*ahaluztea*” itzulpenen aurrean, boterea zerbaiten jabe izatearekin lotzeko (nire langileak, nire seme-alabak, nire gurasoak, nire ikasleak...), baita jabetzea kontzientzia zentzuarekin erlazionatzeko; jabetzeak baduelako bere baitan ebaluazio-ñabardura (“jabetzen naiz nolakoa naizen”) eta jabe-gabetzea, norbanakoaren kontzientzia hartzea sustatu ordez, eraikuntza eta autogestio kolektiboan bizi delako. Horrez gain, euskal kultura herrikoen joera linguistiko bat erabili nahi izan da, hitz-jokoen egitura erabiliz (hitzen errepikapena, “*saski-naski*” tankerako konposatuen eran), egitura erritmiko bat eratzeko.

boterearen *conduit*-a eragozten du, ez baitu aurkitzen egite bat eraman ahalko duena, baizik eta elkarren artean josiak dauden sentitze, pentsatze eta egiteen magma bat, ez dirudiena inora doanik. Aurrerapenaren ukatze hori (norantz joan ukatzea) eta orain bizitzearen baieztapena (egotea) *conduit*-aren oztopo eraginkorrak direla ematen du, helmugak, protokoloak, helburuak, metodoak behar dituelako *conduit*-ak, bai gugandik ikasteko, bai gu bere norabidean eramateko.

Horizontalitate sortu berri hauek kosmobisio holistikoa berreskuratzen duten kultura herrikoien uholde berria eragiten ari dira, kultural ez gain, alderdi ekonomikoak eta sozialak barneratzen dituztenak. Kultura herrikoia hauek kapitalismoaren integritasuna galtzen joan dira eta horrek erraztu du populazioaren geruza askotan masa kultura gailentzea eta kultura herrikoiek indarra eta alternatiba galdu izana. Horizontalitate berriek, ostera, suspertu egin dituzte kultura herrikoiak, nahiz eta hauek, berez, ez diren inoiz suntsituak izan eta globalizazioaren aurrean aterpe eta gordeleku izan dira, horregatik errazagoa izan da berpiztea, espiralean. Baina mende berriaren iritsiera eta ondorengo krisi ekonomikoa izan dira kosmobisio hauen erditzea bultzatu dutenak, bitartekaritza desiragarriak sortuz eta hauek Boterea berpentsatuz, berreginez, bersentituz, gure eta gure komunitatearen eguneroko bizitzan hainbesteko indarra izan ez dezan. Bitartekaritza berri horietariko batzuk dira, konstelazioen moduan, jabe-gabetzea deritzoguna marrazten dutenak.

Mundu berri horien ezaugarrietako bat da ez dutela azalpen diskurtso orokorrik eraikitze beharra. “Nola egiten da hau?” galderaren aurrean, erantzun ohikoak honelakoak dira: *eginez!* edo *horrela egiten dira gauzak*.

Normalean ez dira sistematizazioak lantzen; segur aski denbora faltagatik baino gehiago, ez zaielako zentzurik ikusten. Transferentziak, aldiz, bai: une jakin batean zerbaitetarako lagun diezaguketean iraganaren atalak berreskuratzen dira, geure iraganarena edo beste kolektibo batena, lehenago izandako beste antzeko arazo bat konpontzeko, edo aurretik egindako hutsegite bat ez errepikatzeko, edo besterik gabe, tentsio-une bat askatzeko edo barrea eragiteko, edo dagoeneko ez dagoen pertsona baten oroitzapenak berreskuratzeko.

Tradizio judu-kristaua apurtzen duten mugimendu bitalistak dira. Bizitza miresten da, ez da heriotza nahi; heriotza berregiten da nonahi egotetik amaiera izatera, bizi izanaren ondorio baino ez izatera... Heriotzak gune izateari uzten dio, bizitzea da heroikoa (ama kementsua, espazio publikoa berreskuratzea, ejerzitioa eta gerrila ez ulertzea...).

Autoerregulatzeko eta bizitzaren esparru guztietan elikatzeko joera duten mugimenduak dira: ekonomia herrikoiak eta ekonomia sozial eta solidarioak, autoikaskuntza eta autoekintza, jakintza herrikoiak berreskuratzea, ama edoskitzaileak, diru soziala...

Mugimendu hauetan, horizontalitateak³⁴ gune berriak sortzen ditu eta emakumeen protagonismorantz naturaltasunez zabaltzen dira (kuoten eta diskriminazio positiboaren beharrik gabe), eguneroko bizitza delako erdigunea eta horrek eragiten du gizonetzkoak bigarren planora pasatzea jabe-gabetze prozesu baten bidez.

³⁴ Ez da nahastu behar horizontalitatea eta asanblearismoa, azken hau tresna bat da horizontalitate horretatik lan egiteko; beste tresna batzuk ere erabili ahal eta behar dira jendearekin lan egiteko eta egokitzeke.

Mugimendu hauek ez dute asmorik eguneroko bizitzatik haratago ondorioak izateko. Efimeroak izan daitezke, beste talde batzuekin berreratzeko, edo bizitza osoa iraun dezakete; baina iraupena ez da balio bat berez, **balio bakarra bizitza da eta nola balio digun mugimenduak hobeto bizitzen**, ez nahastu hau inolaz ere *gehiago kontsumitzearekin*. Horregatik, tradizio judu-kristaua berriz hautsiz, enplegua ez da ardatz nagusi bat, hainbatetan behar dugun -eta noizik eta behin behar ez dugun- tresna bat baizik...

Mugimendu hauetan Egia maiuskulaz ez da existitzen; baloratzen dena da gauzak zuzenean eta zintzoki esatea (“*decir las cosas por derecho*”)³⁵ eta oker zeundela onartzeko ausardia izatea, gaizki eginak ikaskuntza kolektiboaren prozesuan barneratzen direlako, asmatzeek duten pisu ber-berarekin. Horregatik dute hain balio txikia munduaren azalpenaren teoria orokorrek (ez direlako zuzenak eta zintzoak: orokorrean eta betiko baliozkotzen dira; eta ez dute ausardirik: erroreak eta hutsegiteak arauaren salbuespen bihurtzen dira).

Gure ekintza ez da zentratu behar boterea lortzean (berpizkuntza bultzatzen den abanguardia izan, alderdi politiko bat sortu eta hauteskundeak irabazten dituen abanguardia izan), ezta ahalduntzean ere (azken batean, boterea hartzea da, normalean logika azpiratzaileen testuinguruan); botere-uztearen autogestio kolektiboan baizik, boterea deuseztatzearen ortzemuga utopikoan. Autogestioak begirada aldatzen digu, boterea hartzetik

35 Itz.oh.: *decir las cosas por derecho* herri-esaera andaluziarrak adierazi nahi du gauzak ezer ezkutatu gabe, maltzurkeriarik gabe eta aurpegia emanez esatea, gauzak esateak eduki ditzakeen ondorioei aurre eginez.

pentsatu/sentitu/egin ahal izatera, eta horrek jakintzak, trebetasunak eta nahiak inplikatzeko dituen. Gainera, beti fluxu sozialean jatorri duen dimentsio kolektiboari egiten dio erreferentzia, besterekin eta besteren egite/pentsatze/sentitzeetan.

Boterea uztearen autogestio kolektiboa eraikitzen joateko (jabe-gabetzea) lehenik erresistentzia behar da (EZ esatea, botere aurkakotasuna sortuz; J. HOLLOWAY), bai oposizio/kontzientzia mailan, bai elkarreragin sortzailean. Bigarrenik, haustura behar da berrikuntzara zabaltzeko; proposamen berriak sor daitezkeen identitateari uko egin eta identifikazioak sustatuko dituztenak (boterea sakabanatuz, R. ZIBECCHI). Eta hirugarrenik, partaidetzarako bideak zabaltzea behar dira prozesuan eraiki behar diren aurka-egite/elkarreragin/berrikuntzari forma emateko, egiten diren askotariko ekintzen bidez.

Hiru paradigma hauek (botere-aurkakotasuna, boterearen sakabanatzea eta jabe-gabetzea) gizartea boterea hartu gabe, ahaldu gabe, kontraboterea eraiki gabe eraldatu nahi duten mugimenduetatik eta mugimenduekin sentituz/eginez/pentsatuz sortu dira. Paradigma hauek bat datoz mugimendu hauek hiru funtsezko gako konpartitzen dituztela baieztatzean:

- 1.- Emakumeek protagonismoa hartzen dute partaidetza forma berri hauetan.
- 2.- Mundu Berria gaurtik bertatik bizi behar da; karakola zapatistek (Mexiko), Altoko Auzo Batzarrek (Bolivia) eta jornalari andaluziarren mugimenduak (espainiar estatua) planteatzen duten eran.

3.- Mundu Berria gaurtik bertatik bizitzeko, geure espazio eta denbora propioak markatzen ditugu eta ikusezin bihurtzen gara Estatuako Boterearen eta Merkatuaren aurrean.

Michel FOUCAULTek atea zabaldu zuen boterearen mikrofisika planteatu zuenean: *Boterea bizi gareneko espazio eta lurralde guztietan azaltzen da, eta batzuetan Boterearen erotatearen preso gara eta beste batzuetan geuk erooten dugu gure boterea erabiliz*; baina ez zen ausartu atea zeharkatzera. Pertsona gehientsuenok boterea dugu une jakin batzuetan: gure familian, gure lagun-taldean, gure laneko atal jakinetan, etab...; eta egoera horietan utzi behar dugu boterea behean dauden pertsonenganantz (ingurune sozial eta naturalarekin harmonian), jabe-gabetuz, botere hori erabiltzeari uko eginez, kolektiboki eraikitzeo aukera eskaintzeo. Egia da ez dela perfektua izango, baina partekatuagoa, hezitzaileagoa, dibergenteagoa, prozesualagoa izanik, gehiago lagunduko digu zentzu eta norabide guztietan.

Areago, Michel FOUCAULTek (1988b:3-4) boterea ulertzeko eta alternatibak lantzeko funtsezko gakoak eman dizkigu... “Boterea erabiltzea *portaerak gidatzean* eta probabilitatea prestatzean datza. Azken batean, boterea ez dago horrenbeste bi aurkariren aurrez aurrekoaren ordenan, edo batak bestearen aurrean duen konpromisoan, eta bai *gobernuaren* ordenan. *Gobernu* hitzak XVII. mendean zuen esanahi zabala hartu behar da; ez baitzion erreferentzia egiten soilik egitura politikoari eta Estatuaren administrazioari, horrekin batera zehazten zuen nola zuzendu pertsona eta taldeen portaera: haurren gobernu, arimena, komunitateena, familia, gaixoena. Ez ziren soilik politikoki edo ekonomikoki eratutako forma legitimoak; hobeto edo

gutxiago pentsatu eta kalkulaturako ekintza-erak ere baziren, beti beste pertsona batzuen ekintzen posibilitateen gainean eragiteko. Zentzu honetan, gobernatzea beste batzuen ekintza eremu ebentuala egituratzea da. Hortaz, boterearen harreman-era propioa ez da bilatu behar bortizkerian edo borrokan, ezta kontratuan edo lotura boluntarioan ere (era hauek gehienez ere tresnak dira); baizik eta ekintza-modu berezi horretan, ez belikoa, ez juridikoa, gobernuan, alegia.

Boterea erabiltzea besteen ekintzen gainean eragiteko ekintza-era bat bezala definitzen denean, gizaki batzuk beste batzuen gainean *governatzea* – gobernatzearen zentzu zabal horretan – elementu garrantzitsu bat erantsi behar da beti: askatasuna. Boterea soilik “gizaki libreen” gainean eragiten da eta *libre* diren bitartean. Horrela, ulertuko dugu gizakiak banakakoak edo kolektiboak izan daitezkeela, posibilitate-eremu bat dutenak, askotariko portaerak, erantzunak eta jokamoldeak egiteko aukera ematen duen posibilitate-eremu bat.

Gizakiak erabaki dezakeena saturatuta dagoenean, ez da botere-harremanik existitzen; esklabutza ez da botere-harreman bat gizakia kateatuta dagoenean (kasu honetan, hertsadura-harreman fisikoa da) [botere-harremanak soilik existitzen dira] gizakia bere kasa desplazatu daitekeenean eta azken batean, ihes egin dezakeenean. Beraz, ez dago botere eta askatasunaren arteko aurrez aurrekorik, eta ez dute bazterketa-harremanik ere (ez da “boterea erabiltzen denean, askatasuna desagertzen da”); aitzitik, askoz joko konplexuagoa da: joko horretan, askatasuna boterearen existentziaren baldintza gisa agertzen da benetan (aldez aurreko baldintza gisa, beharrezkoa baita askatasuna existitzea boterea erabiltzeko; eta askatasunaren etengabeko laguntza ere

bai, beragan eragiten duen boterea erabat desagerraraziko balitz, boterea erabat desagertuko litzateke eta ordeko bat bilatu beharko luke bortizkeriaren hertsaduran zuzenean). Baina aldi berean, askatasunak boterea erabiltzeari aurre egin behar dio, bestela guztiz determinatzeko joera baitu”.

Horrela, Botereari zuzen-zuzenean aurre egiteko erabiltzen den askatasunak, edo kontsentsua eragiten duenak, *conduit*-a elikatzen du eta Boterearen logika berberetan bukatuko luke, eta horretara eramaten gaitu botere-aurkatasunak eta ahalduntzeak. Ondoren azaltzen ditugu horren bi garapen, gure baieztapenen inguruan irizpide propioa sortzeko.

Toni NEGRI-k (2001:83) planteatzen duen bezala: “Kontrabotereaz orokorrean hitz egiten denean, benetan hiru gauzari buruz hitz egiten ari da: botere zaharraren aurkako erresistentzia, altxamendua eta botere berri bat eratzeko ahalmena. Erresistentzia, altxamendua eta botere eratzailea kontraboterearen esentzia bakarraren irudi hirukoiztarraren adierazpen dira”, eta horrela eramaten eta inpregnatzen du Botereak: horren adibide argiena da globalizazioaren aurkako mugimendua eta mugimendu honek erakunde multinazionalen aurrean egindako kontraagenda: mugimenduak borroka globala erakutsi du baina borroka deslokalizatuaren bidea markatu du eta ez du balio izan sare horizontal supralokalak sortzeko mugimendua behetik elikatua izan dadin.

Ahalduntzea, bestalde, honela definituko genuke: “emakumeek eta baztertutako beste talde batzuek euren boterea areagotu dezaten eragiten duen estrategia bat da, hau da, baliabide material eta sinbolikoen erabilerarako

eta kontrolerako sarbidea izatea, eragin handiagoa izatea eta aldaketa sozialean parte hartzea. Horrek prozesu bat du bere baitan pertsonak euren eskubide, gaitasun eta interesez jabe daitezen, eta nola erlazionatzen diren horiek beste pertsona batzuen interesekin, erabakietan posizio sendoagoetatik har dezaten parte eta erabakietan eragiteko aukera izan dezaten”. Clara MURGUIALDAY, Karlos PÉREZ DE ARMIÑO eta Marlen EIZAGUIRRE (2000, orrialdea zehaztu gabe).

Esan beharra dago ahalduntzeak eta kontrabotereak, beren *kontsentsuaren askatasunarekin, conduit*-aren bidea prestatzen dutela eta horregatik ez dugu beste aukerarik izan gure arreta *disentsuaren askatasunean* jarri eta kosmobisio hau identifikatu eta forma ematea baino (mundua sentitu/egin/pentsatzeko erak), azkenean “jabe-gabetzea” (edo *desempoderamiento*) deitu dena.

Jabe-gabetzea ulertzeko, zortzi zutabetan oinarrituta ikusi beharko genuke³⁶; zutabe horiek orekan egon behar dute, nahiz eta oreka ezegonkorra izan prozesuan zehar, nahiz eta uneoro bat nagusitu daitekeen, orekatu beharko dena...

1.- Zaintzak

Zaintzak praktika-multzo bat dira talde edo mugimenduaren beharrei erantzuteko asebetetzailerak identifikatu eta elkarrekin eraikitzea errazten dutenak.

Zaintzak lantzeko, honako testuinguru eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: interesik eza eta

³⁶ Zutabe hauek hemen daude garatuak: J. ENCINA eta M. ANGELES AVILA (2014).

axolagabekeria/zaintza aurkaritza³⁷; beharrak eta asebetetzeko erak: asebetetzailleak; pobrezia-erak³⁸; emakume zein gizonek duten femeninoak duen balioa nabarmentzea³⁹; zaintza integrala ingurune sozial eta naturalean ulertuta eta kontsumoarekin aurkaritzan⁴⁰.

2.- Askatasuna

Mundua modu ikusezinean eraldatzen ari diren mugimenduen askatasuna ez da kontsentsuak eragiteko askatasuna, disentsuaren askatasuna baizik (eramana sentitzearen izua eta depresioa apurtzen duena). Ikusezin bihurtu behar dugu, printzipio etiko bihurtutako elkar ulertzean oinarritzen den disentsuaren askatasuna zabaldu, dibertsitate soziala eta naturala da mundu hau eraldatzeko beharrezkoa den aberaste kolektiboa errazten duena. Gaur bertan bizitzen hasi nahi dugun Mundu Berri hori askatuz...

Askatasuna lantzeko, honako kontzeptu eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: kontsentsu/disentsu dualtasuna⁴¹, jabetza pribatua⁴²; bio-boterea⁴³; mundu berria askatzea⁴⁴; komunaren gaia; Ikuskizuna eta Boterea; izatea *versus* eraikitze kolektiboa⁴⁵; egotea eta ulerkortasunaren etika⁴⁶.

37 Sakontzeko: Leonardo BOFF (2002)

38 Sakontzeko: Manfred MAX- NEEF (1994)

39 Sakontzeko: Leonardo BOFF (2002)

40 Sakontzeko: Antonio ELIZALDE (2010)

41 Sakontzeko: Jesús IBÁÑEZ (1997)

42 Sakontzeko: Carlos MARX (1981) eta Franco BERARDI “Bifo” (2003)

43 Sakontzeko: Michel FOUCAULT (2009)

44 Sakontzeko: Carlos MARX (1981) eta Raúl ZIBECCHI (2007)

45 Sakontzeko: Javier ENCINA, M. Ángeles ÁVILA eta beste (2011)

46 Sakontzeko: Edgar MORÍN (2001)

3.- Eraikitze Kolektiboa

Ez gara izaki isolatuak, besteekin harremanetan bizi gara eta etengabe ari gara gure egoteko era eta gure ideiak aldatzen, edo ideia berriak eraikitzen ditugu harremanetan gaudelako etengabe.

Eraikitze kolektiboa lantzeko, ondorengo kontzeptuak eta bizipenak hartu behar ditugu kontuan: hezkuntza bankarioa *versus* hezkuntza kritiko-dialogikoa⁴⁷; kontsumoaren gizartea⁴⁸; esperientziaren bitartekaritza, gu-aren apelazioa; partekatzea eta ez direla existitzen *a priori*ak⁴⁹.

4.- Konfiantza

Konfiantza pentsatu, sentitu eta egitearena da eta erabaki bat da: irekitasuna izatea kolektiboki eraikitzen hasteko. Konfiantza ikastea erraztuko digun irekitasun horren araberakoa da, bestearen beharra izatea posible egingo duena, lehiakortasunera bultzatzen gaituen gizartearen aurrean.

Konfiantza lantzeko, honako kontzeptu eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: rolen segurtasuna apurtzea: Gizona, Emakumea eta Haurra⁵⁰; antsietatea eta zalantzaren koloka⁵¹; harremana *versus* zeregina; sormena sustatzea; elkar ulertzea; bizikidetasuna⁵²; ez banantzea

47 Sakontzeko: Paulo FREIRE (1999, 2004, 2005)

48 Sakontzeko: Serge LATOUCHE (2008)

49 Sakontzeko:

<http://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=488>

50 Sakontzeko: Agustín GARCIA CALVO (1999)

51 Sakontzeko: Niklas LUHMANN (2005)

52 Sakontzeko: Ivan ILLICH (2006)

sentitzea, egitea eta pentsatzea; sentitze, egite eta pentsatzeen transferentzia⁵³.

5.- Elkarren beharra eta autonomia

Iraganarekiko zein orainarekiko izan daiteke. Elkarren beharraren bidea da laguntzarik behar ez izatera eta autonomiara garamatzana, antagonistatzen hartzen diren horien helburura. Zutabe hau, elkarren beharra eta autonomia, **zero une batez** ernaltzen da, zeinetan gure taldean ordurako zerbait kolektiboki eraiki den; **lehen unean** jakintzak eskaintzen dira eta hortik transferentziak eta egoeraren arabeko lidergoak sortzen dira. **Bigarren unean** taldeen artean eraikitzen da kolektiboki, **hirugarren unean** alde batetik elkarren arteko beharra indartzen da eta bestetik, behar hori desegiten doa autonomia sortzearekin batera. Talde horretan edo taldeen artean dauden dinamiken arabera, **laugarren unean** garrantzitsuagoa izango da elkarren arteko beharra eraikitzen segitzea, edo gauza berriak sortzea autonomiatik abiatuta (kurubil sortzaile horretan elkarren arteko behar berriak sortuz beste talde batzuekin edo talde ber-berekin espazio eta denbora desberdinetan).

Elkarren arteko beharra eta autonomia lantzeko, honako kontzeptu eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: elkarren arteko beharra *versus* norberekoikeria⁵⁴; errepikapen sortzailea⁵⁵; harreman horizontalak; egoeraren arabeko lidergoak; egunerokotasuna eta ziurtasuna-ziurgabetasuna⁵⁶.

53 Sakontzeko: Javier ENCINA, M. Ángeles ÁVILA eta beste (2011)

54 Sakontzeko: G. W. F. HEGEL (1993)

55 Sakontzeko: Edgar MORÍN (2001) eta Sigmund FREUD (1984)

56 Sakontzeko: Javier ENCINA, M. Ángeles ÁVILA eta beste (2011)

6.- Bizipoza

“*Ze ederki egongo litzatekeen zoriontasunean pentsatu beharko ez balitz!*”. Aldous Huxley (1932) Un mundo feliz.

Bizipoza partekatzen den emozioa da, sentitze/pentsatze/egite egoera bat gizartea eraldatzerantz bultzatzen duena. Zentzumenak zabaltzen dituen egoera da, ulerkortasuna, partekatzea eta eraikitze kolektiboa errazten duena. Arau sozialetatik edo arau alternatiboetatik askatzen gaitu eta ondorioz, *conduit*-etik, eta horrela errazten du agertoki berriak sortzea...., konfiantzazkoak, jolas eta esperimentaziokoak, arauetara makurtzen ez direnak. Bizipozak zabaltzen du itxi gabe, *conduit*-a errazten duen itxitura hori irekitzen du, irekitzeko irekitzen da, disentsuak ezagutzeko eta euretatik abiatuta eraiki ahal izateko.

Bizipoza lantzeko, honako kontzeptu eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: zoriontasuna *versus* bizipoza⁵⁷; antolaketa herrikoia sustatzen du⁵⁸; barrea eta bere sustatzaileak: jan-edana, maitasuna-sexualitatea eta erakunde aurkako bortizkeria – berdinaren gizartea. Badirudi *izatea* desitxuratzen duela eta *egotea* bere osotasunean eragiten duela⁵⁹.

7.- Desazkundera

Geure esperientziatik abiatuta, honela definituko genuke: **balioak berrikustea** partekatzearen etika berri batetik, inperfektu eta amaigabe sentitzetik, beste pertsona batzuekin *egotea* bera baliotsua dela ulertuta,

57 Sakontzeko: Javier ENCINA, M. Ángeles ÁVILA eta beste (2011)

58 Sakontzeko: Mariano ALGAVA (2006)

59 Sakontzeko: Javier ENCINA, M. Ángeles ÁVILA eta beste (2011)

ekoizpenak eta giza-harremanak balio aldatetara egokitzea, ekonomia herrikoien, ekonomia sozialen eta solidarioen balioa nabarmenduz, euren ingurune sozial eta naturalekin orekan, kolektiboki eraikitzeari balioa emanez, giza-harreman horizontal eta anibalenteak sustatuz, **aberastasuna eta ondare naturalerako sarbidea banatu**, lekuan lekukoa eta komunitarioa oinarri duten bizimoduak sortuz, publiko (Estatua) / pribatu (Merkatua) dualitatea apurtuko dutenak, itxi gabe irekiz komunerantz, gure ingurune sozial eta naturalaren ondare den horretara, **ekoizpenaren eta kontsumoaren inpaktua murriztu**, beharren eta asebetetzailen arteko desberdintasunetik abiatuta eta kolektiboki eraikiz gure beharrak asebetetzeko modua, giza-eskala naturaleko garapena lortzeko. **Berrerabili eta bertziklatu**, bai objektuak, gure kultura materiala aberasteko, bai pentsamenduak eta egiteak, gure kultura orokorra eta gure trebetasun sozialak aberastuz, gure ingurune sozial eta naturalarekiko sentimendu berriak sortuz.

Desazkundera lantzeko, honako kontzeptu eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: desazkundera *versus* Aurrerapena, Hazkundera, Kontsumismoa, Zoriontasuna. Baliabide komun eta naturalekiko jarrera predatzailea bertan behera utzi; Elkarrekikotasuna, berbanaketa, plangintza eta autarkia sustatzen du eta publizitateari, kredituari eta iraungitzeari aurre egiten dio⁶⁰.

8.- Itxaropena

Itxaropena desesperazioaren bihotzean bertan berpiztu da. Itxaropena ez da bizipozaren sinonimo. Benetako itxaropenak badaki ez dela ziurtasuna, baina badaki, Machado poetak esan zuen bezala, bidea ibiliz egiten

60 Sakontzeko: Serge LATOUCHE (2008) eta Carlos TAIBO (2009)

dela, badaki metamorfosiaren bidezko salbazioa, nekez gertatzekoa bada ere, ez dela ezinezkoa. Posible denaren segurtasunetik ezinezkoetara garamatza, egunerokoa, gizarte-laboreak hautsi gabe.

Itxaropena lantzeko, honako kontzeptu eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: itxaropena *versus* itxaropen pasiboa eta sakrifiziozkoa⁶¹; larritasunaren, desesperazioaren eta itxaropengabeziaren kontrako kontzeptua da⁶²; amets egitera gonbidatzen gaitu eta ustekabearen eta ezinezkoaren agerpenerantz askatasunez irekitzera⁶³.

BIBLIOGRAFIA

Mariano ALGAVA (2006) *Jugar y Jugarse*. Ediciones América libre. Ciudad Autónoma de Buenos Aires

Marc AUGÉ (1998) *Los no Lugares*. Ed Gedisa. Barcelona.

Franco BERARDI “Bifo” (2003) *La fábrica de la infelicidad. Traficantes de Sueños*. Madrid.

Ernst BLOCH (1977) *El principio esperanza*, Tomo 1. Ed. Aguilar, Madrid.

(2007) *El principio esperanza*, Tomo 3. Ed. Trotta. Madrid

Leonardo BOFF (2002) *El cuidado esencial*. Ed. Trotta. Madrid.

Ángel CALLE (2008) (Nuevos) *Cultivos sociales*. Cuchará y paso atrás nº 18. Sevilla.

61 Sakontzeko: Paulo FREIRE (1999)

62 Sakontzeko: Ernst BLOCH (1977 eta 2007)

63 Sakontzeko: <https://vimeo.com/74869959>

José Luís CORAGGIO (2009) *La Economía social y solidaria como estrategia de desarrollo en el contexto de la integración regional latinoamericana*. Cuchará' y paso atrás' nº 23. Sevilla.

(2010) *La economía social y la búsqueda de un programa socialista para el siglo XXI*, en Javier ENCINA y OTR@S Las Culturas Populares. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

Antonio ELIZALDE (2010) *Individualismo posesivo y antropología de las necesidades*. Cuchará y paso atrás nº 25. Sevilla

Javier ENCINA y M. Ángeles ÁVILA (2010) *Sentidos, imaginarios, técnicas, herramientas y herramientas-técnicas en los procesos de ilusionismo social*. Cuchará' y paso atrás' nº 25. Sevilla.

(2014) *El desempoderamiento. Viviendo la construcción de un nuevo mundo sin poder*. Edita UNILCO-espacio nómada. Sevilla.

Javier ENCINA, M. Ángeles ÁVILA y OTR@S (2011) *Participando con y desde la gente*. Edita UNILCO-espacio nómada. Sevilla.

Javier ENCINA, Beatriz LUQUE y M. Ángeles ÁVILA (2009) *La comunicación en los procesos de participación*. De las mediaciones consentidas a las mediaciones deseadas, en Javier ENCINA y OTR@S (coord.) *Comunicación popular o comunicación alternativa. ¿Un falso dilema?*. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

Javier ENCINA y Montserrat ROSA (2006) *El uso de espacios y tiempos cotidianos como constructor de democracias*, en Javier ENCINA e Iñaki BÁRCENA (coord.). *Democracia ecológica*. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

- ENREDANDO (2012) *La alegría nos hace fuertes. Carnaval en Ludueña*. Enredando (Febrero). Rosario. Argentina.
- Sigmund FREUD (1984) *Más allá del principio del placer*. Alianza editorial. Madrid.
- Michel FOUCAULT (1988a) *El sujeto y el poder*. Revista Mexicana de Sociología, Vol. 50, No. 3. (Julio-Septiembre). UNAM. México.
- (1988b) *Cómo se ejerce el Poder*. En la red : <http://www.unizar.es/deproyecto/programas/docusocjur/FoucaultPoder.pdf>
- (1992) *Microfísica de poder*. Ediciones Endymión. Madrid.
- (2009) *Historia de la sexualidad. 1. Voluntad de saber*. Gandhi ediciones. México.
- Paulo FREIRE (1999) *Pedagogía de la esperanza*. Ed. Siglo XXI. México.
- (2004) *Pedagogía de la autonomía*. Ed. Paz e Terra SA. Sao Paulo.
- (2005) *La educación en la ciudad*. Siglo XXI editores. México.
- Agustín GARCIA CALVO (1999) *El Hombre contra la gente*. Cuchará' y paso atrás' nº 7. Sevilla.
- G. W. F. HEGEL (1993) *Fundamentos de la filosofía del derecho*. Libertarias Prodhufi. Madrid.
- John HOLLOWAY (2001), *Doce tesis sobre el anti-poder*, en Toni NEGRI y OTROS, *Contrapoder. Una introducción*. Ed. De Mano en Mano, Buenos Aires.
- Jesús IBÁÑEZ (1997) *A contracorriente*. Ed. Fundamentos. Madrid.

- Ivan ILLICH (2006) *La convinencialidad en Obras Reunidas* tomo 1. Ed. Fondo de Cultura Económica. México.
- Serge LATOUCHE (2008) *La apuesta por el decrecimiento*. Icaria. Barcelona.
- Niklas LUHMANN (2005) *Confianza*. Anthropos Editorial. Barcelona.
- Javier MALAGÓN (2003) *Comunicación y ciudadanía*, en Tusta AGUILAR y Araceli CABALLERO (coord), *Campos de juego de la ciudadanía*. Ed. Viejo Topo. Barcelona.
- Jesús MARTÍN-BARBERO (1987) *De los medios a las mediaciones*, Barcelona, Gustavo Gili.
- (2007) *Desafíos de lo popular a la razón dualista*. Cuchará' y paso atrás' nº 17. Ed. Atrapasueños. Sevilla.
- Carlos MARX (1980) *La guerra civil en Francia*. Ed. Progreso. Moscú.
- (1981) *Manuscritos económico-filosóficos en Erich Fromm Marx y su concepto del hombre*. Fondo de Cultura Económica. México DF.
- Manfred MAX- NEEF (1994) *Desarrollo a escala humana*. Ed. Icaria. Barcelona.
- Edgar MORÍN (2001) *Los siete saberes necesarios para la educación del futuro*. Ed. Paidós. Barcelona.
- (2011) *La Vía para el Futuro de la Humanidad*. Ed. Paidós. Barcelona.
- Clara MURGUIALDAY, Karlos PÉREZ DE ARMIÑO y Marlen EIZAGUIRRE (2000) *Empoderamiento* en Karlos PÉREZ DE ARMIÑO, *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*. Icaria/Hegoa. Bilbao.

Toni NEGRI (2001) *Contrapoder*, en Toni NEGRI y OTROS, *Contrapoder. Una introducción*. Ed. De Mano en Mano, Buenos Aires.

Eduardo "Tato" PAVLOVSKY (2005) *Bolivia*. Página 12 (martes 20 de diciembre). República Argentina.

Carlos TAIBO (2009) *Doce preguntas sobre el decrecimiento*. Libre Pensamiento, nº 61 (primavera). CGT. Madrid.

Tomás Rodríguez VILLASANTE (1998) *Del desarrollo local a las redes para mejor vivir*. Ed. Lumen. Buenos Aires.

Raúl ZIBECHI (2007) *Dispersar el poder*. Virus editorial. Barcelona.

(2008) *Espacios, territorios y regiones: la creatividad social de los nuevos movimientos sociales en América Latina*. Cuchará' y paso atrás' nº 18. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

Hizkuntzaren jabe-gabetzea.

Ainhoa Ezeiza, Nahia Delgado eta Javier Encina
Donostia/Sevilla.

Itzulpena: Ainhoa Ezeiza

"Jaun-andreok: hizkuntza ez da inorena; konplexutasun zoragarriko makina hori, zuek zeuek darabilzuen, "herriyak bizilagunakin hitzaitzeko dabilen hoixe", ez da inorena". Agustín GARCIA CALVO (2015:7).

Gure iritziz, hizkuntza ondare komuna da (inorena edo denona, segun eta nork adierazten duen), hizkuntza nagusiki ahozkoa da (ez nahastu ozenki irakurritakoarekin, edo antzerako aldaerekin...). Hizkuntza arautua, normalizatua, aldiz, publikoa da (Estatuarena) eta bere merkaturatzea, masa-hizkuntza bihurtzea, pribatua da (Merkatuarena).

Idazmenak, Kulturak, Eskolak... jabea dute: Estatua edo Merkatua; eta beren irrika da konplexua sinplifikatzea, ez xumetzea. Eta sinplifikatu nahi dute horrela Merkatuak masa kultura bihurtu dezakeelako eta gehiago saldu, eta Estatuak kultura nazional bihurtu dezakeelako eta gehiago kontrolatu; aliantza are handiagoa izan daiteke eta ez sartzeari lehian masiboa eta nazionala, eta masa kultura nazional bat eratzen da, populismoek egiten duten eran... Konplexua sinplifikatu ondoren, xumea konplikatzen hasten dira (ez konplexutzen). Eta Hezkuntza eta Kultura Legeen bitartez konplikatzen dute (kontrol handiagoa!), Unibertsitarioentzako Produktu Masiboak erabiliz,

hizkuntza inizatikoarekin batera (bere Hiztegi eta guzti... negozio handiagoa!).

Estatu eta Merkatuaren logika menderatzailea aurkitzea da, hau da, bilatzea eta orainaldi nagusitik azaltzea iraganeko gertaerak, orainaldiaren arrazionaltasun menderatzailean enkajaturik, Aurrerapen eta Globaltasun zentzua emateko. Eta beren tresnak idazketa eta bere eratorriak dira.

Ahazkotasunaren alogikak, kultura herrikoienak, iraganeko espiralean dabilta gure orainaldia ulertzen lagunduko diguten bizitzeko erak topatzeko, eta horrela aukera zabaltzen digute eguneroko bizitzaren erreproduktzioa areagotzeko, eta bide horretatik etorkizun hurbila eraldatzen laguntzeko, bizitzari uko egin gabe (iraganeko bizitza, oraina eta geroa). Modu honetara da posible eguneroko bizitzaren autogestioa.

Zientzia Alternatiboaren planteamendu logikoetatik ere, kultura herrikoiak ukatzen dira, erreakzionarioak edo ezjakinak direlakoan, edo alderantziz (baina emaitza berera iritsiz), kultura herrikoiak IZATETIK baieztatzen dira, Herri baten identitatearen alderdi positibo bat izango balitz bezala. Bi ikuspegiok erabili dira nolabait kultura herrikoien ahalmen antisistemikoak desartikulatzeko, hauek EGOTEAN elikatzen baitira, aukera bakarra pertsona gisa bizitzeko, besteak eginez/sentituz/pentsatuz ezagutzeko, ez rol sozialen arabera, rol horiek erraztu egiten baitute Botereak gu gidatzea eta gidatuak izan gaitzean onartzea (Michel FOUCAULT).

Hiru arazo/blokeo hauek markatu dute kultura herrikoiekin egiten den lana:

- Lehena izan da idatzizko hizkuntza hizkuntza unibertsala dela, gainerako hizkuntzak ulertzeko gakoa.
- Bigarrena da kultura herrikoiei buruz singularrean hitz egitea, bere ezaugarri nagusia hautsita: aniztasuna. Eta, bide batez, uniformizatuz, beren funtzionamenduaren eta posizioaren azalpen estrukturala eman daiteke, ikuspegi dialektikoa saihestuz, hain zuzen ere eraikitze kolektiborantz zabaltzen duen ikuspegia, kultura herrikoien beste ezaugarri nagusi bat.
- Hirugarrena da jabekuntza kulturala, edukietarantz begiratzera behartzen gaituena, harreman-moduak eta egunerokotasuna bizitzeko moduak bigarren mailan utzita, kultura herrikoiekin/etatik lan egiteko gune nagusia. Tresna garrantzitsuenetako bat jabekuntza horretan Eskola da (eskola zentripetua).

Emmanuel LIZCANOren hitzetan (1984:10), “idazketak, zientziari emandako bultzadarengatik ondo irabazitako ospea baldin badu ere, hau idazten duenak idazketa sostengu gisa erabiltzeaz gain plazer fisikoa ere lortu arren, ez dio inori ahozko kulturen lurra basamortu bihurtzeko eskumenik ematen. Ez dute idazketarik izango, baina guk faltan ditugun beste lorpen batzuk dituzte, etanik dakidala- ez dute inoiz kulturarik eza edo superstizioarengatik geure liburuak sutara eramango dituen *ahozkotasunaren* aldeko kanpainarik hasi. Letra eta gobernuko jende hori: ahozko hitzen kulturak ez dira soilik urrutiko kontinenteetan bizi. Euren hitza daukate ijito eta euskaldun, galego eta andaluziar, geure haurrak eta geure barrenetan ditugun amildegi inkontzienteak,

hain ikasiak garenok ere. Juan de Mairenak ondo zekien bezala, oraindik oso litekeena da, geure artean esan dezagun, ezagutza unibertsitarioak folkloreakin, herriaren jakintzarekin ezin lehiatzea. Utz itzazue, utz gaitzazue, utz dezagun geure burua bakean!”

Edo Hans Magnus ENZENSBERGERek (1986:7) planteatzen digun bezala, “ inoiz ez da izan kontua idatzizko kulturaren bidea zelaitzea, eta are gutxiago gizakiak adingabetasunetik askatzea. Mintzagai zen progresoa oso bestelako kontua zen. Alfabetatugabeak gizakiaren klaseetatik baxuenera otzantzea zen, fantasia eta tema indarrez kentzea, ondoren, euren giharren indarra eta euren eskuen trebezia esplotatzeaz gain, euren burua ere ustiatzeko”.

Idazmenaren eta bere eratorrien diktaturaren aurrean, ahozko kulturek subjektuen ahotsak askatzen dituzte, objektibotasunaren aitzakia zalantzan jarriz, edo, Daniel BERTAUXek esan bezala (1979:25) “bizirik dagoena gauza bihurtuz eta gatazka eta kontraesana egituratuz”; horrek behartu gaitu metodologiak alde batera utzi eta egiteko formak eraikitzen joatera, subjektuen pentsatzea/sentitzea/egitea askatzeko: Egiteko modu hauek mugakoak dira, kutsatuak eta mestizoak, prozesu sozialetara etengabe egokitzen ari direnak. F. ELEGÖETen hitzetan (1978:9), “beren barne-logika aktoreen praktiken eta adierazgarritasunaren bitartez azalera dadila”, bitartekaritza sozial berriak indartzeko, prozesu sozial horiek berauek aberasteko balioko dutenak. Jendearekin eta jendearengandik lan egiteko modu hauek dira ilusionismo sozialetik proposatzen ditugunak..

Ahozko kultura horien aurrean:

- Merkatuak entzute-jarrera garatu du. Jakintza eta hizkera horiek adierazten diren modu eta zeinuen gaineko arreta; beraiengandik ikasi eta masa hizkera bihurtu ahal izateko.
- Estatuak jarrera kritikoa garatu du. Susmoa du jakintza eta hizkera horiek zer ezkutatu, distortsionatu edo estaltzen ari ote diren. Horri erantzun egin nahi dio, egia ezagutarazteko eta *ezagutzaren Argia ezartzeko, ezjakintasunaren iluntasuna nagusi den mundu horretan.*

Kultura herrikoiek, ordea, beren alogikak konfiantzan, zaintzan, bizipozan, itxaropenean eta elkarren arteko beharrea oinarritzen dituzte; jabe-gabetzearen zutabeetan, hain zuzen ere. Eguneroko bizitzan, garrantzitsuena ez da edukia, harreman moduak baizik, kaosaren esperientzia sortzailean, irekitzeko irekitzen delarik, identifikazio prozesuak erraztuz. Identifikazioa ulertu behar da esanahien ekoizpen prozesu baten modura, ingurune sozial, kultural eta naturalaren erreferentzia duena. Hortaz, elkarreragin eta komunikazio fenomeno soziala izango litzateke, norbanakoei beren inguruko mundua interpretatzeko gaitasuna ematen diona.

Leku askotatik pasatzen zen historia
 Hitz bakoitza zalantza bat zen
 eta kontzientzia bakoitzaren gako hautatzea.
 Eta zuri, horren txiki eta munduaren laburpen,
 denak su hartu behar zizun mairuak ikusi zenituenean
 hitz bakoitzaren itsasertzean.

Leku askotatik pasatzen zen historia.
Mundua hezurrez ereindako lur-eremu zabala zen
eta barazkiak noizpait hazi ziren
gorpuen bizi-zukuetatik elikatuta.
Eta jakin nuen lurrek ureztatutako hondakinek
erraiak ernalduko zizkiela bihar.

Horregatik ez da arraroa askok ez ulertzea,
askok jakin baikenuen norantza berberei buruz.
Horregatik ez da arraroa inork ez menderatzea
bere mundu guztien bridak.

“Por muchos lugares”
Silvio Rodríguez (1968)

Ivan ILLICHEk kontatu zuen eran (2015:42), “oraindik gogoan dut Chicagon 1964an izan nuen esperientzia txundigarria. Mintegi bateko beste kide batzuekin batera eserita nengoen mahai baten inguruan; nire aurrez aurre, antropologo gazte bat zegoen. Nire ustez erabakigarri zen elkarrizketako une batean, gazte horrek zera esan zidan: *‘Illich, ez zait iristen esaten ari zarena; ez zara nirekin komunikatzen ari’*. Nire bizitzan lehen aldiz, kontzientzia hartu nuen norbait nirekin ari zela, ez pertsona bat banintz bezala, transmisore gisa baizik. Hasierako nahastearen ostean, iraindua sentitu nintzen. Nik pentsatzen nuen pertsona horri erantzuten aritu nintzela, baina bera gure elkarrizketa zerbait orokor gisa esperimentatzen ari zen: *giza-komunikazio era gisa*”. Ezagutza eta jakintzak gatazkan, autoretza eta erreferentzia kontraesanean.

Jakintzak almazuelak bezala eraikitzen dira: zaharra eta berria elkarren artean josten dira eta funtzio desberdinak

ematen zaizkie, ez da diseinua, joskintza baizik, eta gero balio ez badizu, desjosi egin dezakezu eta zerbait berria egin beste oihal puska batzuk erabiliz, une horretan behar duzun hori egiteko, kolektiboki konpartituz eta eraikiz. Hain zuzen ere, diseinatzaile handiek egiten dutenaren kontrakoa, hauek diseinuak, arropak, eramateko moduak lapurtu egiten dituzte eta autoretza jartzen diete (“homeless” modarekin pasa den bezala). Autoreak bidegabeko jabetze kulturala egiten du, traizio bat da ez dielako baliorik ematen beste pertsona batzuegandik jaso duen ezagutza, eta gainera, traizio horretan sakontzen du, Agustín GARCÍA CALVOk esan bezala (2009): “Amos-ekiko independentziaren kontu hori, eskuzabaltasun hori, soilik hipokresia handiz euts dakioko gaur egungo intelektualen egoeran. Boterea bera bezala, Dirua bezala, Etorkizunaren zerbitzura daude. Helburuekiko askatasunik ez, egia ezezagunaren bilaketarik ez; aitzitik, diskurtsoak, liburuak eta bestelako ekoizpenak, jendeari inposatzen zaizkion sinismenen egia faltsua baieztatzeko. Hara nora iritsi garen.”

Nola ebazten da autoretzaren dilema kultura herrikoietan? Autoretik erreferentziara pasaz: *bada familia bat Fuente de Cantos-en ikaragarritzko gaztak egiten dituen esne gordina erabiliz, ez dut halako besterik dastatu inoiz*, taldeko zerbait da, leku batekoa, ahoz transmititua... ezagutzaren bidea apurtzen duena, autorearen identitatea hausten du pertsonen, lekuen eta jakintzen identifikazioaren bitartez. Edo, beste ikuspegi batetik, idatzizkotik, Colectivo SITUACIONESek planteatzen duen modura (2004): “Halako zerbait gertatzen zaigu argitalpenekin: bat-batean sortzen zaizkigun beharrak dira beste esperientzia batzuk ekartzeko, beraiekin batera luzatzeko, baina ez dute adierazten beharrezko fase bat sistema zabalago batean.”

Diskurtsoak hizkerak (ahozkoa, idatzia, gorputzezkoa, keinuzkoa...), jakintzak eta ezagutzak adierazteko moduak dira. DISkurtsua gaitasun arrazionala/emoziozkoa/akziozkoa izango litzateke gauza batzuk besteetatik inferitzen direnak, bere printzipioetatik erauzten direnak, hau da, bere “kurtsotik”. DisKURTSOa gaitasun arrazionala/emoziozkoa/akziozkoa litzateke gauza batzuk besteetatik deduzitzen direnak, printzipioak ordenatuz, hurrenkeran jarritz, hau da, bere “kurtsotan”; disKURTSOak gidatzen gaitu eta Botereak gida gaitzan eragiten du. DISkurtsok, berriz, bat-batekoa, efimeroa, aurreikusi ezin dena indartzen du, eguneroko bizitzaren autogestioa, alegia.

Diskurtsoak ez lirateke guretzat soilik komunikatzeko bitartekoak (bi pertsona edo gehiago elkar ulertzen laguntzeko zerbait), komunikologoek dioen moduan, ezta ekoizpenerako bitarteko bat ere (lan bat egiten laguntzen duen zerbait), Raymond WILLIAMSek proposatu bezala (1977), *bitartekari bat baizik*: komunikatzeko askotariko moduen eta gizarte mugimenduen arteko artikulazioak, kultura herrikoien aniztasunean murgildutako denbora desberdinetan gertatzen direnak. Horregatik da beharrezkoa *diskurtsuetatik lan egitea* eraldaketarako partaidetzako edozein ekimenetan, diskurtsoek, bitartekari gisa, prozesuak, praxika sozialak... kontatzen dizkigutelako, egoerak eraikiz/erailsiz. Guretzat, esan den horretatik abiatu behar da (bai bere forman eta bai bere edukian) eta gero bestelako kontuei erreparatu, ulertzeko zergatik esan den esan dena; baina gure helmuga ez da jakitea, baizik eta jakin-mina, ekintza eta partaidetza ahalbidetzea, eta ondorioz, sormenak landu behar ditugu jabe-gabetzerantz zabaltzeko eta hala, eguneroko bizitzaren autogestioa errazteko.

Zer da jabe-gabetzea? Jabe-gabetzea boterea uztea baino ez da (“*hacer dejación*”) (behekoenganantz eta ingurune sozial eta naturalarekin harmonian) eraikitze kolektiboa ahalbidetuko duena. Botere uzte hau bizitzaren edozein eremutan egin daiteke (familia harremanetan, lagunartean, lanean, elkartasunean...), banakakoa izan daiteke (ni aita/ama/semi/alaba gisa..., ni adiskide gisa, ni nagusi gisa, edo irakasle gisa, edo mediku gisa, edo funtzionario gisa, edo aktibista gisa...), kolektiboa izan daiteke (EZLNk ahalbidetu zuena 2000 urtean mugimendu politiko bihurtu zenean, hau da, ejerzitoaren boterea utzita, Chiapaseko herriek euren oraina eta geroa kolektiboki eraiki zezaten: Mundu Berria).

Hizkuntzaren jabe-gabetzea botere hori uztea baino ez da, Estatuak eta Merkatuak hizkuntza suntsi dezaten galarazteko, hizkuntza komuna da!!! Ahozkoaren balioa onartuko duen espazioa zabaltzea, eguneroko bizitzako espazio eta denborak babestea, ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko truke horizontalak egon daitezen. Kultura herrikoiek duten txirikordatzeko era horiek...

Kultura herrikoak harreman pertsonartekoetan eta kolektiboetan oinarritzen dira, ingurunearekin batera. Espazio eta denbora zehatzetan sortzen dira, orokorrean lokalki eta auzokideekin. Beraien mundu-ikuskerak islatu egiten dituzte, aldi berean, kultura ofizialen eta masa kulturen bazterketa eta onarpena. Oreka ezegonkor honek, kultura hauek galtzea edo beste kulturek xurgatzea. Gainera, ez dugu ahaztu behar kultura herrikoiek hainbat joera estruktural elkarlotzen dituztela: etnia, gizarte maila, lan-kultura, generoa eta adina; eta hauek elkarlotzeaz gain, aberastu eta dibertsifikatu egiten dituzte.

Kultura herrikoiak, bizitzeko modu bat izanik, ezin daitezke azaldu eguneroko espazio eta denboretan sentitu/pentsatu/egin gabe, eta errepikapen sortzailearen bidez sortzen dira etengabe. E. MORÍNEk dioen eran (2001:46-47), “unitate konplexuak, gizakia edo gizartea kasu, dimentsioaniztunak dira; honela, gizakia aldi berean biologoa, psikikoa, soziala, afektiboa eta arrazionala da. Gizarteak dimentsio historikoak, ekonomikoak, soziologikoak, erlijiosoak... ditu bere baitan. Jakintza egokiak dimentsio aniztasun hau onartu egin behar du eta bere datuak bertan txertatu (...).

Jakintza egokiak konplexutasunari aurre eman behar dio. *Complexus* hitzak esan nahi du elkarren artean josita dagoena; hala da, konplexutasuna dago osotasuna eratzen duten elementuak banaezinak direnean”.

Kultura herrikoiak dira eraldatzeko ahalmena dutenak: aniztasuna eta horizontaltasuna, egokitze, erresistentziarako eta eguneroko bizitzaz goatzeko gaitasunari lotuta; eraldatze prozesu komunitarioen sortzaile/indartzaile dira. Kultura herrikoiak jakintza kolektiboak berreskuratzen eta berpizten dituzte, bat-bateko trukeekin, gizarte laboreekin, elkarren arteko laguntzekin, harreman afektiboekin, desikasteekin eta ikaste berrietarako irekitzeekin batera... jakintza-iturri agorrekin dira.

Kultura herrikoiaren aurrean, Estatuaren eta Merkatuaren interesa da lurraldetzea, eta hori bere tresnekin egiten du: Idazketa, Kultura, Eskola, Nazioa... horregatik dira horren garrantzitsuak eta gure bizitzaren parte handi bat hartzen dute lurralde eta ordutegiek, eguneroko bizitza kolonizatzen saiatzen direnak; bizitako eta eraikitako

denboraren suntsipena ezaugarritzen duen prozesu bat bizitzen ari gara. Kulturen lurraldetasuna eguneroko bizitzako espazioa, espazio komuna, espazio pribatu/espazio publiko bihurtzen denean, horrela dena denbora objektibatu batek markatua geratzen da (ordutegia) –denontzat berbera-, lurralde bihurtutako espazio bat, eta pertsona batzuk parte hartzetik begiratzera pasatzen direnak: eraikitze kolektibotik ikuskizunera.

Zergatik dira horren garrantzitsuak espazio eta denborak kultura herrikoiek bizirauteko, hizkuntzaren jabe-gabetzearen ikuspegitik? Beharbada erantzuna haizeak darama eta beren ezaugarrien bidez iritsarazten zaigu. Espazio eta denboren ezaugarriak hauek dira:

- Dinamizitatea: espazio guztien arteko eta bertan bizi diren eta sortzen ari diren gizarte eta kultura guztien arteko komunikazio etengabea eta jariotsua.
- Mugimendua: kontzepzio kulturalak aldatzeko gaitasuna, bai materialak, bai sinbolikoak, kultura ezberdinen arteko garapen eta harreman etengabearen fruitu gisa.
- Aniztasuna: besteak ezagutzea eta onartzea, homogeneousaziaren aurka jarrita. Hori lurralde/ordutegi binomioarekin neutralizatzen saiatzen da, bizitako eta eraikitako denboraren suntsipenaren bitartez.

Epilogo: Hizkuntzaren jabe-gabetzea eta eskola

Nola lortu dute hizkuntza arautuaren kontzeptua inposatzea –uniformetasuna, egitura, sistema linguistikoa... –, hizkuntza ez bada inorena eta komuna bada? Nola transmititu da gutxi batzuek hizkuntza gobernatu dezaketelako ideia? Hortxe sartzen da derrigorrezko eskolaratzea, bertan bai, pertsona batzuek beste askoren gainean gobernatzen dute eta erabakitzen dute zer dagoen zuzen eta zer oker. Horrela bada, eskolak oso lurralde nabarmenak dira jendea otzantzeko eta diziplinatzeko, eta oso argi dago eskola oso interesatuta dagoela hurrei irakurtzen eta idazten ahalik eta goiztiarren irakasten. Zeregin temati horretan, ipuinak ere irakurriak dira eta modu errepikakorrean errepikatzen dira, eta horrela ezabatzen da ahozkoatasunaren kulturaren aniztasun handia.


Ivan ILLICHek planteatzen duen moduan (2015:39 y 32), “ahozko gizarte batean, pasatako adierazpen bat soilik oroitaraz daiteke antzerako adierazpen baten bidez. Notazio ez alfabetikoak dituzten gizarteetan ere, diskurtoak ez ditu bere hegalak galtzen: behin esanda, betiko joan da. Notazio piktorikoak edo ideografikoak irakurleari ideia bat iradokitzen dio eta bera da hitza aurkitu behar diona. Testu alfabetikoak soinua tinkotzen du. Irakurtzen denean, idatzi dituenaren iraganeko esaldiak orainaldi bihurtzen dira. Orainaldia eraikitzeko material berri bat sortu da: duela asko desagertu ziren hiztunen hitz errealak (...).

Ahozko kultura batean, ez dago hiztegian bilatzen ohituta gauden tankerako 'hitzik'. Kultura mota horretan, ixiluneen artean dagoena silaba bat izan daiteke, edo klausula bat, baina ez gure atomoa, hitza. Igorpen guztiek

hegalak dituztela dirudi, esaten ia amaitu aurretik dagoeneko betiko joan baitira. Gertakari hauek lerro batean tinkatzea, momifikatzea, ondoren berpizteko, hori ezin da pentsatu ere egin. Horregatik, ahozko kulturetan oroimena ezin da ulertu biltegi gisa edo argizarizko taulatxo gisa”.

Jesús MARTÍN-BARBEROren arabera (2015:51), “bada 'leku' bat non idatzizkoen dibertsitatea lehertu egiten den eta kulturen arteko gatazka bihurtzen den, leku hori eskola da. Baina eskolak ikus-entzuneko kulturarekin duen gatazka ezkutatu egiten du, ondorio moraletara mugatuz, eta horrela soilik kexu da bitarteko hauek (...) gazteei aisia lapurtzen dietela esanez, euren sineskortasuna eta idealismoa manipulaten dutela, azalkeria eta konformismoa sustatzen dutela, edozein zeregin seriori uko eginarazten dietela, irakurketa eta liburu exigenteari balioa lapurtzen diotela... Horrek zera esan nahi du: gatazkek soilik hitz egingo luke eskola borrokan dabilela entretenimenduaren sasi-kulturaren, pasibotasun konformistaren eta analfabetismo berriaren aurka, hedatzen duena irudi eta musikaren zarata baino ez delarik”. Baina Jesús MARTÍN-BARBEROk proposatzen digun gatazka ulertzeko, bi eskola-motari buruz hitz egin beharko genuke: eskola zentrifugoa eta eskola zentripetua.


Indar zentrifugoez zentrutik ihes egiten dute, objektuak errotazio ardatzetik urrunarazteko joera dute eta indarraren espiraletik objektuek jauzi egin edo irten daitezen eragiten dute ezustez. Indar zentripetuek beren eraginpeko objektuak zentzurantz bultzatzen dituzte eta mugimendu zirkularrari eusten dioten indarrak dira.



Irudiaren iturria: Ciencia Total

[<http://www.cienciatotal.es/ciencias/spip.php?article3332>]

Indar hauen analogiari segiz, eskola nagusiak barrurantz biratzen du, eskolatik kanpo dagoena harrapatzen du eta bere indarpera eramaten du. Eskola nagusiaren bertsio alternatiboenetan ere, esaterako, ikas-komunitateen kasuan, eskola-inguruan dagoena hartzen dute eta eskolaren elementu gisa sartzen dute (herriko istorioak, auzokideen edo familien trebetasunak edo ideiak...) zirkulari eusteko, harremanak beti barruraka eramanez. Eskola zentripetuak uniformizatu egiten du, eta bere inguruan basamortu kulturala sortzen du, Eskola kulturaren gunean kokatuta. Eta eskola zentripetuak daude bai eskola publikoen artean eta bai eskola pribatuen artean, eskola kontzertatueta, eskola ez kontzertatueta, eskola libreetan...



Irudiaren iturria: El blog del Dr. Infierno
[<http://www.drinfierno.es/pilotaje/equilibrio.htm>]

Hezkuntzaren jabe-gabetzeak, ostera, zentrutik ihes eginez lan egitea proposatzen du, gauzek kanporaka alde egin dezaten ahalbidetuz, horrela eskolan sortzen dena komunitatean partekatzen da, irekitzeko irekiz, eta irekia dagoenez, komunitatetik eskolarako fluxua eta eragina ere posible eginez. Eskola zentrifugoa sustatu beharko litzateke, eskolako ezagutzak komunitatean mugi daitezen eragiten baitu, eskolak zentraltasunari eutsi gabe, eskola komunitateko beste espazio bat izan dadin. Eta eskola zentrifugoak daude bai eskola publikoen artean eta bai eskola pribatuen artean, eskola kontzertatuetan, eskola ez kontzertatuetan, eskola libreetan...

Berez, ez gara eskola publiko edo pribatuaz hitz egiten ari, gure gaia ez da zein den eskolaren jabea, baizik eta nork erabiltzen duen eta nola. Eta horregatik, eskola komun baten alde egiten dugu, komuna komunitarioa izateagatik, dauden espazioak komunitateak berdintasunez erabiltzen

dituena, kolektiboki sortuz eta eraikiz, kultura herrikoiak sortu eta sustatzeko identifikazioak eraginez, jakintza herrikoiak bestelako ezagutzekin nahasten segi daitezen, bai ezagutza lokalak eta bai supralokalak.

Dinamika zentrifugo horiekin, komunetik erabiltzen direnak, ahozkoari balio berezia eman nahi diegu, ahozkoaren konplexutasunei, hizketa “komunikazio” gisa tratatu ordez, mezua ulertzetik hiztuna ulertzerara, jendea ulertzerara pasatzeko. Alegia, harreman moduak lehen mailan jarri eta egitura linguistikoak eta beren edukiak bigarren mailan kokatu, jendeak erabiltzeko moduko tresna gisa ulertuta. Norena da hizkuntza?

Bibliografia

Daniel BERTAUX (1979) *Ecrire la sociologie*. Information en Sciences Sociales nº 18.

Ángel CALLE (2008) *(Nuevos) Cultivos sociales*. Cuchará y paso atrás' nº 18. Sevilla.

COLECTIVO SITUACIONES Y UNIVERSIDAD TRASHUMANTE (2004) Universidad trashumante (territorios, redes, lenguajes). Ed. Tinta Limón. Buenos Aires.

Hans Magnus ENZENSBERGER (2015) *Elogio del analfabeto*. En Javier ENCINA, Ainhoa EZEIZA, Desempoderamiento, juego y oralidad. Editorial Bitiji-Toreador de Pájaros/Colectivo de Ilusionistas Sociales. Sevilla/Donostia.

Agustín GARCÍA CALVO (2009) Conferencia: *El papel del intelectual*. Lleida, 13 de marzo.

(2015) *La lengua, señores...* En Javier ENCINA, Ainhoa EZEIZA, Desempoderamiento, juego y oralidad. Editorial Bitiji-Toreador de Pájaros/Colectivo de Ilusionistas Sociales. Sevilla/Donostia.

Fanch ELEGOËT (1978) *La société paysanne bretonne par l'approche biographique*. Ponencia presentada al 9º Congreso Mundial de Sociología.

Javier ENCINA (2010) *De cómo trabajar las historias orales desde el ilusionismo social*. En Javier ENCINA y otr@s (coord.), Las culturas populares. Editorial Atrapasueños. Sevilla.

(2006) *Análisis desde los discursos. La investigación como praxis social*. En Javier ENCINA y otr@s (coord.), Del dicho al hecho andando ese trecho. Editorial Atrapasueños. Sevilla.

Javier ENCINA y M^a Ángeles ÁVILA (2014) El desempoderamiento. Viviendo la construcción de un nuevo mundo sin poder. Edita Colectivo de Ilusionistas Sociales. Sevilla.

Javier ENCINA, M^a Ángeles ÁVILA y otr@s (2011) Participando con y desde la gente. Edita UNILCO-espacio nómada. Sevilla.

Javier ENCINA, Beatriz LUQUE y M^a Ángeles ÁVILA (2009) *La comunicación en los procesos de participación. De las mediaciones consentidas a las mediaciones deseadas*. En Javier ENCINA y otr@s (coord.), Comunicación popular o comunicación alternativa. ¿Un falso dilema?. Editorial Atrapasueños. Sevilla.

Michel FOUCAULT (1988) *Cómo se ejerce el poder*. En la red
[<http://www.unizar.es/deproyecto/programas/docusocjur/FoucaultPoder.pdf>].

Ivan ILLICH (2015) *Un alegato en favor de la investigación de la cultura escrita lega*. En Javier ENCINA, Ainhoa EZEIZA, Desempoderamiento, juego y oralidad. Editorial Bitiji-Toreador de Pájaros/Colectivo de Ilusionistas Sociales. Sevilla/Donostia.

Emmanuel LIZCANO (1984) *Cuando no saber escribir es no saber escribir*. Liberación; jueves, 8 de noviembre.

Jesús MARTÍN-BARBERO (2015) *Nuevos modos de leer*. En Javier ENCINA, Ainhoa EZEIZA, Desempoderamiento, juego y oralidad. Editorial Bitiji-Toreador de Pájaros/Colectivo de Ilusionistas Sociales. Sevilla/Donostia.

Edgar MORÍN (2001) *Los siete saberes necesarios para la educación del futuro*. Editorial Paidós. Barcelona.

UNILCO-espacio nómada (2010) *Culturas populares*. En Javier ENCINA y otr@s (coord.), *Las culturas populares*. Editorial Atrapasueños. Sevilla.

Raymond WILLIAMS (1977) *Marxism and literature*. Oxford University Press.